

## TTIRRI-TTARRA

### AURKIBIDEA

<u>Gure zenbakia</u>	<u>Kontzejupetiko zenbakia</u>	<u>Edukia</u>
1	42  1996ko ekaina	Aurkezpena. Zuzendu: Ezagutu dotzut. Aberastu: (aurkezpenetan) Urte askotarako! Zainddu: Egurra/Zura bereiztu. Asmau: <b>Apirilaren azkenian ostrua haitz gaiñian</b>
2	43	Zuzendu: Bat-en erabilera okerra. Zainddu: Zorne, doministiku, makulu. Asmau: <b>San Juan, San Juan berde Sugak eta sapuak erre Danbolintterua Kuartillo bat eranda Jo deigun soñua.</b>
3	44, 96ko iraila	Jatortu: Estar mosqueado, pasar de todo, ... Asmau: <b>Bazkari-legia egin Kale-bazkarixa egin Neskatan ibilli.</b>
4	45	Zuzendu: Asko eta handixa bereiztu. Zainddu: Atzamarka egin, hazka egin, zintz egin, Kili-kili egin. Asmau: <b>Zer da ume bat IRRITTU egotia?</b>
5	46	Aberastu: Gure gizonak egitten dau berbaTAN! Zainddu: Argixa izan, argi egon. Entzuna egin, ezaguna egin. Asmau: <b>Zer da KALE EGITTIA?</b> Hiztegixa: Asteko eta hilabetietako izenak Oñatieraz eta batuaz.
6	47	Zuzendu. NA/LA nahasketa. Zainttu: Erasana, bihurritua, zastadia. Asmau: <b>Baserrittako afari jakiña, Gaztaña erriak eta salda irakiña Karta bat kolaboraziño eske.</b>
7	48	Asmau: <b>Santa Lutzia eguna Argittu orduko illuna</b> Hitanuaren erabilleraz hausnarketia. Ameriketara gutuna I (Zuka eta hiketan)
8	49	Zuzendu: (Dendetan) Besterik? Asmau: <b>San Bizente hotza neguaren bihotza</b> Zainttu: Garixa, babia, baltzunia, arekaitza, Oreixena, ospela Ameriketara gutuna II (Zuka eta hiketan)

9	50	Zuzendu: Indikatiboa oraiñaldixa-lehenaldixa Dotzut- notzun Xatzu- zotzan. Asmau: <b>Zer da ATAJU EGOTIA?</b> Ameriketara gutuna III ( Zuka eta hiketan)
10	51	Asmau: <b>Zer da PERTSONA PINTTUA?</b> Zuzendu: Aditza Nor-Norketik Nor-Nori-Norkera Aldaketia. Ameriketara gutuna IV.( Zuka eta hiketan)
11	52	Aditza: Ukan eta eduki aditzen forma ezagunenak, Orain eta lehenaldixan. Asmau: <b>Goizeko oskorrixak</b> <b>Ilunkarako iturrixak.</b> Ameriketarako gutuna V ( Zuka eta hiketan)
12	53 1997ko ekaina	Zainttu: Eskua txindurrirtu, oillo narrua egin, Ulia tentetu. Asmau: <b>Zer da ALEITZIRA ESATIA?</b>
13	54	Aberastu: Honen, horren, haren batian. Zainttu: Jare-jaregin. Asmau: <b>Zer da BETI BE?</b>
14	55	Zuzendu: Aditza galdegaia danian EGIN ifinttia.. Zainttu: Atximur egin, estropozu egin, jaramon Egin. Asmau. <b>Hasiak egiña dirudi</b> <b>Egiñak urre gorrixa</b>
15	57	Zuzendu: Nor-Nori eta Nor-Nori-Nork bereiztu Orain eta lehenaldixan. Aberastu: <b>-ZULO</b> atzizkixa. Asmau: <b>Zer da AHUA NEURRI?</b>
16	58	Zuzendu: Partitibua: ezezko, galdera eta baldin- tzazko esaldixetan. Asmau: <b>Zer da AMENTZERAUTA EGOTIA?</b>
17	59	Zuzendu: Partitibua: partizipiuak, aditz izenak Eta -en konparaziño atzizkixarekin. Asmau: <b>Zer da APARTU, APARKETIA?</b>
18	60	Zuzendu: Zihar galderak. Aberastu: <b>-ONTZI</b> atzizkixa. Asmau: <b>Zer dira ATSO-AGURAK?</b>
19	61	Zuzendu: Si egitten dot hori nik! Aberastu: LURMENDU aditza. Asmau: <b>Zer da ALANBRADAN IBILTIA?</b>
20	62	Zuzendu: Ume-berbeeria (lolitos, siestita,...) Aberastu: <b>-GAI</b> atzizkixa 1 Asmau: <b>Zer da HANKA GORRIXAK</b> <b>agerketia?</b>
21	63	Aberastu: <b>-GAI</b> atzizkixa 2  Osasunak emuten doskun bialekuak.

22	64 1998ko ekaina	Aberastu: Osasunaren gañian egindako ariketa. Sinonimuak billatu. Asmau: Zer esan gura daue <b>odolbatua, bihotz- erria, bidixixuak eta txirtau</b> berb ak?
23	65	Zuzendu: Jokatzen dogu pelotan? Asmau: Zer da <b>bidia hausi edo hausteia</b> ?
24	66	Aberastu: <b>GORRI</b> atzizkixa. Asmau: Zer da <b>beruena kendu</b> edo kentzeia?
25	67	Goguan hartu: <b>IZAN</b> aditza orain eta lehenaldixan. Asmau: Zer da <b>auzua egotia</b> ?
26	68	Goguan hartu: <b>EGON</b> aditza orain eta lehenaldixan. Asmau: Zer da <b>kirikaattia</b> ?
27	69	Goguan hartu: <b>FAN</b> aditza orain eta lehenaldixan. Asmau: Zer da <b>berbaatuta egotia</b> ?
28	70	Goguan hartu: <b>ETORRI</b> aditza orain eta lehenaldixan. Asmau. Zer da gauza bateri <b>etsipena emutia</b> ?
29	71	Goguan hartu: <b>IBILLI</b> aditza orain eta lehenaldixan. Asmau: Zer esan gura daue <b>menustu eta belustu</b> aditzak?
30	72	Aberastu: Animalixa zirrindaria ezkondu oñatikuak eta Elhuyar hiztegiak. Asmau: Zer da <b>ezagupeixa emutia edo/eta</b> <b>eukittia</b> ?
31	73	Aberastu: Animalixak II, aurreko alekoaren jarraipena. Asmau: Zer esan gura dau " <b>Hasixan hasi</b> " esamoldiak?
32	74	Goguan hartu: <b>EDUN</b> aditza orainaldixan Asmau: Zer dira <b>deiak</b> ? (Eliz deiak= Eliztixak)
33	75 1999ko ekaina	Goguan hartu: <b>EDUN</b> aditza lehenaldixan. Asmau: Zer esan gura dau " <b>biharrago zuan</b> " edo " <b>biharrago litzake</b> " esaeriak?
	76	Ezebes
34	77	Goguan hartu: Azken hiru urte honeittako <b>esamolde bilketia</b> . (lau orrialde)
35	78	Goguan hartu: <b>Izan, egon, fan, etorri eta ibilli</b> aditzen forma trinko neutruen orain eta lehenaldixa.

36	79	Goguan hartu: EUKI aditza orain eta lehenaldixan. Asmau: Zer da “ <b>marmazittan ibiltia</b> ”?
37	80	Goguan hartu: GURA IZAN aditza orainaldixan. Asmau: Zer da “ <b>hankak jasotia</b> ”?
38	81	Goguan hartu: GURA IZAN aditza lehenaldixan. Asmau: Zer da “ <b>unalian fatia</b> ”?
39	82	Goguan hartu: GURA IZAN aditza indikatibua Zer-Zeiñeri-Zeiñek (Hari) orain eta lehenaldixan Asmau: Zer da “ <b>senper lan egittia</b> ”
40	83	Goguan hartu: BIHAR IZAN aditza indikatibuan, orainaldixan. Asmau: <b>Biharko!</b> espresinua.
41	84	Goguan hartu: BIHAR IZAN aditza indikatibuan, lehenaldixan. Asmau: Zer da “ <b>azaak jotia</b> ” edo “ <b>azaak emutia</b> ”
42	85	Goguan hartu: BIHAR IZAN aditzaren esangura ezberdiñak. Asmau: Esan beste era batian “ <b>estresauta bizi naiz</b> ”
43	86 2000ko ekaina	Goguan hartu: AHAL IZAN aditza. Asmau: “ <b>Denboria aldiz, astoz edo zaldiz</b> ” esaera zaharraren esanguria.
44	87	Goguan hartu: EZIN IZAN aditza. Asmau: Zer da <b>zeiñeri</b> edo <b>zeri begira egotia</b> ?
45	88	Goguan hartu: JAKIN aditza orainaldixan eta lehenaldixan. Asmau: “ <b>Dakixenak badaki, eta eztakixenak baleki!</b> ” esateria noiz ebaliko zeunke?
46	89	Goguan hartu: JAKIN aditza, baldintzazkuak. Asmau: Zer esan gura dau “ <b>buruzuti egittia</b> ”?
47	90	Goguan hartu: EDUN eta EUKI aditzen forma neutruak, indikatiboko orain eta lehenaldixan. Asmau: Zer esan gura dau “ <b>oriaatu</b> ” aditzak?
48	91	Zuzendu: *txokolatadia, *gaztaiñadia Asmau: Zer esan gura dau “ <b>alkar hartu</b> ” aditzak?
49	92	Goguan hartu: EKARRI aditza orainaldixan eta lehenaldixan. Asmau: Zer da “ <b>txintxona</b> ” edo “ <b>ziburua</b> ”?
50	93	Goguan hartu: ERUAN aditza orainaldixan. Asmau: Zer da “ <b>arrosiña</b> ”?
51	94	Goguan hartu: JARDUN aditza orainaldixan eta lehenaldixan. Asmau: Zer da “ <b>igualeko</b> ”?

52	95	Txistia: Bittoriano Gandiagaren omenezkua Asmau: Zer da “zankarrankan ibilttia edo fatia”?
53	96	Goguan hartu: ERABILLI aditza oraiñaldixan eta lehenaldixan. Asmau: Zer da “nagixak ataratia”?
54	97 2001eko ekaina	Goguan hartu: ESAN aditza oraiñaldixan eta lehenaldixan. Asmau: “Esan esan alde” erako esaerak zer esan gura daue?
55	98	Goguan hartu: ERITZI aditza 3. pertsona singularrian eta pluralian orain eta lehenaldixan. Asmau: Emundako testuinguruan zer esan gura dau “onenian”?
56	99	Goguan hartu: IRUDI, JARIN/JARIO eta JARRAITTU/JARRAIKI aditz trinkuak. Asmau: Zer esan gura dau “larri ibili”?
57	100	Goguan hartu: EKIN, ETZIN eta IRAGO aditz trinkuak. Asmau: Zer esan gura dau “antza” halako esaeretan?
58	101	Goguan hartu: EUTSI aditza geure aditz sistemaren aditz laguntzailliaren funtziñuan. Asmau: Zer da “katamarran ibiltzia”?
59	102	Goguan hartu: EGIN aditza geure aditz sistemaren aditz laguntzailliaren funtziñuan. Asmau: Zer esan gura dau “inddarra hartu” espresiñuak?
60	103	Goguan hartu: Geure aditz laguntzailliaren eskema kuadruan. Asmau: Zer da “batiuak egittia”?
61	104	Goguan hartu: IRUDI aditzaren funtziñua beteten dauen aditzak Oñatin. Asmau: “Antzigarra” zein beste izenekin ezaguketan dogu?
62	105	Goguan hartu: Indikatiboko Nor-Nori <i>xat</i> eta Nor-Nori-Nork-eko <i>xat</i> ezbardinddu orain eta lehenaldixan.
63	106	Goguan hartu: ARI IZAN-en ordezkua.
64	107	Goguan hartu: Galdegaixa aditza bera danian Asmau: Zer da large(r)o edo lardero egittia?
65	108	Goguan hartu: Aditz perifrasi hau: <i>Fanik izango da.</i> Asmau: Zein alde dago leihua eta bentaniaren artian?

66	109	Goguan hartu: Erakuslien deklinabide-tabla I Asmau: Zer da <i>jaztetxia</i> ?
67	110	Goguan hartu: Erakuslien deklinabide-tabla II (akabota)



## TTIRRI-TTARRA

**G**aurko ale honekin orri barri bateri hasieria emutera goiaz. TTIRRI-TTARRA ifiñi xaugu izena eta bertan, batez be, geure herriko berbetia landu gura dogu. Lantze honetan Oñatiko euskera jatorra plazaratu eta erakutsi gura dogu, entzuten diran forma gaiztuak zuzendu, ahaztuta dagozen berba, esaera eta moldiak gogora ekarri eta dakogun aberastasunari bere balixua emun.

Honekin batera, herrikua eta euskera batuaren artian ez daguela horrenbesteko aldia agertu eta, "titti-ttarra" alfabetaitte-lan zabal bati ekittia litza-ke gure asmua.

Bide honetan makiña bat traba eta hankasartze izan-go dittugu, baiña danon laguntzaiaz fango gara kon-ponduaz.

Oraingoz talde txiki bat hasi gara lanian orri hau aurrera etarateko asmotan; taldea ereixa egin gura dogun ezkerro, gai honetan lana egitteko asmua leu-ken edozeiñi gonbittia luzaketan xaugu, eta jakin daixela eskuak zabalik hartuko dogula.

Herriko euskera lantzeko taldiarekin hartu-emune-tan jarri gura dauen edozeiñek jo daixela Oñatiko Euskaltegiko telefono honetara: 782496.

"Hasi gara hasi  
eta ttirri-ttarra bagoiaz  
herriko euskera landuaz"

### ZUZENDU

- A.-Esaldi okerra
- B.-Esaldixa ondo esanda
- D.-Batueraz

- A.- \* Ezautu be eztotzut egin
- B.- Ezautu be **ETZAUT** egin
- D.- Ezagutu ere **ETZAITUT** egin.

- A.- \*Arantzazura bazoiazai neuk eruango dotzuet
- B.- Arantzazura bazoiazai neuk eruango**ZAUET**
- D.- Arantzazura bazoazte neuk eroango **ZAITUZTET**


- A.- \*Arantzazun hankia biurritu eta etxeraino kotxian ekarri dostai
- B.- Arantzazun hankia biurritu eta etxeraiño kotxian ekarri **NAUE**.
- D.- Arantzazun hanka bihurritu eta etxeraino kotxean ekarri **NAUTE**.

### ABERASTU

Bi pertsonak alkar ezaguketarakuan hola dixue: **URTE ASKOTARAKO!**

Era honetara:

- A.- Zein dok ba hau?
- B.- Ez dok ezaguketan zein dan? Kirriñeneko Joxe dok hau!
- A.- **URTE ASKOTARAKO!**
- B.- Hi be ezaut nik ezaguketan!
- A.- Ez nauk ezaguketan?, ba ni Otsueneko Juan Ramon nauk!
- C.- Auzokua koño!, **URTE ASKOTARAKO!**






## ZAINDDU

### EGURRA/ZURA

Gaur egunian danerako erabiltzen dogu **EGUR** berbia, baiña gure nagusixak ondo bereizten dittue **EGURRA** eta **ZURA**. EGURRA landubakua (edo landubaia) da: sutarakua, materialetarakua; ZURA, berriz, landua: altzaritarakua, erreminttarakua, etab. Horregatik:

ZÚRezko maixa  
Zúrezko aulkixa  
Zúrezko koillaria  
Sukaldeko zúrezko tresnak

Su-EGURRA ekarri egizu  
Haritz honek baxakok bost bat m3 egur  
Basora fan dira egurretara  
Egur-karriuan dabitz



## ASMAU

Eman akaberia esaera honi:

"Apirilaren azkenian .....

### **ONATIKO EUSKARAREN IKERKETA-BEKA 4.300.000 pzta.**

**O**ñatiko Udalak euskararen irakaskuntzaren alorrean erabilgarri izango den materiala sortzeko helburuarekin, Oñatiko euskararen ikerketa-beka sortu du.

#### **Izangaiak**

Proiektuak zuzendari arduradun bat izango du. Honek lan-talde bat izango du bere ardurapean. Udalarekiko ordezkaria arduraduna izango da beti.

#### **Lana**

Oñatiko euskararen Corpus-a jasotzea, bere osagai guztiekin. Aldi berean, era didaktikoan moldatu beharko da materiala. Irakaskuntzari erabilgarria izan dadin.

#### **Iraupena**

Beka adjudikatzen den egunetik hasita, hemezortzi hilabeteko epean burutu beharko da lana.

#### **Ordainketa**

Beka osoa 4.300.000 pezetakoa da guztira, materialetarako 100.000 pezeta barne. Erositako materiala. Hiru urteko aurrekontuetan banatuta ordainduko da.

#### **Dokumentazioa**

Izangaiak ondorengoak aurkeztu beharko dituzte Oñatiko udalarekin.

- 1- Arduradunaren eskaera eta lan-taldearen arjamena
- 2- Eskatzailearen "Curriculum Vitae" a
- 3- Egingo den lanari buruzko txostena:
  - a.- lanaren nondik norakoa
  - b.- metodologia

#### **Bekadunen betebeharrak**

Aldiko lau hilabete igarotzean, hasierako proiektuaren arabera txostena aurkeztu ordurarte garatutakoaren berri emanez.

#### **Lanaren jabetza**

Udala izango da lanaren jabetza intelektualaren jabe; hala ere, Udalak ez du eragotziko lan horren erabilpena, Udalaren baimenarekin.

#### **Ebaluaketa**

Adituen batzorde bat eratuko da aurkeztutako proiektuak aztertu eta adjudikazio proposamena egiteko. Baloratuko direna:

- 1.-Beka arduradunaren Curriculum-a
- 2.-Proposatutako proiektuaren agerpena egin beharko du.



2



AKABO DITTUN  
ESKOLOK, NEKANE?

ORDUAN HEMENDIK  
AURREA LAGUNDU  
BIHARKO DOSTAN

ZERTARA INGLATERRARA?

ETXAKONAU  
AURREAGOKORIK!!

BAI, FAN ZAN ASTIAN  
HARTU NITTUAN  
OPORRAK

EZTAKITT SA,  
ETZELIMO NOIA  
INGLATERRARA ETA

INGLESA IKASI BIHARRA  
JACO DERRIGORREZ,  
AMANDRIA. ZEUK FE  
HASI EGIN BIHAR  
AURKI!!

## ZUZENDU

BATen erabilera okerra gazte-  
leraren eraginagatik.

A (Esaldi okerra) B (Esaldi  
zuzena) D (Euskara Batuan)

- A- Badakot gose BAT.
- B- Ikaragarriko gosia dakot.
- D- Ikaragarriko gosea daukat.

- A- Egiten dau bero BAT.
- B- Izugarriko berua egiten dau.
- D- Izugarriko beroa egiten du.

- A- Emuten dost amorru BAT.
- B- Egundoko amorrua emuten  
dost.
- D- Egundoko amorrua ematen  
dit.

## ZAINDDU

\*Oso baztertuta dauzkagun  
euskal hitz jatorrak.

Adibideak: **ZORNE, DOMINIS-  
TIKU, MAKULU...**

-Sendagileak \*pusa\* etara xau  
zaurittik.

-Sendagileak **ZORNIA** etara  
xau zaurittik.

-Zein dabil hor \*atxiska\*?

-Zein dabil hor  
**DOMINISTIKU**ka?

-Zer egiten dozu \*muletekin\*?

-Zer egiten dozu  
**MAKULU**ekin?

## ASMATU

Aurreko alekoari erantzuna:

A- "Apirilaren azkenian **HOS-  
TRUA HAITZ GAIÑIAN**"

D- "Apirilaren azkenean hos-  
troa haitz gainean"

Eman akaberia San Juan kanta  
honi:

"San Juan, San Juan berde  
sugak eta sapuak erre  
danbolintterua

.....

## ALOÑA

Autoeskola



Ramon Irizar, 3 behea  
Tfnoa: 78 24 91  
OÑATI

## IRIZAR ESTANKUA

Paperdenda • Loto • Loteria • Kiniela

Foruen enparantza, 6 Tfnoa: 78 00 15 OÑATI

# T T I R R I - T T A R R A

3

NONDIK NORA IBILI HAIZ, BA?

MORTIK ZIHAR. HAIZIA NORA,  
GU HARA. ETA HEU?


ANTZERA SAMAR. NAPARRUA  
ALDIAN IBILI GAITTUN

ETA EGIN EGIN DOZUE  
EZER?

BADAKIN, BAZETER BATZUK EZAGUTU-TA  
JUERGA BATZUK EGIN-TA

BETIKUA. ORAIN KONTUAK!

BAI, EJERKI GAODZAN!  
XEMEIKORIK EZ ALDIAN  
ETA SAN MIGELAK  
GAINIAN!



## JATORTU

Oraingo honetan gaztien ahotan oso zabaldua dagozen zenbait espresioen euskal ordainak topaiten jardun dogu:

### 1.- Estar mosqueado:

"Kezkatan egon"

Adb: Ume honekin kezkatan nago.

"Kezkatan geratu"

"Zerbaitti susmo txarra hartu"

"Zerbaitti itxura onik ez hartu"

"Zerbaitti usain onik ez hartu"

### 2.- Pasar de todo:

"Samurrenena egin"

Adb: Horreik beti samurrenena egitten daue, bape saiatu barik.

### 3.- Estar tirado:

"Alpertuta egon"

"Nagittuta egon"

"Ganorabatuta egon"

"Nagikerixiari emunda egon"

"Lanari bost tiro emunda egon"

### 4.- Estar colgado:

"Galduta egon"

### "Galduta ibilli"

Adb: Mutiko hori ziharo galduta dabil.

### 5.- Andar perdido (Andar sin rumbo fijo):

"Sororik soro ibili"

Adb: Ai, hori be sororik soro xabik pa!

### 6.- Tener mucho morro:

"Narru sendua izatia"

"Azal sendua izatia"

"Azal latza edukittia"

"Lotsabaia izatia"

"Lotsia galduta egotia"

### 7.- ¡Lo llevas claro!:

"Jai dakok/n"

"Eztakok/n zer egiñik"

"Gertatu heike"

"Ikusiko dok/n"

"Baten batek zuzenduko hau"

- *Ataja hago!*

### 8.- Echar la espuela:

"Azkena jo"

Adb: Txaketuenian joko xuagu/xonagu azkena?


## ASMATU

Aurreko alekuari erantzuna:

"San Juan, San Juan berde sugak eta sapuak erre danbolintterua kuartillo bat eranda jo deigun soñua"

## EZAGUTZEN DOZU EKINTZA HONEIN ESANGURIA?:

Bazkari-legia egin:  
Kale-bazkarixa egin:  
Kale-afarixa egin:  
Neskatan edo mutilletan egin:  
Neskatan edo mutilletan ibilli:  
Jera-jeraka egin edo ibilli:



Jaixetakua oso polita izan zan

Berba  
egin  
gura dot  
zurekin

Bai,  
ezta kot  
ahaztuta

Goazen,  
esingot  
dogu  
beldatxo bat

**ZUZENDU**

**HAUNDI**ren ordez **ASKO** erabiltten dogu sarritan:

**ASKO**: zenbaketako gauzeekin, gatz, olixo, ozpin, ardau,...

**HAUNDIXA**: ezin zenbatu diranekin: bilddur, gogo, min, gose, egarri, lotsa, logura,...

Adibidiak: **A**: esaldi aldrebesa; **B**: zuzena; **D**: batuan

A.- Gauza honeik lotsa asko emuten doskue.  
B.- Gauza honeik lotsa haundixa emuten doskue.  
D.- Gauza hauek lotsa haundia ematen digute.

A.- Lan horreik irudimen asko eskaketan daue.  
B.- Lan horreik irudimen haundixa eskaketan daue.  
D.- Lan horiek irudimen haundia eskatzen dute.

A.- Neska hareik inddar asko dakoi.  
B.- Neska hareik inddar haundixa dakoi.  
D.- Neska haiek indar haundia daukate.

**ZAINDDU**

Ahaztu samartutako era jatorrak:

1. **"ATZAMARKA EGIN"**  
A.- Mutiko horrek "arañau" egitten dau  
B.- Mutiko horrek ATZAMARKA egitten dau.  
D.- Mutiko horrek ATZAMARKA egiten du.

2. **"HAZKA EGIN"**  
A.- "Arraskatuko" dostazu bizkarrian?  
B.- HAZKA EGINGO dostazu bizkarrian?  
D.- HAZKA EGINGO didazu bizkarrean?

3. **"ZINTZ EGIN"**  
A.- Hala, "sonau" gogor!  
B.- Hala, ZINTZ EGIN gogor!  
D.- Hala, ZINTZ EGIN gogor!

4. **"KILI-KILI EGIN"**  
A.- Ama, Irenek "koskillak" egitten dost.  
B.- Ama, Irenek KILI-KILI egitten dost  
D.- Ama, Irenek KILI-KILI egiten dit.

**ASMATU**

Aurreko alekuari erantzuna:

**BAZKARI-LEGIA EGIN**: Bazkari izeneko edo mokadutxo bat egittia.  
**KALE-BAZKARIXA EGIN**: Etxetik kanpo bazkaittia.  
**KALE-AFARIXA EGIN**: Etxetik kanpo afaittia.  
**NESKATAN EDO MUTILLETAN EGIN**: Neskak edo mutilak ezagutu eta konkistaittera urtetia.  
**JERA-JERA EGIN** edo **IBILLI**: Besuetatik alkarri helduta kuadrillan saltoka ibilttia.

**GALDERA**

Zer da ume bat **IRRITU** egoitia?  
Adb.: Ume hau ezta kitt zer baino irrituago dago gaur!

Personaiak  
**ALDREES**



## ABERASTU

Ez dago zertan beti **ASKO** erabili bihar. Badagoz beste aukera batzuk be; esate baterako:

A: Oñatiera B: Batuera

- 1.- A) Gure gizonak egitten dau berba**TAN!**  
(Berba **ASKO** egitten dauela)  
B) Gure gizonak egiten du berba**TAN!**
- 2.- A) Etxe honetan jaten dogu ogi**TAN!**  
B) Etxe honetan jaten dugu ogi**TAN!**
- 3.- A) Kotxe honek erreten dau gasolina**TAN!**  
B) Kotxe honek erretzen du gasolina**TAN!**
- 4.- A) Gaurko umiak bihar daue eskola**TAN!**  
B) Gaurko umiek behar dute eskola**TAN!**
- 5.- A) Emakume horrek egitten dau lane**TAN!**  
B) Emakume horrek egiten du lane**TAN!**

## ZAINDDU

Gure gurasuak hola esaten daue:

- ARGIXA** **IZAN, ARG** **EGON**, "espabilau" ren ordez.
- Ume "espabilau" da. **UME ARGIXA DA.**
- Ume hau oso **ARGIXA** dator.
- Ume hau ezin uheratuko dogu, **ARGI** dago oraindiok eta.
- ENTZUNA** **EGIN, EZAGUNA** **EGIN**, "sonau" ren ordez.
- berba hori **EZAGUNA** egitten xat.
- neska hori etxat **EZAGUNA** egitten.
- kontau dozuna oso **EZAGUNA** egitten xat.

## ASMAU

Aurreko alekuari erantzuna:

- Ume bat **IRRITU** egotia da: hasarre, artekoso, egoneziñik, zatar egotia; patxara eta pake barik.

Gaurko galderia:

- Zer da **KALE EGITTIA?**  
Adibidiak:
- Bueno, hik egin dok **KALIA** hik!
  - Atzo kale eta gaur be **KALE?**
  - Aurten **KALE** egin doskue honeik!
  - Gaur, eskolan **KALE?**

## HIZTEGIXA

Hillabetien izenak:

- HILBALTZA** - Urtarrila
- OTSAILA** - Otsaila
- MARTIXA** - Martxoa
- APIRILLA** - Apirila
- MARIATZA** - Maiatza
- BAGILLA** - Ekaina
- GARAGARRILLA** - Uztaila
- AGUSTUA** - Abuztua
- AGORRA** - Iraila
- URRIXA** - Urria
- ZEMENDIXA** - Azaroa
- ABENDUA** - Abendua

Asteko egunak oñatieraz:

- ASTELEHENA** - Astelehena
- MARTIZENA** - Asteartea
- EGUAZTENA** - Asteazkena
- EGUENA** - Osteguna
- EBAIKUTZA** - Ostirala
- ZAPATUA** - Larunbata
- DOMEKA** - Igandea



## ZUZENDU

Sarrittan esaldi erlatibuetan aditzaren akaberako **-N**ren edo **-NA**ren ordez **-LA** ebalten dogu gaizki.

A. Gaizki                      B. Ondo

- A. Badakot lagun bat Donostian bizi da**LA**.
- B Badakot Donostian bizi da**N** lagun bat.
- B Nere laguna, Donostian bizi da**NA**, gaur dator.

- A. Hor badago zerbaitt ikusten ezto**guLA**.
- B Hor ikusten ezto**guN** zerbaitt badago.
- B Ikusten ezto**guNA** be badago hor.

## ZAINTU

Gure onezak esateko hiru modu jator: ERASANA, BIHURRITUA, ZASTADIA.

A. Erderakadia            B. Zuzena

- A. "Tiroia" euki dot besuan.
- B. ERASANA euki dot besuan.
- A. Orkatillan "esginzia" egin dot dantzan.
- B. Orkatillan BIHURRITUA egin dot dantzan.

- A. Ikaragarrizko "kalanbriak" xakonat sorbaladan.
- B. Ikaragarrizko ZASTADAK xakonat sorbaladan.

## ASMAU

Esaera honen bigarren atala: "Baserritako afari jakiña, ....."

Aurrekuari erantzuna:

KALE egittia da: Huts egittia (ez azertaittia), edo aurretik agindutako leku edo billera batera ez agerketia, edo eskolara egunen batian ez fatia, .....

# TTIRRI TTARRA kereixak

Agur Txantxiuok:

Seigarren ale honekin komentarixo batzuk egittia gura dotzuegu.

Bada Txantxikuren bat holako zerbait pentsau eta esan dabena: "bai, Oñatiko euskera eskribiuta ez dok hain politta, izan be, papelian **ettuk** agerketan guk esaten **ttun** moduan". Badakitue esandakuak haiziak eruaten dittuela; entzun orduko entenditten ez tiranak, adios, hareik fan ziran!

Papelian irakurten dittugunak, berriz, betik aurrian dakogu, eta pentsau eta hausnarketako astixa izango dogu gura adiaña beste. Papelekua betiko geraketan da.

Berbetan, geruago eta berba diferente gutxiago eta motxaguak ebalten dittugu. Martxa honetan, dozena t'erdí berbarekin esan biharreko danak esango dittugu, (dozena t'erdí gauza beste ez ete dogu izango buruan?).

Papelekua betiko eta gura daben danentzako geraketan da. Txantxiuok berba egiten dogun modura eskribiu ezkeru, uste dogu Oñatiarrentzako bakarrik geratuko ziral gure "iskribuok".

Euskal Herrixan makiña bat euskalki (euskal dialekto) dakogu. Bakoitzak berian txukun eta garbi berba egiñaz gain, eskribiuko baleu, hobeto entendiuko giñake danok. Eta

honek eztau esan gura eskolarako, administraziñorako, papel ofizial eta abarrerentzako, ezta kogula euskera batu baten biharrik.

Euskera batu hau ulergarrixa eta samurragua egingo xaku danoiri, geure euskalkixak zainttu eta lantzen badittugu,

Eztaigun orduan hain arrarotzat hartu **ettuken** lekuan **EZTITTUK** eskribittia, edo **ttunenian** **DITTUGUN**; gauza bera komentarixo honetan irakurri dittuzun beste berba batzukin: **EGITTIA**, "ittia" ahoskaketan dogu; **DOTZUEGU**, "dotzueu" esaten dogun modura; **DITTUELA** ➔ "ttuela"; **EZTIRANAK** ➔ "eztianak"; **HAREIK** ➔ "haik"; **ZIRAN** ➔ "zian"; **DITTUGUNAK** ➔ "ttunak"; **DAKOGU** ➔ "dakou" edo "daku"; **DOGU** ➔ "dou" edo "du"; **GUTXIAGO** ➔ "gutxiao"; **MOTXAGUA** ➔ "motxaua"; **BERBAREKIN** ➔ "berbakin"; **EZTAKOGULA** ➔ "eztakoula"; **SAMURRAGUA** ➔ "samurraua".

Arau (norma) batzuren biharra ulertuko dozelakuan gagoz; txukuntasuna, ulergarritasuna eta iraunkortasuna gordereteko.

Oñatieraz eskribiteteo gramatika eta arautegi ofizialik eztago orainddiok. Talde Oñatiar bat, aurtan hastekotan da lan honetan Udalak emundako beka batekin. Gure berbetiaren corpus-a jaso gura da,

aditz, deklinabide eta abar; eta adibide pilla batekin, liburu bat etara.

Dana dala, **TTIRRI TTARRA** taldekuok sarri batzen gara alkarri lagunketako, dudak argiketako eta lan honeiri azkenengo orraztuak emuteko.

**H, S, Z, Ts, Tz** eta halakuak noiz eta zela ebalteko, berriz, Euskaltzaindixak euskera batuarentzako jarrittako arautegixari jarraitetan xaugu.

Bueno, apur bat gaixa aldatuaz, bada beste Txantxiu bat, maixua berau, zera esan doskuna: **KONTZEJUPETIK**eko **TTIRRI TTARRA** eskolako umiei erakusteko ebalten dabela, baiña, gutxitxo pentsaiten xakola. "Hillero orritxo bat bakarrik!", esaten dosku.

Eta zuk?, **TTIRRI TTARRA**-zale edo irakurle zarien horrek, zer pentsaiten dozu?. Zer dago faltan edo sobran gure "orritxo bakar" honetan?; zer kendu edo sartuko zeuke?.

Gu gertu gagoz, eta desiaitten, zure ideiak eta kritikak jakiteteo. Zerbait esatia gura badoskozu, Errekaldeko Euskaltegira jo besterik ezta kotzu; ezin bazara etorri, hemen telefonua: 78.24.96.

Danon artian lehenago landuko dogu gure "xixau" berezi hau.

# Baietz !





**ASMAU**

Aurrekuari erantzuna:

Baserrittako afari jakiña gaztaña erriak eta salda irakiña

Asmau esaera honen bigarren atala:

Santa Lutzia eguna  
.....

Orainguan, Oñatin zakartu samartuta dakogun hitanuari (hika tratamentuari) ekingo xaugu Sarritten holako aldrebeskeriak entzuten dittugu:

-Mutillak neskiari: zer egingo xuau-gu(1) arratsaldian?, edo, fango gaittuk(2) zinera?.

-Gazte batek agura bateri: zer moduz bizi haiz(3)?, edo, ikusi dok(4) gaurko pelota partidua?.

-Ezezagunen artian, lehenengo aldiz alkar ikusten daueñian: gaur arte ez hindduan(5) ezaguketan, baiña bañakuan hirekin(6) berba egitteko gogua.

Eta hemen, Oñatiko euskera txukunian:

(1)gingo xonaugu. (2)fango gaittun. (3)bizi zara. (4)ikusi dozu. (5)ez zinduten. (6)baneukan zurekin.

Euren artian konfiantza asko dakoin pertsonen artian ebaltzen da hitanuari. Oso itxura txarrekoa da edadez zahar-rak diranairi, edo norberak baño urte askoz gehiago dakonari, aitta-amairi, ezezagunairi edo errespetu berezixa merezi dauein pertsonairi hika berba egittia. Beste gauza

bat ahaztu bihar eztoguna: neskia izan edo mutilla izan hika berbetan dabil-lena, mutillairi era batera egingo doste (xuata, gaittuk, dok, xostai, etb), baiña neskairi beste batera (xonat, gaittun, don, xostanai, etb).

Gero, izango dira gurasuak euren seme-alabairi hika berba egitten dos-teñiak; baita zuka be. Etxe batzutan anae-arreba artian zuka egitten daue berba; baiña badira hika dihardueñiak be. Beste senide edota lagun batzuren

**Pintxo bereziak • Kafeak**  
**IZARRAITZ**  
**taberna**

**Giro ezin hobea**

Tfnoak: 78 22 47 • 71 61 39 (Etxekoa) OÑATI

*Maibi*  
*Etxeko Ehungintza*

Mendiko Kalea, 2 OÑATI Tfnoa: 78 14 80

artian be antzerakua pasau leike; ohitura kontuak izaten dira honeik. Edozein modutan, aitta-amairi hika, iñun be ez. Sarrittan, gaztiak euren artian hika berba egitteko ohitturia dakoi; edade berekua izatiak sortzen dauen konfiantzia inddartu eta sendoketako, eta batzuetan, pertsona helduengandik bereizketako gazte arteko berbaittia balitz modura erabilliz.

Adibide bat. Egin daigun kontu, osaba eta prima-primuak dakogula Ameriketean. Hareik bisittaittera fateko gara laister eta karta bat bialduko dosteu horixe abixauaz.

Karta bera osaba Juliani, Arantxa eta Iñaki prima-primuairi eskribiuko dosteu.

KONTZEJUPETIKeko ale honetan hasitta, beste hiru-lau aletan atarako dogu karta hau.

Oñatin, 1966ko Abenduaren 2xan

Ezpeleta famelixia  
Buenos Aires

Agur, osaba:


Nahiz eta zuri eskribitteko asmua aspalditxuan izan, batian errazue bategatik eta hurrenguan bestiagatik gerorako izten neben beti. Baiña gaur aginddutakua betetara nator. Etxekuen barri jakin gura zebela esaten ostazun zure azkenenguan; ahal doten neurrixan erantzutera noiatzu. Izan be, batzuekin sarri-sarri egoten naiz eta beste batzuk noizian behin bakarrik ikusten dittut.

Kaixo, Iñaki:

Nahiz eta hiri eskribitteko asmua aspalditxuan izan, batian errazue bategatik eta hurrenguan bestiagatik gerorako izten ñuan beti. Baiña gaur aginddutakua betetara ñatok. Etxekuen barri jakin gura hiala esaten ostan hire azkenenguan; ahal doten neurrixan erantzutera noiak. Izan be, batzuekin sarri-sarri egoten nauk eta beste batzuk noizian behin bakarrik ikusten ditxuat.

Bihotzeko Arantxa:

Nahiz eta hiri eskribitteko asmua aspalditxuan izan, batian errazue bategatik eta hurrenguan bestiagatik gerorako izten ñonan beti. Baiña gaur aginddutakua betetara ñaton. Etxekuen barri jakin gura hianala esaten ostanan hire azkenenguan, ahal doten neurrixan erantzutera noian. Izan be, batzuekin sarri-sarri egoten naun eta beste batzuk noizean behin bakarrik ikusten ditxonat.



**BITTOR**

**ALTZARIAK**  
PROIEKTU BIDEZ

ETXERAKO ALTZARI GUZTIAK

**FAGOR**   
Sukalde eta elektragailuak

San Lorenzo, 1 eta 41. OÑATI

Tfnoak: 78 16 08 eta 78 34 21. Faxes: 78 34 21




**SANTA CRUZ, S.A.**

Goribar, 5  
Tfnoa.: 78 10 06  
Faxes: 7 8 33 36  
20 560 OÑATI  
Gipuzkoa

- Burdinlanak
- Galdara
- Errementeria
- Ate metalikoak
- Egitura metalikoak





### ZAINTTU:

Hona hemen gure gorputzian urteten dauein marka edo arrasto batzuen izenak:

#### GARI, GARIXA:

(Verruga)

- a) Eskuetan **garixak urten** dostai (Oñatieraz).
- b) Eskuetan **gariak irten** zaizkit (batuan).

#### BABA, BABIA:

(Ampolla)

- a) Atxurrian aspaldixan egin barik eta **babia atara** dot.
- b) Atxurrean aspaldian egin gabe eta **baba atara** dut.

#### BALTZUNA, BALTZUNIA:

(moratón)

- a) Futbolian ibilli haizela ezagun dok, hanka guztiak **baltzunez beteta** ekarri dittuk.
- b) Futboleant ibili haizela ezagun duk, hanka guztiak **beltzunez beteta** dituk.

#### AREKAITZ, AREKAITZA:

(cicatriz)

- a) Okotz inguruan **arekaitz ederra geratuko** xak/n!.
- b) Kokots inguruan **orbain/ebakiondo ederra geldituko** zaik/n!.

#### OREIXEN, OREIXENA:

(lunar, mancha)

- a) Gorputz darian **izaten dira oreixenak**.
- b) Gorputz danean **izaten dira oreztak/orinak**.

#### OSPEL, OSPELA:

(sabañón)

- a) Ikaragarritzko **ospelak urten** dostai/Egunduko **ospelak dakot**.
- b) Ikaragarritzko **ospelak irten** zaizkit/Egunduko **ospelak dauzkat**.

### ZUZENDU:

Edozein dendatan edota ofiziantan gagozela, bertako dendarixak edo ofiziniastak, bezeruak zeozer gehixago gura dauen jakittekoko, hola preguntau biharko leuke:

**BESTERIK?** (Eta ez, ezer gehixago?)

Esate baterako:

a) Ipiñi egidazu hiru kilo naranja eta dozena bat porru.

b) **Besterik?**

a) Ez, oraingoz nahikua dakot.

Edota:

a) Kontu korrante honetan kargau faktura hau, mesedez; eta aparte beste 10.000 pzta. emuidazu eskura.

b) **Besterik?**

a) Ez, horixe zan dana.

### ASMAU:

Aurreko preguntiari erantzuna:

Santa Lutzia eguna, argittu orduko illuna

Ia asmaitten dozun esaera honen bigarren atala:

San Bizente hotza .....

## M. AGVIRREVRRETA OKINDEGIA

Berezano auzoa, 21  
Tfnoak: 78 23 45 / 78 22 54  
OÑATI

## Guztiz Eder

Arantzazu Txintxurreta  
Estetika eta masajea  
GER-nètic  
tratamenduak

Etxaluze Etxea.  
Kale Barria, 54-3. C  
Tfnoa: 78 01 46

# DOSTAT-DONAT / HAUT-HAUNAT

Gaztion artian sarritan eztittugu adizki honeik oso ondo ebalten.

**Dostat** eta **Donatek** betik dakoi zerikusixa *zerbaittekin*. **Haut** eta **Haunatek** berriz, *norbaittekin* dakoi zerikusixa.

Adibidiak:

-Arantzazurako bidian ikusi **haut** gaur goizian. Nik **hi** (*norbait*) ikusi.

-Gura badon, neuk eruango **haunat** etxera. Nik **hi** (*norbait*) eruan.

Eta ez ikusi **dostat** (*zerbait* ikusi?), edo eruango **donat** (*zerbait* eruan?).

-Ondoezik ala? Eztostat bape itxura onik ikusten. Nik **hiri** itxuria (*zerbait*) ikusi; edo baitta: ez **haut** itxura onarekin ikusten. Nik **hi** (*norbait*) ikusi.

-Jare egidan poltsiori, neuk eruango **donat** eta. Nik **hiri** poltsia (*zerbait*) eruan.

-Bixar ekarriko **dostat** heuk eskatutako liburua. Nik **hiri** liburua (*zerbait*) ekarri.

**Zuka** gabitzenian gauza bera pasaitten da; **Dostat-Donaten** ordez **Dotzut**, eta **Haut-Haunaten** lekuan **Zaut** agerketan dirala.

## Ameriketara gutuna (II)

Ezpeletar famelixia  
Buenos Aires

Agur, osaba:

Zaharrenetatik hasiko **naiz**. Amandria sekula baiño hobeto **dabil**: ondo jaten **dau**, lo be hainbestian; hankak **dako** motel samar, baiña egunero faten **da** oiñez Joxeparen etxeraino, eta **badakizu** guretik hara tiradtxua daguela. Aittajauna, ostera, **eztot** uste oso ondo dabillenenik: itxura batian, **eztako** aparteko gaitzik, baiña, alegere agerketan saiatu arren, triste eta kezkatu egoten **da** gehixenetan. **Eztakitt** zer ikusi bihar dogun berarekin.....

### Bihotzeko Arantxa

Zaharrenetatik hasiko naun. Amandria sekula baiño hobeto xabin: ondo jaten **xon**, lo be hainbestian; hankak **xakon** motel samar, baiña egunero faten **don** oiñez Joxeparen etxeraino, eta badakin guretik hara tiradtxua daguela. Aittajauna, ostera, etxonat uste oso ondo dabillenenik. **itxura** batian, etxakon aparteko gaitzik, baiña, alegere agerketan saiatu arren, triste eta kezkatu egoten **don** gehixenetan. Etxakiñat zer ikusi bihar dogun berarekin.....

### Kaixo, Iñaki:

Zaharrenetatik hasiko nauk. Amandria sekula baiño hobeto xabik: ondo jaten **xok**, lo be hainbestian; hankak **xakok** motel samar, baiña egunero faten **dok** oiñez Joxeparen etxeraino, eta badakik guretik hara tiradtxua daguela. Aittajauna, ostera, etxuat uste oso ondo dabillenenik: itxura batian, etxakok aparteko gaitzik, baiña, alegere agerketan saiatu arren, triste eta kezkatu egoten **dok** gehixenetan. Etxakixat zer ikusi bihar dogun berareki.....

**ZUBI LAST S.L.**

**VEKA** LEIHO ISOLAGARRIAK

- PVC alemaniar sistema
- Aluminio Termikoa

Zubillaga industrialdea  
Tfnoa: 71 61 89 OÑATI




**HIZKUNTZ ARAZOAK**  
**HIZKETA ARAZOAK**  
**AHOTS ARAZOAK**  
**IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK**

Zurgin kantoi, 3-1. esk.  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

# T T I R R i - T T A R R A

9



Zer, KORRIKARako gertaketan?

Bihako!  
Bestela pott  
egingos  
xonagu-eta!

## ZUZENDU

Aditzaren esparruan indikatibo eran lehenaldixa egitterakuan maki-  
ña bat akats egitten dira, oraiñaldiko formatik abixauaz, lehenaldikue-  
tara pasaitten garielako analogiaz -en akabera gehittuaz; esate baterako:

-Ni atzo Bitorixara *fan naizen*. "FAN NINTZAN" esan beharrian.

-Nik zuri hereñiegun enkargu bat *emun dotzuten*. "EMUN NO-  
TZUN" esan beharrian.

-Lehengo egunian nik amari gizur bat *esan xaten*. "ESAN NOTZAN"  
esan beharrian.-

-Fan zan astian Pedrori zer *preguntau xatzun?* "PREGUNTAU ZO-  
TZAN" esan beharrian.

-Fan zan hillian zuek lagunari erregalu bat *ekarri xatzuen*. "EKARRI  
ZOTZAIN" esan beharrian.

### GAUR

- Fan naiz (naiz)
- Emun dotzut (dizut)
- Esan xat (diot)
- Preguntau xatzu (diozu)
- Ekarri xatzue (diozue)

### ATZO

- Fan nintzan (nintzen)
- Emun notzun (nizun)
- Esan notzan (nion)
- Preguntau zotzan (zenion)
- Ekarri zotzain (zenioten)


## ASMAU

Hona hemen aurreko alekuari  
erantzuna:

"San Bizente hotza,  
neguaren bihotza".

Ia asmaitten dozuen zer dan  
ATAJU demontre hau:

- Hortan bahago, ATAJU hago!.
- Atzetik fango naizela pentsai-  
tten badozue, ATAJU zagozai!.
- Ha fango xakon begira baldin  
baxagok, ATAJU xagok!.



PEUGEOT-TALBOT  
ONATI K. Elk.  
GARAJEA

Goribar auzoa, z/g. Tfnoa: 78 13 50  
ONATI

ARANBURU  
pinturak eta drogeria



Kale Barria, 47  
Tel. 78 19 99

# AMERIKETARA GUTUNA (III)

Ezpeletar famelixia  
Buenos aires

Agur, osaba:

Ama, betiko moduan: batetik bestera, lan eta lan, ezertarako asti barik. Oporraldi bat hartzeko esaten **xat** nik, baiña alperrik; zeregin bat akabo orduko, barrixak asmaitten **dittu**. Honezkero, **eztau** hori iñork aldatuko! Eskerrak aittak patxada gehitxuago dakonari. Astian behin-edo, erdi bihartuta pasiora ataraten **dau** eta, hartara, etxeko lanaz pittin bat ahazketan **da**, baina ez larregi.....

Bihotzeko Arantxa:

Ama, betiko moduan. batetik bestera, lan eta lan, ezertarako asti barik. Oporraldi bat hartzeko esaten txanat nik, baiña alperrik. zeregin bat akabo orduko, barrixak asmaitten ditxun. Honezkero, etxon hori iñork aldatuko! Eskerrak aittak patxada gehitxuago dakonari. Astian behin-edo, erdi-bihartuta pasiora ataraten xon eta, hartara, etxeko lanaz pittin bat ahazketan don, baiña ez larregi.....

Kaixo, Iñaki:

Ama, betiko moduan: batetik bestera, lan eta lan, ezertarako asti barik. Oporraldi bat hartzeko esaten txat nik, baiña alperrik; zeregin bat akabo orduko, barrixak asmaitten ditxuk. Honezkero, etxok hori iñork aldatuko! Eskerrak aittak patxada gehitxuago dakonari. Astian behin-edo, erdi-bihartuta pasiora ataraten xok eta, hartara, etxeko lanaz pittin bat ahazketan dok, baiña ez larregi.....

xat → txanat  
xat → txat

dau → xon  
dau → xok

dittu → ditxun  
dittu → ditxuk

da → don  
da → dok

eztau → etxon  
eztau → etxok


## PEÑAKOBA

**AUTOESKOLA**

Arkitekto Lizaur

Tfnoa: 78 05 60 OÑATI

Zarugalde, 46 Tfnoa: 78 29 93




## Barrenetssea

**Botikategia**

Analisiak. Homeopatia. Ortopedia...

Kale Zaharra, 1. Tfnoa: 78 01 22





## ASMAU

ATAJU EGON bi zentzutan ebalten da gure artian:

⇒ bata, LEKUTANEGON esanguriaz (egitiki edo benetako arrazoitiki oso be urrin).

⇒ eta bestia erderazko "lo llevas claro" esanguriaren parekua. Ikusi dagigun: "Hiregana fango naizela uste badok, ATAJU HAGO" = "Hiregana fango naizela uste badok, zain egon heinke, zahartuko haiz!"

"Lora batzuegatik 5.000 pzta pagauko dogula pentsaiten badozue, ATAJU ZAGOZAI, etxakuagu aurreragoko lanik!"

Ale honetako galderia:  
Zer da "pertsona pinttua" izatia?

## ZUZENDU

Oraingo honetan be aditzari ekingo xaugu eta sarritan egitten dan akats bat ikusiko dogu, hau da, NOR-NORI-NORKera aldaketia; esate baterako:


⇒ Eurokin batera afaittera **konbidau doskue**. KONBIDAU GAUE esan biharrian.

⇒ Ginekologuaren txandia eskatu eta handik sei hillabetera **hartzen dotzu**. HARTZEN ZAU esan biharrian.

⇒ Banoia, bestela **endredau egingo dostat** eta. ENDREDAU EGINGO HAUT esan biharrian.

⇒ Nekane hemetik Bergararaiño **eruan oskun**. ERUAN GINDDUEN esan biharrian.

⇒ Heure lekuan **ifiñiko dostagu**, geuk bazkaldu bittartian. IFIÑIKO HAUGU esan biharrian.



PEUGEOT-TALBOT  
OÑATI K. Elk.  
GARAJEA

Goribar auzoa, z/g. Tfnoa: 78 13 50  
OÑATI



**MIZKE**  
Gozotegia

- Gozoki eta fruitu eiharrak.
- Ezkontza, bataio eta lehenengo jaunartzerako enkar-guak hartzen dira.

Kale Zaharra, 3  
Tfnoa: 78 28 14

Beste adibide batzuk:

#### NOR-NORK

Konbidau gaue (*gaituzte*) afaittera.  
Ginekologuak hartu edo errezipidu zau (*zaitu*).  
Endredau egingo haut (*haut*).  
Nekane eruan gindduen (*gintuen*) etxeraiño.  
Heu ifiñiko haugu (*haugu*) zuzendari.

#### NOR-NORI-NORK

Liburua ekarri doskue (*digute*).  
Ginekologuak pultsua hartu dotzu (*dizu*).  
Papelak endredau egin dostak (*dizkidak*).  
Lapurrak eruan oskun (*zigun*) poltsia.  
Plater garbixa ifiñiko dostagu (*diagu*).

## AMERIKETARA GUTUNA (IV)

Ezpeleta famelixia  
Buenos Aires

Agur osaba:

Nere anae-arrebak hortik zihar **dabitz**, ikasketak burutu guran. Idoiak Bilbon **dihardu** eta mediku karrera egiteko urtebete falta **dau**. Patxik, barriz, hiru urteko diplomaturia aukeratu **dau**, estudixo luziak **etxako** gustaitten-eta. Honek aurten akaboko dauela pentsaitten **dot**. Dana dala, lan-kontua oso gaizki **dago**. Geruago eta nekezagua **da** fijo antzeko enplioeren bat eskuraketia ...

Bihotzeko Arantxa:

Nere anae-arrebak hortik zihar xabitzan, ikasketak burutu guran. Idoiak Bilbon xihardun eta mediku karrera egiteko urtebete falta **xon**. Patxik, barriz, hiru urteko diplomaturia aukeratu **xon**, estudixo luziak **etxakon** gustaitten-eta. Honek aurten akaboko dauela pentsaitten **xonat**. Dana dala, lan-kontua oso gaizki **xagon**. Geruago eta nekezagua **don** fijo antzeko enplioeren bat eskuraketia ...

Kaixo, Iñaki:

Nere anae-arrebak hortik zihar xabitzak, ikasketak burutu guran. Idoiak Bilbon xiharduk eta mediku karrera egiteko urtebete falta **xok**. Patxik, barriz, hiru urteko diplomaturia aukeratu **xok**, estudixo luziak **etxakok** gustaitten-eta. Honek aurten akaboko dauela pentsaitten **xuat**. Dana dala, lan-kontua oso gaizki **xagok**. Geruago eta nekezagua **dok** fijo antzeko enplioeren bat eskuraketia ...



# LASAGABASTER

Zure konfidantzako denda

Zerkaosteta, 1 eta 2. ARRASATE Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55



## ZUZENDU

Aditzarekin jarraituaz, gaurko honetan askotan ebalten diran forma batzuk aztertuko ditugu:

### GAUR

Egin DOGU (dugu)  
Egin XUAGU (diagu)  
Egin XONAGU (dinagu)

Afarixa DAKOGU (daukagu)  
Afarixa XAKUAGU (zaukaagu)

Afarixa XAKONAGU (zaukanagu)

### ATZO

Egin GEBEN (genuen)  
Egin GIÑUAN (genian), eta ez **xuun**.  
Egin GIÑONAN (geninan)

Afarixa GEUKAN (geneukan)  
Afarixa GIÑAUKAN (geneukaan),  
eta ez **xakuun**.

Afarixa GIÑAUKANAN (geneukanan)

UKAN

EDUKI

Adibidez:

Gaur afari ederra egin DOGU, eta atzo egin GEBENA etzan txarragua izan.

Gaur merienda bikaina egin XUAGU / XONAGU eta lehengo egunian be hamaretako aparta egin GIÑUAN / GIÑONAN.

**Kontuz**, "Atzo egunduko afarixa egin **xuun**" moduko erabillera aldrebes samarrakin.

Etxian telebisiñua eta bideua DAKOGU; igaz, berriz, telebisiñua bakarrik GEUKAN.

Orain etxian BAXAKUAGU / BAXAKONAGU kalefaziñua; igaz EZKIÑAUKAN / EZKIÑAUKANAN artian.

## ASMAU

Hona hemen aurreko alian egiten geben galderiaren erantzuna:

⇨ "Pertsona pintua" alde danetara egiten dauena da, hau da, goiz partian iritzi batekua dana eta arratsaldian, berriz, beste batekua.

Erderaz, "chaquetero" izenez be ezaguketan da.

⇨ Ia asmaitten dozuen esaera zahar honen bigarren zatixa:

"Goizeko oskorrixak,  
....."

Begoña

Mertzeria



Atzeko Kale, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI

Begoña

Edertasun Zentrua



• Solariuma • Tratamendu  
• Pedikurak fazialak eta  
• Depilazioak korporalak

Atzeko Kale, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI

# IRIZAR ESTANKYA

Paperdenda • Loto • Loteria • Kiniela

Foruen enparantza, 6 Tfnoa: 78 00 15 OÑATI

# AMERIKETARA GUTUNA (eta V)

Ezpeleta famelixia  
Buenos Aires

Agur osaba:

Neri Gabon osterarte atzeratu **dostai** aurtengo bakaziñuak. Argentinan udia dala aprobetxauaz, Perito Moreno-ko izotzak ikusi eta Patagonia ezaguketia gurako **neke**. Fatia erabagitten **badot**, **enaiz** zuri bisitatxua egin barik geratuko. Egon trankil, garaiz abixauko **dotzut**. Hainbeste urteren ondoren, ia alkarrekin egoteko eria dakogun!

Gorantziak etxeko guztien partetik, eta laister arte!

Bihotzeko Arantxa:

Neri Gabon osterarte atzeratu xostanai aurtengo bakaziñuak. Argentinan udia dala aprobetxauaz, Perito Moreno-ko izotzak ikusi eta Patagonia ezaguketia gurako ñuken. Fatia erabagitten baxonat, enaun hiri bisitatxua egin barik geratuko. Egon trankil, garaiz abixauko donat. Hainbeste urteren ondoren, ia alkarrekin egoteko eria dakogun!

Gorantziak etxeko guztien partetik eta laister arte!

Kaixo Iñaki:

Neri Gabon osterarte atzeratu xostai aurtengo bakaziñuak. Argentinan udia dala aprobetxauaz, Perito Moreno-ko izotzak ikusi eta Patagonia ezaguketia gurako ñukek. Fatia erabagitten baxuat, enauk hiri bisitatxua egin barik geratuko. Egon trankil, garaiz abixauko dostat. Hainbeste urteren ondoren, ia alkarrekin egoteko eria dakogun!

Gorantziak etxeko guztien partetik, eta laister arte!

dostai → xostanai  
          → xostai

neke → ñuken  
      → ñukek

badot → baxonat  
       → baxuat

enaiz → enaun  
       → enauk


dotzut → donat  
       → dostat



## OÑATI

### Hormigoiak, S.A.

Zubillaga auzoa, z/g (Olano) Tfnoa: 78 29 12  
OÑATI







## ZAINTTU:

Hona hemen gorputz-egoera desbardiñak izentaitteko erabiltzen ditugun berba edo esaera batzuk:

1) Eskua, besua, lepua... **TXINDDURRITU** edo **TXINDDURTU**:

*e.b.:* "Ohian etzindda nenguela, eskua txinddurrituta geratu xat".  
"Besua txinddurrituta dakot". "

2) Oillo-ipurdixa jarri / oillo-narrua egin / oillo-lumia egin. Gorputz dana oillokittu.

*e.b.:* Hotz honegaz, oillo-narrua egin xat.  
Hotz baltz honek oillokittuta itxi nau.  
Hotzak oillokittuta nago.  
Hori entzun eta oillokittu egin naiz.

3) Ulia tentetu, tente ipiñi, edo lastu.

*e.b.:* Ume harek emun nontan sustuaz ulia be tente ipiñi xaten!  
Han etxaguan barriketarik gero, danok bildurrez aidian, ulia tente!  
Hainbesteraño estutu ninduein, ulia tente jari xaten.  
Anaiaren ezbiarraren barri izan ebenian, buruko ulia lastu egin xakon.

## ASMAU:

Aurreko alian jarri geben esaera zaharraren akaberia hurrango hauxe dozue:

"Goizeko oskorrixak  
illunkarako iturrirak"

edota:

"Goiz-oskorrixak  
gau-eurixak"

Orainguan pregunta hau egiten dotzuegu:  
Zer da "aleitzira esatia"?  
Zer da "aleitzira ibiltia"?

*e.b.:* Zelai honetan zenbat ardi ibilliko dira?

Aleitzira nabil, baiña hirurehun bat bai!

## Juanitosa

Atzeko Kalea, 11  
Kale BArria, 24  
Tfnoa: 78 04 62 OÑATI

**SALTOKI**

## M. AGVIRREVRETA OKINDEGIA

Berezaio auzoa, 21  
Tfnoak: 78 23 45 / 78 22 54  
OÑATI



## ABERASTU:

*Gutxi gora behera edo inguruan edo urrin barik esateko, badakogu beste forma bat ahoz sarritan ebalten dana:*

### HONEN BATIAN HORREN BATIAN HAREN BATIAN

Nun-Noiz, Nungo, Nundik eta Nora kasuetan deklinaitzen dana:

Pello eta horreik **HORREN BATIAN** bizi dira, Araotz aldian.

Joxe eta andria **HORREN BATEKUAK** dira, Zañartu aldekuak.

Iñaxio eta Amaia **HORREN BATETIK** agertu dira, Azalditta aldetik.

Iñaki eta Garbiñe **HORREN BATERA** fanik dira, plaza aldera-edo.

Azpiko Joxek 70 urte **HORTXE HORREN BATEN** eukiko ditu.

Edota:

**HONEN BATIAN** zuan ba susalekua!

**HONEN BATIAN** dira ba, aldegin ezpadaue!

**HEMENTXE HONEN BATIAN** bizi zuan ba!

## ZAINTTU:

Oñatin danon ahotan dabillen aditz baten barri emun gura dogu orainguan: **JARE-JAREGIN**, bi esanguraz ebalten dogu:

Bata **ASKATU-LIBRE ITXI** zentzuaz eta orduan **ZEIÑI** eskaketan dau, eta bestia euskera batuko **UTZI** zentzuaz; esangura honekin bi eratara konjugau leike: **ZEIÑI** sartuta edo sartu barik, adibidez:

### ASKATU

- zentzuan,
- Txakurrari jaregin!
- Olluairi jaregin!
- Urari jaregin
- Komunari jaregin!
- Zeiñek jare xau astuari?

### UTZI

- zentzuan,
- Non jare dozu liburua?
- Zeiñi jare xatzu liburua?

- Zigarruari jareta dau.
- Bakian dauenari bakian jare!
- Soldau-lagunak jare nostan diruok!

### JAREIÑA, JAREIXA,

- aditza izen bihurtuta:
- Pertsona jareña edo jareixa, pertsona zabarra, narrasa, bere burua zainketan eztauena da.

## ASMAU:

Aurrekuan egindako preguntziaren erantzuna:

**Aleitzira esatia** edo **ibiltzia** ziurtasun edo zihaztasun barik berba egittia da:  
- Ez egin jaramonik, **aleitzira** nabill-eta.  
- Seguru dauela emuten xok, baiña **aleitzian** xabik hori.  
- **Aleitzira** botata, berrehunen bat ardi egongo dittuk hor.

Gaurko pregtuntia hauxe dozue:  
Zer da **BETI BE?**  
Zela ebalten da?

# Laket

## Lurrindegia eta apaindegia

Lazarraga, 3 OÑATI


# ARANBURU

pinturak eta drogeria



Kale Barria, 47

Tel. 78 19 99



## ZUZENDU:

Sarritan aditzaren ekintzia markaitterakuan, EGIN ifinttia ahazketan xaku eta ekintzia bera markatu gura danian, aditzari EGIN erantsi bihar xako. Ikus daigun:

- Hondatu da **HONDATU EGIN DA.**
- Jausiko zara **JAUSI EGINGO ZARA!**
- Hil da **HIL EGIN DA!**
- Apurtuko dozu **APURTU EGINGO DOZU!**
- Alokatzten da **ALOKATU EGITTEN DA.**

Aditza ez danian inportantiena, ez dago EGIN j... beharrik, esate baterako:

**GAZTAIA SALTZEN DA.**  
**OINETAKUAK KONPONKETAN DIRA.**  
**ARGAZKIXAK ERREBELAUTEN DIRA.**  
**LANAK MAKINAZ PASAITTEN DIRA.**  
**BISTIA GRADUAITTEN DA.**  
**ETXEKO LANAK EGITTEN DIRA.**

## ZAINTTU:

Hona hemen EGIN aditzaren bidez sorketan diran aditz-lokuziño batzuk gure artian atzeraketan doiazenak.

### ATXIMUR EGIN:

- Ez idazu *atximurrik* egin
- *Kokotian atximur egin nostan*
- Umien jokuan egitten dan preguntia:
- Zer gura dozu, *kosk ala pitt?*
- Kosk= esku koskorreko bat emutia.
- Pitt= Pitt egin= Atximur egin.

### ESTROPOZU EGIN:

- *Estropozu egin eta potzura jausi zan.*
- *Muturrez aurrera jausi nintzan estropozu egindda*

### JARAMON EGIN:

- *Horri jaramonik pez!*
- *Ez egixok/egixon jaramonik egin!*

## ASMAU:

Aurreko alekuari erantzuna :

### BETI BE:

Noizian behin, lantzian behin, noizbehinka zentzuan ebal-ten dogu gehixenetan, adb:

- *Beti be atzera begiratu bizi naizen- edo ikusteko ta, gustora faten da hau koxetxuan.*
  - *Beti be afari batzuk egin eta, hemen jiraitten gaittuk gu.*
  - *Parranda asko egitten dozue? Beti be, beti be*
- Asmau egizu esaera honen akaberia:

**"HASIAK EGINA DIRUDI**  
 .....

# PEÑAKOBA

## AUTOESKOLA

Arkitekto Lizaur

Tfnoa: 78 05 60 OÑATI

Zarugalde, 46 Tfnoa: 78 29 93



## CORTABARRIA INMOBILIARIA



Kale Barria, 42 behea  
 Tfnoa: 78 05 87  
 OÑATI

- Etxebizitzak alokatzeko eta salgai.
- Kontratuak
- Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzen tramitazioa.
- Zergen likidazioa.



BAIETZ! JOXE, BAIETZ!  
GAUR USOTAN GU  
BAKARRIK...  
JE! JE!



**E**hiza, gure natura-  
rekiko maitasuna  
eta ardura zuzperten  
duen kiroltasunez  
beteriko zaletasun  
honen zenbait adibide  
ikusi ahal izan dugu  
gure inguruko mendie-  
tan, aspaldi hone-  
tan...

### ZUZENDU:

Sarrittan entzuten dira XAT aditz formarekin egitten dogun hankasartziak, ze NOR-NORI paradigmako oraiñaldixa XAT da ( etorri xat, fan xat, agertu xat, pasau xat,e.a.), eta lehenaldixa XATEN ( etorri xaten, fan xaten, agertu xaten, pasau xaten, e.a. ). **Baiña, NOR-NORI-NORK** paradigmaman **EZTA BARDIN:** oraiñaldiko forma XAT bada be (emun xat, esan xat, preguntau xat, egin xat, e.a.), lehenaldikua ez da **xaten**, **NOTZAN** baiño (emun notzan, esan notzan, preguntau notzan, egin notzan, e.a.).Ikusi daigun:

### NOR-NORI-NORK

**Oraiñaldixa**

Ogixa emun xat umiari.  
Fateko esan xat.  
Maixuari **preguntau xat**.  
Ezustian kalte egin xat.

**Lehenaldixa**

Ogixa **EMUN NOTZAN** umiari.  
Fateko **ESAN NOTZAN**.  
Maixuari **PREGUNTAU NOTZAN**.  
Ezustian **KALTE EGIN NOTZAN**.

### NOR-NORI

**Oraiñaldixa**

Laguna etorri xat kontu kontari.  
Lan horreittarako gogua fan xat  
Koskorra agertu xat bekokixan  
Bakaziñotan ederra pasau xat:  
kotxiak harrapo!

**Lehenaldixa**

Laguna etorri xaten kontu kontari.  
Lan horreittarako gogua fan xaten  
Koskorra agertu xaten bekokixan.  
Bakaziñotan ederra pasau xaten:  
kotxiak harrapo!

### ABERASTU:

Berba komposuetan ZULO agerketan xaku askotan: batzuetan zaletasun edo joera esanguriarekin ( "amazulo" ); eta beste batzuetan bazter edo paraje itxixa danian ( "sukaldezulo" ). Esate baterako:

*Amazulo, aittazulo, amandrezulo, aittajunzulo, gonazulo, e.a*

- Hau dok hau ume **amazulua** !
- Aitziber oso **aittazulua** da.
- Hau zera baiño **gonazuluagua** da; ni barik ezta iñora fango.

*Etzezuluan, kalezuluan, sukaldezuluan, kumunzuluan, tabernazuluan, errekazuluan, e.a..*

- Usakora etorri naiz freskau alde, **kalezuluan** sargori egitten dau-eta.
- Fan hadi haizia hartzera, beti **sukaldezuluan** egon barik.
- Gure Patxi beti **tabernazuluan** sartuta.

Oñatiko toponimian ZULO berbia zenbait lekutan topau leike, baiña parajia izentaitteko asmuaz bakarrik, adb:

**Aitzulo, Urzulo, Sorginzulo, Buztinzulo, Gaiztazulo, e.a.**

### ASMAU:

Aurreko alian preguntautako esaeriaren bigarren zatixa hauxe dozue:


Zer esan gura dau **AHUA NEURRI** espresifnuak?

**HASIXAK EGIÑA DIRUDI EGIÑAK URRE GORRIXA.**

Adb: - Zenbat balixo dau alondara horrek?

Oraingo preguntia berriz hauxe da:

- 50.000 pzta.
- Horixe da ahua neurri!



### ZUZENDU:

Eguneroko berbetan askotan entzuten dira partitibo kasuan egindako akatsak, partitibuaren ordezkari nominatibo singularra ebalatzen dogulako. Oraingo honetan banaka batzuk ikusiko ditugu :

- a.- *Ezezko-esaldixak*
  - Horretarako eztago deretxua Horretarako eztago deretxo**RIK**
  - Eztau egitten hotza Eztau hotz**IK** egitten
  - Orain ezta kot gosia Orain ezta kot gose**RIK**
- b.- *Galdera-esaldixak.* Galderatan egitten dira okerrik larrixenak.
  - Badakok sua? Su**RIK** badakok?
  - Zapatuan egitten don lana? Zapatuan lan**IK** egitten don?
  - Saltzen ditzuzue arrautzak? Arrautza**RIK** saltzen dozu?
  - Ura gura dozu? UR**IK** gura dozu?
- c.- *Baldintzazko-esaldixak.*
  - Dendan txaketak badagoz, erosiko dituden Dendan txaketa**RIK** bada, erosiko dot.
  - Lagunak bihar izan ezker, dihar egin Lagun**IK** bihar izan ezker, dihar egin.
  - Pelotari horrek gata baleuko, partidua Pelotari horrek gatz**IK** baleuko, partidua irabazi egingo leuke.

Partitibua, (R)IK akaberia hartzen dauena, ondo zihaztu bariko kasuetan ebalatzen da, batez be. Aditza singularrian eskaketan dau.

### ASMAU:

Aurreko alian egindako preguntiaren erantzuna hauxe dozu:  
*Agua neurri eukittia* da agora datorrena botatia, agua zabalduaz bat urteten dauena esatia, izugarrizko agokadia botatia. Esate baterako:  
*Zenbat dok txikitua?*  
*Bostehun pezeta!*  
 Halakuetan esango geuke horrek *agua neurri dakola*.  
  
 Gaurko preguntia hau da:  
 Zer esan gura dau zerbaittekin *amentzerauta* egotia?

## BELAR Irrati-Telebista S.A.


Elektrizitate instalakuntzak  
 Atezain automatikoak  
 Elektrotresnen salmenta eta konponketa  
 TB-HIFI  
 Olakua kalea, 1-C. Tfnoa: 78 06 57

### HARITZA



- Paperdenda
- Liburudenda
- Lotoak
- Opariak

Kale Zaharra, 4  
 Tfnoa: 78 23 96



## ZUZENDU:

Aurreko alian partitibo kasuarekin ibilli giñan bueltaka, eta aittatu geben kasu horretan egitten diran zenbait akats. Danak esan barik gelditu zira-nez, gaurkuan jarraitu egingo dogu falta diran batzuk ikusteko. Emuten dittugun ejenpluak danak dira zuzenak.

### 1.- Partizipiuak sortzerakuan:

- Orainddiok bizi**RIK** dago ohitura hori!
- Hemen eztago iñor, danak urte**NIK** dira.
- Fa**NIK** da, dakona aldi**an** eta dakixena mingaiñian.
- Hik ez heukan zer etorri**RIK** hona.

### 2.- Aditz izenak egitterakuan:

- Emun doguna baiño gehixago eztakogu emute**RIK**.
- Haren gaiñian etxakonan gaizki esate**RIK**.
- Entzute**RIK** gura ezpadozu, itxi belarrixak.
- Erlaiño honekin etxagok ezer ikuste**RIK**.

### 3.- EN konparaziño-atzizkixarekin:

- Inguru honetako leku**RIK** onena hauxe da.
- Lan horretarako bera da pertsona**RIK** egogixena.
- Zeu zara neska**RIK** polittina.
- Etxeko gela**RIK** argitsuena gagoz.

## ASMAU:

Aurreko preguntziaren erantzuna hemen dakotzue: **Amentzerauta** egotia da zeozterekin itsutu samartuta egotia; zerbait burutik kendu ezindda egotia; zeozterarako zaletasun haundi-xa eukittia-edo:

*"Hori be diruarekin amentzerauta xagok, etxok beste ezertan pentsaitten!"*

*"Liburu artian emuten dau eguna. Liburuokin amentzerauta dago".*

Hona hemen gaurkua: zer da **apartu**, **aparketia**? Ogixa **aparketia** zer da? Esnia **aparketan** hasi da. Liburu hau **apartuta** dago.

## Umerez

**Iturgintza • Berogailuak •  
Bainu altzariak**

Arantzazuko Ama kalea, 21 behea • OÑATI • Tfnoa: 71 62 00



## AMETS TAILERRAK

**HERGO** karabanen banatzailea

Karabanak. Autokarabanak

Mota guztietako erremolkeak

Urte osoan karabanak aterpean gordetzen ditugu

**SALMENTA ETA ALOKAIURUA**

Berezao auzoa. OÑATI. Tfnoak: 78 25 92 / 78 19 50



## ZUZENDU:

Orainguan zihar-galderako esaldietan askotan egitten dan akatsa aztertuko dogu. Hau, erderiaren eragieñez sartu da eta sarri samar entzuten dala esango geuke.

Ikusi daigun:

- Aber topaitten BAdot.
- Eztakigu nun dago.
- Eztakitt etorriko BAda.
- Eztaki fango BAda ala ez.

Zihar-galderatan, BA hori dakoiñairi kendu eta -N erantsi bihar xate akaberan danairi. Honetara:

- Ia topaitten doteN.
- Eztakigu nun dagueN.
- Eztakitt etorriko daN.
- Eztaki fango daN ala ez.
- Eztakitt astixa hartuko doteN, baiña hartzen badot fango naiz lagunketara.
- Preguntau amari gurekin etorriko daN.

## ABERASTU:

Agozko euskeran sarrittan ebalten dogun atzizki bat aittatuko dogu hurrengo: **-ONTZI** atzizkixa. Berau atzizki haundigarri bat da eta beraren biguz desprezio antza erakusten dogu. Erdi bromatan be ebalten dira. Esate baterako: **Takarrontzi**; **Kirtenontzi**; **Petralontzi**; **Maiñontzi**, e. a.

*Takarrontzi halakuori, alde egik hemendik!*

*Gure Joxe goldia baiño kirtenontzi-xagua dok.*

*Eztakitzu ondo zelako petralontzixa dan hori!*

*Maiñontzi hutsa egindda hago ba hi, kakatzuori!*

Beste berba askorekin be ebalten da. Adibidez:

- Tripontzi** (comilón); **Kakontzi** (cagón); **Txixontzi** (meón); **Hitzontzi** (charlatán); **Negarrontzi** (llorón); **Putzontzi** (orgulloso); **Gizurrontzi** (falso).

## ASMAU:

Aurreko aleko pre-guntiaeren erantzuna:

Ogixa **aparketia** ogixa apurretan desegittia da, xeheketa.


Bardin liburua **aparketia**, liburuko orri guztiak harrotu, eskatu eta hondaketa litzake.

Esnia **aparketia** berriz, esnia alperrik galtzeia da. Bolatxo moduko batzuk (aparrak) egitten xako.

Gaurko galderia ondorengo hau da: Zer dira **atso-agurak**? Zeintzuiri esaten xate **atso-agurak**?

**HIRYKAR**  
LIBURUDENDA  
GABARRIAK

San Lorentzo, 11  
OÑATI  
Tfnoa. 78 08 21



**KONTRATAK**  
**IRYROK S.L.**  
**ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis.  
Tfnoa: 77 09 92  
ARRASATE

San Lorentzo, 39  
Tfnoa: 78 21 82  
OÑATI



## ZUZENDU:

Gaurkuan barri samarra dan akats bat aztertuko dogu: erderazko "si" berbia sartzea euskeraz gabitzenian. Partikula honek harridurazko esanguria eukitzen dau gehixenetan. Akats honek euskerazko esaldixen egiturari erasan egiten xauenez, larrixagua dala esango geuke. Ikusi daigun:

- ✓ Si egitten dot hori nik! Zergatik egitten dostazu demanda?
- ✓ Si eztakozu ezer! Eztakitt zergatik zagozen negarrez.
- ✓ Hori zertarako? Si gero burla egin bihar dostai.
- ✓ Harek esango dau ze titulu atera gura doten, si enaiz eskoletara faten.

Esaldi honeik moduketako, beste era honeik ebali izan dira orain arte:

- ✓ Hori egitten dot nik BAIÑA! Zergatik egitten dostazu demanda?
- ✓ Eztakozu ezer BAIÑA! Eztakitt zergatik zagozen negarrez.
- ✓ Eztakozu ezer ETA, eztakitt zergatik zagozen negarrez.
- ✓ Ezer ezPADakozu, eztakitt zergatik egitten dozun negar.
- ✓ Hori zertarako? Gero burla egin bihar dostai ETA.
- ✓ Hori zertarako? Gero burla egin bihar dostai BAIÑA!
- ✓ Hori zertarako? Gero burla egin bihar BAdostai.
- ✓ Harek esango dau ze titulu atera gura doten, ezPAnaiz eskoletara faten.
- ✓ Harek esango dau ze titulu atera gura doten, enaiz eskoletara faten ETA.
- ✓ Ze titulu atara gura dozu? Etzara eskoletara faten BAIÑA!
- ✓ Titulua atara gura dozula? Etzara eskoletara faten BAIÑA!

## ASMAU

Aurreko aleko preguntiaren erantzuna:  
**Atso-agurak** gehixenetan emakume-gizakume zaharrai esaten xate. **Atsua** andra zaharra, **aguria** gizon zaharra. Baiña askotan esangura despektibo samarra dakoi berba honeik, eta kontuz ebali bihar dira. Hona adibide batzuk:

- ✓ "Atso zaharrok beti marmazitan jarduten daue"
- ✓ "Gure aguriak eztau ezertarako balixo"
- ✓ "Atsuak begittan hartu naixok eta aguriak etxostak dirurik emuten"

Baiña batzuetan esanguria ezta hain ziztriña izaten:

- ✓ "Agura dotoria zan zuen aittajuna"
- ✓ "Atsoxo baten moduan egitten dau berba ume honek"

Gaurko galderia hau da:

Zer da **alanbradan ibilttia**?  
 Esate baterako: Kontu horretan **alanbradan** ñabik mutil, **alanbradan**!

## ABERASTU:


Edurra egindda gero, urketan hasten danian, edurra kenduaz edo garbituaz doiala esan ohi dogu. Baiña hori adierazteko badago beste modu polit bat, oraindiok gure artian ebalten dana:

**LURMENDU** aditza. Ikusi daigun bere ebaleria:

- ✓ Lurmendu dau? Bai, baxoiak/n lurmenduaz; edota, lurmen-una batzuk agertu diituk/n.

- ✓ Lurmena agertu da (Hau da, edurra una batzutan urtu dau)
- ✓ Badihardu lurmenduaz.
- ✓ Eztau behinguan lurmenketan.
- ✓ Haize honek etxok/n behinguan lurmenduko.
- ✓ Ardixak lurmenunatan dabitz.
- ✓ Edurra zan eta iñun lurmenik ez.
- ✓ Etixe ostetxuan besterik ez eguen lurmen.
- ✓ Lurmen-unak agerketan hasi dira.





## ASMAU:

Aurreko aleko preguntziaren erantzuna.

**Alanbradan ibilttia** juxtu-juxtuan ibilttia da, jausiko-ez jausiko, hor, ixian.

Adb: **Osasuna alanbradan xakuat.**

*Neska horrekin alanbradan ñabik.*

*Aurtengo eskolia alanbradan ikusten xuat.*

Gaurko galderia hau da:

Zer da **hanka gorrixak** agerketia?

Adb: **Hanka gorrixak agerketan badira, espabilau biharko dozue!**

## ZUZENDU: Ume-berbeeria

Sarrittan umiari egitten xaten berbeta-moduan fijauaz, gure artian erderiak noraiñoiko azpijan-lana egitten diharduen ikusiko dogu gaurkuan; hemen bada adibide batzuk:

- Egingo dogu lolitos?
- Egingo dogu siestita?
- Jango dozu Yogur?
- Gura dozu membrillo?
- Umiari emun gotzan chocolate, biberón eta chupete, eta ez eben lorik hartzen.
- (Jaten emuterazkuan)...; **Qué rico!**

Erderazko forma honein ordez, begira daigun euskeraz zein forma ditudun:

- **Lo-lo** egingo dogu? Egingo dogu lo? *Fango gara uhera?*  
*Lotara fango gara?*
- Egingo dogu siestatxua? *Siestara fango gara?*
- Jango dozu jogurra?
- Gura dozu membrillua?
- Umiari emun gotzan txokolatia, biberioia, txupetia, eta hala be ez eben lorik hartzen.
- (Jaten emuterazkuan)... **Ze goxua! Hau goxua! Ze ederra!**  
**Goxo-goxua dago!**

## ABERASTU: -GAI atzizkixa.

Euskera baturako -GAI akaberia hartu bada be, Oñatin atzizki honen hiru era honeik ebaltzen dira gutxienez:

-GAI, -GEI, -GEL. Bi esangura ditte:

- a) Gerora zerbait izango dana.
- b) Zerbait edo zerbaitetarako materiala.

### A ESANGURIAZ

Gizongea=novio

Andrageia=novia

Ezkongaixak=novios/solteros

Koñatugaixa=futuro cuñado

Koñatagaixa=futura cuñada

Abadegaixa=seminarista


Mojagaixa=novicia

Alkategaixa=candidato a alcalde

Diputaugaixa=candidato a diputado

Gaur egunian galzorixan egon arren,

-GEL atzizkixa gizongel=novio berban geraketan xaku.



**ZURICH  
INTERNACIONAL  
ASEGURUA**

M<sup>a</sup> del Mar  
Urrutia Negueruela

Euskadi Etorbidea, 15  
Tfnoa. eta Faxa: 78 30 09 OÑATI

**ARTAZI**  
leapaindegia

Zubibarri kalea, 4 - Tfnoa.: 78 01 77



## ABERASTU:

Aurreko alian agertu barik geratu zan -GAI atzizkixaren bigarren esanguria emungo dogu lehenengo:

-GAI atzizkixaren bigarren esanguria:

- Azpigeixa= ganaduen ohia egittekua.
- Jangaixa= jatekua. Comida.
- Erosgaixa= artículo de compra.
- Salgaixa= artículo de venta.
- Ikusgaixa= espectáculo.
- Irakurgaixa= lectura.

## Osasunak emuten doskun bialekuak

Beste gai batera pasatuaz, ondoren osasunarekin eta zihatzaigo esanda, katarro eta gripe antzarekin zerikusixa dakoin berba eta esaera batzuk ikusiko dittugu:

- **Gorputzaldi txarra izan**  
Oso gorputzaldi txarra dakot.
- **Buruko kargia izan**  
Buruko karga ikaragarrixakin nabil.
- **Gaiso antzian ibilli**  
Aste danian gaiso antzian habil.
- **Onezen bat izan; oneza izan**  
Onezen bat dauenian onena uhera sartzeia izaten da.
- **Ondoeztuta egon**  
Gure ama ondoeztuta dago (gaixorik dago)
- **Ondoezik ibilli**  
Ondoezik nago eta epelera noia.
- **Kili-mala egon**  
Kili-mala nago eta goiz erretiraittera noia.

- **Burutik beherakua izan (meningitisa eta katarrua)**  
Burutik beherako galanta harrapatu dok orainguan e?
- **Eztarriko mina izan**  
Eztarriko minez zagoz ala?
- **Eztarrixa harrapota izan**  
Etxeko danak eztarrixa harrapota gagoz.
- **Eztarri erria izan**  
Eztarri erriaz nabil, berba egin ezindda.
- **Kalenturia eta hotzikarak izan**  
Ilunkara orduko kalenturiak asko igo dost eta orain berriz hotzikarak nago.
- **Gorputza mankauta izan**  
Gripe txar honek gorputza mankauta itxi dost.
- **Jota egon**  
Katarrua dala eta ez dala jota nago.
- **Surtxirrixa, surziriña, dindirrixa izan (moquillo)**  
Gaur egun danian surtxirrixakin nabil.
- **Surreko jarixona izan**  
Surreko jarixo honek ez dost bakian ixten.
- **Ziriña darixola ibilli**  
Hemen ñabik ziriña darixola batetik bestera.
- **Haize-eztula (catarro)**  
Haize-eztul hau ez da bapebe ona, ba!
- **Txakur-eztula (eztul txarragua eta sakonagua)**  
Hik dakok hik txakur-eztula, hik!
- **Eztula jo ezin**  
Gaur goizian ixixa itto naiz eztula jo eziñik.



URTXIN Loradenda

Lora  
•  
Landare  
•  
Keramika  
•••  
Portu Kalea  
Tel: 78 22 41

*Aranburu Altzariak*

Kale Zaharra, 21 Tel. 78 11 60



## ABERASTU:

Osasunaren inguruan ibilli gifan aurrekuan, eta orainuan be hari berari tiraka jardungo dogu, Kandido Izagirreren hiztegixa izan da gure erreferentzia nagusixena; bertan agerketan diran berba batzuekin eta geuk gehittutako beste batzuekin osatu dogu hurrengo ariketa.

Lotu egizu ezkerreko zirrindarako berbok eskumaldekuekin, euren artian **sinonimuak**(esangura berekuak) billatuaz:

- |                    |                    |
|--------------------|--------------------|
| 1.- GAIXOTU        | a.- GOGORTU        |
| 2.- AHULDU         | b.- PIRRITTARIA    |
| 3.- HOTZITTU       | c.- ODOLFUANA      |
| 4.- BOTAGURIA      | d.- GORITTASUNA    |
| 5.- TXARTU         | e.- MANKAUTA EGON  |
| 6.- SASIAU         | f.- HILTTEKUA      |
| 7.- GORALARRIXA    | g.- OILLOTUTA EGON |
| 8.- SEIÑA EGIN     | h.- ERREBESKA      |
| 9.- GORIGARRA      | i.- MAKALDU        |
| 10.- OSATU         | j.- SIKU IBILLI    |
| 11.- ARERIXUA      | k.- ONDOEZTU       |
| 12.- OKARAKA       | l.- SORTU/ MOTELDU |
| 13.- UKATUTA EGON  | ll.- GORABETIA.    |
| 14.- LIHOR IBILLI  | m.- UMIA EGIN      |
| 15.- INDDARTU      | n.- ONERATU        |
| 16.- ODOLJARIXUA   | ñ.- ALATU          |
| 17.- BILDDUTA EGON | o.- GAIZKITTU      |
| 18.- BEHERAKUA     | p.- GONBITTAGURIA  |

Erantzunak: 1k, 2l, 3h, 4p, 5o, 6l, 7ll, 8m, 9d, 10n, 11f, 12h, 13e, 14j, 15a, 16c, 17g, 18b

## ASMAU:

Apirilleko aleko pregun-tiaren erantzuna:

**Hankagorrixak** agerketia esaeriak umiak agerketia edo jaixotia esan gura dau, umiak munduraketan diranian gorri, pillosik, etorten dira-eta.

Adb: *Ezagun da bai ezta-kotzueilla umerik. Ikusi-ko dozue zuek pe, hankagorrixak agerketan xatzuenian.*

Gaurko galderak honeitxek dira:

Zer esan gura daue berba honeik: **odolbatua, bihotzerria, bidixixuak eta txirtau?**

## GAS PROPANO ETA GAS NATURALAREN INSTALAZIOAK

## BEROGINTZA ETA MANTENIMENDUA OROKORREAN

Zubillaga auzoa, 74. D. Pabillioia ONATI

Tfnoa: 78 02 65 Faxa: 78 00 33

INGENIARITZA, PROIEKTU ETA INSTALAKUNTZAK

**JEGAS**sa



## ZUZENDU:

Gaurkuan komentauko dogun akatsa erderiaren eragiñez sortutakua dala bistakua da; izan be erderaz orain eta gerotxuago gertaketan dan ekintzia oraiñaldiaren bidez adierazi leike; euskeraz berriz, ekintzia gerotxuago gertatu bihar baldin bada, aditza geroaldixan ifiñi bihar da. Adibidez:

### OKER:

*Jokatzen dogu pelotan?  
Faten gara beste taberna batera?  
Hartzen dogu pintxo bat?  
Edaten dogu zeozer?*

### ZUZEN:

*Pelotan eginGO dogu?  
FanGO gara beste taberna batera?  
Banderilla bat hartuKO dogu?  
Zeozer edanGO dogu ?*

## ASMAU:

Hona hemen, lehenengo eta behin, bagilla edo ekaifian egin gittuen pregunten erantzunak:

**Odolbatua:** Kolpe bat hartu ondoren, edo atiak harrapota-kuan, esate baterako, puntu batian sortzen dan odol-polt-saxua.

**Bihotzerria:** Estomaguan igarten dan garratzasuna, batez be larregi jan edo edaten darian edo estomagua ondoezki dabillenan.

**Bidixiuk:** Hestietako txisara txiki eta zurixei esaten xate, korotzetan agerketan dira, gehixenbat umietan.

**Txirtau:** Pertsona nahiz animalixairi gaixotasun baten kontrako txirtua (bakunia) gorputzian sartzea. Beste leku batzuetan "txertatu" eta "txertoa" esaten da.

Oraingo galderia hauxe dozue: **Zer da bidia hausi edo hausteia?**

Adb: *Baxakuat bidia hausten dostain lagunak pe.*

*Nerekin trikitx ez egittiarren, bidia hausi egin nontan Mirenek.*

*Aspalditxuan hotz samar dabil nerekin, baiña ikusten nauenian eztozt biderik hausten behintzat.*



Portu Kalea, 5  
ONATI

MAPFRE  
BIDAIAK

IRADIER

Tfnoak: 78 12 65 / 78 33 97  
Faxa: 78 30 96



MIZKE

Gozotegia

- Gozoki eta fruitu eiharrak.
- Ezkontza, bataio eta lehenengo jaunartzerako enkarguak hartzen dira.

Kale Zaharra, 3  
Tfnoa: 78 28 14



### ABERASTU:

GORRI berbiaren inguruan izango dogu gaurko jarduna. Kolorearen esanguria dako gehixenetan, baiña pillostasuna, laztasuna edo gogortasuna be bai sarritan.

- Kolorearen zentzuan izen batzuetako atzizkietan agerketan da: *txantxangorri, kaskargorri, buztangorri*.

- Pillostasuna edo laztasuna adierazteko, berriz, adjetibuetara jotzen da askotan: *kale gorrixa, haize gorrixa, negu gorrixa, bihar gorrixa*.

- Aditzekin batera esamoldiak sortzen dira beste batzuetan: *gorriak ikusi, gorri egon, gorri gelditu*.

- Moduzko adberbiuen tankeria be hartzen dau inoiz: *haragi gorritan, narru gorritan, hanka gorritan*.

- Eta leku-izenetan be ezta falta: *Aizkorri, Iturri gorri, Lurgorritta, Goringuena*.

Ariketa moduan lotu egizu ezkerreko zirrindarako berbok eskumaldekuekin, euskerazko berben erdal ordaiñak billatuaz:

1- Haragi gorritan	a- Viento penetrante	11- Bihar gorrixan	k- Alejado de la religión
2- Kale gorrixan	b- En cueros	12- Lurgorri	l- En día de labor
3- Oskorri	c- Pasarlas moradas	13- Goringo	m- En la calle
4- Aizkorri	d- Pobreza extrema	14- Haize gorri	n- Estar de menstruación
5- Negu gorrixan	e- Peña pelada	15- Gorritu	ñ- En el crudo invierno
6- Txantxangorri	f- Rubio	16- Mendigorri	o- Monte raso
7- Gorriak ikusi	g- Yema de huevo	17- Hanka gorritan	p- En carne viva
8- Ardu gorri	h- Cielo rojo	18- Alegorri	r- Tierra arenosa
9- Astegun gorrixan	i- Descalzo	19- Gorri egon	s- Enrojarse
10- Narru gorritan	j- Vino clarete	20- Kaskargorri	t- Petirrojo

*Erantzunak: 1p, 2m, 3h, 4e, 5h, 6r, 7c, 8j, 9l, 10b, 11d, 12r, 13g, 14a, 15s, 16o, 17i, 18k, 19n, 20f.*

### ASMAU:

Hasi gaittezen fan zan hilleko preguntari erantzuten:

Batak bestiari bidia hausi edo haustiak esan gura dau alkarrengandik ihesik fatia, trikitx ez egittiagatik beste bide bat hartzeia, bidian zoi-zela bestiarekin topo ez egitteko pausua aldaketia eta beste espaluera pasaitia, esate baterako:

- *Ze lagun klase dok pa hori, bidia hausten badosk?*

- *Eñuan uste gure Joxek bidia hausiko nostanik; eztakitt ze izango dauen nerekin trikitx ez egin gura izateko.*

Hil honetako galderia hau xe dozue:

Zer esan gura dau "Beruena kendu" eseriak? Adb:

## VGARTE PENTSYAK

AITOR UGARTE LIZARRALDE

**Pentsiak • Ongarriak • Haziak**

**Irinak eta deribatuak**

**Produktu Fitosanitario**

**Denda:** Kale Barria, 2. Tfnoa: 78 03 04

**Biltegia:** Aozaraza, 2. Tfnoa: 78 18 09

ONATI

## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21

Kale Barria, 11

Lizaur A., 7

ONATI

Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**



## GOGUAN HARTU: IZAN ADITZA

### Orainaldixa

	Alokutibuak (hika)	
Ni	naiz	nauk nau
Hi	haiz	
Ha	da	dok don
Gu	gara	gaittuk gaittun
Zu	zara	
Zuek	zarai	
Hareik	dira	dittuk dittun

### Lehenaldixa

	Alokutibuak (hika)	
Ni	nintzan	nintzuannintzunan
Hi	hintzan	
Ha	zan	zuan zunan
Gu	giñan	gintzuangintzunan
Zu	ziñan	
Zuek	ziñain	
Hareik	ziran	zittuan zittunan

### Adb:

Ama: Seme, nun izan zara ba orain arte?

Semia: Kalerik kale.

Ama: Orain arte kalia? Bakarrik ibilli biharko ziñan!

Semia: Ez, nere lagun danakin ibilli naiz.

Ama: Ze lagunekin? Pello ta, aldeko Joxe ta, etziran horregatio ordu honeittan erretirauko?

Semia: Bai ama, oraintxe erretirau dira horreik pe.

Ama: Hau da hau gaztien burubidia! Hamaika holako ikusteko jaixo giñan!

Oharra: Saiatu zaitetz alkarrizketa hau hiketan ifintten.

## ASMAU:

Aurreko hilleko pre-guntiare erantzuna hauxe da:

“Beruena kendu” espre-siñua ebaltzen da entzun-dako zerbait larregikua dala pentsaitten xakunian eta horren erdixa sinjstu bihar dala esan gura dogu. *ian*

Adb: Egixa izateko, horri beruena kendu bihar xako. Beruena kendu egixok horri, bestela...!

Oraingo galderia hauxe dozue.

Zer da auzua egotia?

Adb: Gaur auzua dago.

## VGARTE PENTSVAK

AITOR UGARTE LIZARRALDE

Pentsuak • Ongarriak • Haziak  
Irinak eta deribatuak  
Produktu Fitosanitario

Denda: Kale Barria, 2 Tfnoa: 78 03 04  
Biltegia: Aozaraza, 2 Tfnoa: 78 18 09

OÑATI

• Elektra instalazioak

ILUMINACION

*egun*

ARGIKUNTZA

Zubiberri, 2  
943 71 64 28

20560 OÑATI  
(Gipuzkoa)



## GOGUAN HARTU:

### EGON ADITZA

#### Orainaldixa

#### Alokutibuak(hika)

Ni	nago	nagok	nagon
Hi	hago	—	—
Ha	dago	xagok	xagon
Gu	gagoz	gagozak	gagozan
Zu	zagoz	—	—
Zuek	zagozai	—	—
Hareik	dagoz	zagozak	zagozan

#### Lehenaldixa

#### Alokutibuak(hika)

Ni	neguen	ñaguan	ñagonan
Hi	heguen	—	—
Ha	eguen	xaguan	xagonan
Gu	gegozen	gegontzan	gegontzanan
Zu	zegozen	—	—
Zuek	zegozein	—	—
Hareik	egozen	xagozan	xagozanan

## ASMAU:

Aurreko hilleko preguntziaren erantzuna hauxe da:

*Auzua egotia* esaeriak esan gura dau, egun horretan auzua alkartuko dala batzar, billera edo reunixo bat egitteko. Kanpai hotsen bidez egitten ziran deiak eta hola izentaitten ziran:

*Gaur auzua jo dau.*

*Puntuaren sua jo dau* (Nunbaitten sua daguela jakin eragitteko)

*Hilletia joko dau laister.*

*Hamarretan joten dau mezia.*

*Abemarittakua hiru bider joten da.* (Abemarittakua: Egunsentixan, eguardixan eta illunkaran joten dan kanpaia)

Oraingo galderia hauxe dozue:

Zer da kirikaitia? Adb:

*Gure atzetik kirikaitten dabitz.*

*Mikelek kirikau egin dau.*

*Egizu kirika bat ia etorri dan.*

*Kirikaka ibilli ziran.*

**OHARRA:** Berba egitterakuan, forma laburrak esaten dittugu gehixenetan: "nau" (nago)/ "gauz" (gagoz)/ "zauzai" (zagozai)/ "xauk" (xagok)/ "gauzan" (gagozan)/ "geuntzen" (gegozen)/ "zeuzein" (zegozein)/ "xauzanan" (xagozanan) eta abar. Baiña hemen eskribittekko orduan ebalu biharko liraken forma boro-billak aukeratu dittugu.

Adb:

Zaharra: *Ikararik eztozue egin bihar ala? Zer egitten dozue orainddiok oian kiribilduta?*

Gaztiak: *Manta azpitan gustora gagoz hemen egoniam.*

Zaharra: *Egoniam gustora egongo zarai baiña hola eztozue uso askorik botako!*

Gaztiak: *Daguen hotzarekin gaur eztago usorik!*

Zaharra: *Eztaguela usorik? Gaberdixan hegoia atara dau eta uso pilla galanta fan da! Begiratu egizue gora!*

Gaztiak: *Egixa da-ta, jaiki gaitian aguro, daguenian bonbon eta eztaguenian egon egin bihar da hemen eta!*

# ALONÁ

Autoeskola



Ramon Irizar, 3 behea  
Tfnoa: 78 24 91  
ONÁTI

# IRIZAR

## ESTANKOA

Paperdenda • Loto • Loteria • Kiniela

Foruen enparantza, 6 Tfnoa: 78 00 15 ONÁTI



## GOGUAN HARTU: FAN ADITZA

### Orainaldixa

#### Alokutibuak (hika)

Ni	<b>noia</b>	<i>ñoiak</i>	<i>ñoian</i>
Hi	<b>hoia</b>	-	-
Ha	<b>doia</b>	<i>xoiak</i>	<i>xoian</i>
Gu	<b>goiaz</b>	<i>goiazak</i>	<i>goiazan</i>
Zu	<b>zoiaz</b>	-	-
Zuek	<b>zoiazai</b>	-	-
Hareik	<b>doiaz</b>	<i>xoiazak</i>	<i>xoiazan</i>

### Lehenaldixa

Ni	<b>noian</b>	<i>nixioian</i>	<i>nixioianan</i>
Hi	<b>hoian/hoianan</b>	-	-
Ha	<b>zixioian</b>	<i>xoian</i>	<i>xoianan</i>
Gu	<b>goiazan</b>	<i>goiazan</i>	<i>goiazanan</i>
Zu	<b>zoiazan</b>	-	-
Zuek	<b>zoiazain</b>	-	-
Hareik	<b>zixioiazan</b>	<i>xoiazan</i>	<i>xoiazanan</i>

Adb:

Semia: *Bueno, fan noia aitta!*

Aitta: *Nora hoia ba, hain goiz?*

Semia: *Lagunakana, eurekin frittadia dakot eta gertaketara fan bihar dot.*

Aitta: *Fatiarekin bakarrik ez akordau e, etortiarekin be bai!*

Semia: *Bai, bai, baiña etorteko fan egin biharko dogu lehengo.*

Aitta: *Bueno, ba, esandakua, ondo pasau eta bueltiarekin akordau.*

## ASMAU:

Aurreko hilleko preguntziaren erantzuna hauxe dozue:

Kirikaittia edo kirikada bat egittia da leku ezkutu batetik begira egotia, beste inork norbera ez ikusteko moduan. Esate baterako:

*Hor baten bat kirikaitten dakogu.*

*Kirikaittera noia ia zeozer ikusten doten.*

*Hor baten bat kirikada dabil*

*Patxi hor dabil kirikadan*

*Gure kirikadan dago hori*

*Gure kirikadan dabil hor*

*Beti kirikadan*

*Egin egik kirikada bat*

Oraingo galderia hauxe dozue:

Zer da berbaatuta egotia baten batekin?

Adb:

- *Hillaren hogeita zazpirako Jonan Fernandezekin ei dagoz berbaatuta Arantzazuko frailliak.*

- *Harekin gegozen berbaatuta eta azkenian kale egin oskan.*

- *Berbaatuta gagozak eta agertuko dok.*



## ONA - EDER

ATEAK, TARIMAK, PARKETA,  
BEROGAILUAK ESTALTZEKO  
ALTZARIAK, LEIHOAK...

Portu, 1  
Tfnoa./Faxa: (943) 78 35 13  
20560 ONATI

Tel. Faxa: (943) 88 04 76  
20 200 BEASAIN (Gipuzkoa)



URTXIN Loradenda

Loreak  
•  
Landareak  
•  
Keramika  
•••  
Portu Kalea  
Tfnoa: 78 22 41





## GOGUAN HARTU: Etorri aditza

Orainaldixa

Lehenaldixa

Alokutibuak (hika)

Alokutibuak (hika)

Ni	<b>nator</b>	<i>ñatok</i>	<i>ñaton</i>	Ni	<b>netorren</b>	<i>ñatorran</i>	<i>ñatonan</i>
Hi	<b>hator</b>	—	—	Hi	<b>hatorren/</b>	—	—
Ha	<b>dator</b>	<i>xatok</i>	<i>xaton</i>	Ha	<b>hatorranan</b>	—	—
Gu	<b>gatoz</b>	<i>gatozak</i>	<i>gatozan</i>	Gu	<b>etorren</b>	<i>xatorran</i>	<i>xatonan</i>
Zu	<b>zatoz</b>	—	—	Gu	<b>getozen</b>	<i>gatozan</i>	<i>gatozanan</i>
Zuek	<b>zatozai</b>	—	—	Zu	<b>zetozen</b>	—	—
Hareik	<b>datoz</b>	<i>xatozak</i>	<i>xatozan</i>	Zuek	<b>zetozain</b>	—	—
				Hareik	<b>etozen</b>	<i>xatozan</i>	<i>xatozanan</i>

Adb:

Laguna 1: *Etorriko ete hintzan, ez ete hintzan etorriko hemen gabiltzan jardunian.*

Laguna 2: *Etorriko enintzuan ba, behin berbia emun ezkerro!*

Laguna 1: *Nundik hator ba orainguan?*

Laguna 2: *Ameriketatik ñatok, hango merkaia puska bat aztertu eta gero.*

Laguna 1: *Eta zer, baxatok albiste onik inguru hareittatik?*

Laguna 2: *Bai, eskaeria ugari egon dok eta eurairi eskerrak etxuagu lan faltarik izango. Aurten gauzak etxatozak gaizki.*

Laguna 1: *Portau haiz mutil! Gabonak trankil pasaitteko moduan gagozak orduan!*

*Bapo afaldu daigun, hain urriñetik datorrenak merezi xok-eta.*

Oharra: Saiatu zaittez alkarrizketa hau zuketan ifintten

## ASMAU:

Aurreko hilleko preguntziaren erantzuna hauxe dozue:

Baten batekin berbaatuta egotia da, berba edo hitza emunda egotia, edo baten bateri zeozer agindduta eukittia. Esate baterako:

*Berbaatuta gegozen atzoko, baiña etzan etorri, horregatik gagoz hemen zain.*

*Berbaatuta zongo zarai, baiña eztaikit agertuko xatzun.*

*Berbaatuta egon ezkerro, berbia bete egin bihar dok gizona!*

Oraingo galderia hauxe dozue:

Zer da gauza bateri etsipena emutia?

Adb:

*Aurtengo kastaiña-batzeiari emun xaugu etsipena.*

*Lan horri emun xat etsipena.*

*Etxeko obrairi emun dostegu etsipena.*



ONA - EDER

ATEAK, TARIMAK, PARKETA,  
BEROGAILUAK ESTALTZEKO  
ALTZARIAK, LEIHOAK...

Portu, 1  
Tfnoa. (943) 78 35 13  
20560 ONATI

Tel. Faxa: (943) 88 04 76  
20 200 BEASAIN (Gipuzkoa)



ARKAUZ  
OPTIKA

Optiko-Optometrista

Lazarraga, Oñati Tfnoa: 71 60 63



## GOGUAN HARTU:

### Oharrak:

(1) Berba egitterakuan aditz barruko "l" soinuak ez dira entzuten gehixenetan:

Gabiltz → gabitz

Zabiltzai → zabitzai

Gebiltzen → gebitzen e.a

(2) Ñabik/ñabin eta horrelakak be asko ebalten dira. (dabik/n)

(3) Lehenaldixan asko ebalten dira "nabillen", "gabiltzen", "zabiltzen" lako aldaerak be.

### Adb:

Nagusixa: Mutikuak, orain be bazabiltzai zerbaitetan?

Mutikuak: Ez, hemen daguen txakurrari jare egin gura xangu.

Nagusixa: Zertarako baiña! Itxi bakian txakur horri, eta fan zatezai hemendik jolas egittera!

Mutikuak: Baiña guk txakurrarekin jolas egin gura dogu!

Nagusixa: Ibilli-ibilli, hasarratu eragingo dostazue bai, eta gero izango dittuk kontuak.

Mutikuak: Bueno bagoiaz ba, zurekin eztao brometan ibiltterik-eta.

## IBILLI ADITZA

Orainaldixa		Alokutibuak (hika)	
Ni	nabil	nabik (2)	nabin
Hi	habil		
Ha	dabil	xabik	xabin
Gu	gabiltz (1)	gabiltzak (1)	gabiltzan
Zu	zabiltz		
Zuek	zabiltzai		
Hareik	dabiltz	zabiltzak	zabiltzan
Lehenaldixa			
Ni	nebillen (3)	nabillan (2)	nabiñan
Hi	hebillan		
Ha	ebillen	xabillan	xabiñan
Gu	gebiltzen (1)	gabiltzan ?	gabiltzanan
Zu	zebiltzen		
Zuek	zebiltzain		
Hareik	ebiltzen	xabiltzan	xabiltzanan

## ASMAU:

Aurreko hilleko preguntien erantzuna hauze dozue:

Zerbaiteri etsipena emutia edo etsipena emunda egoitia zera da, zer horri, burutu barik egon arren, akaberia emutia; hau da, lana edo zeregin hori larregi luzatu edota aspertu garielako bertan behera izteia eta akabotzat emutia. Esate baterako:

- Zer, akabo dozue ala? Nik behintzat emun xat etsipena.

- Egundoko azkarren emun xatzue etsipena gaurko lanari.

- Etsipena emun ezkeru, kitto!

- Orainddiok ezin izango xaugu emun etsipena, beste ekiñaldi bat egin biharko dogu!

Hil honetako pregunzia hauze dozue:

Zer esan gura daue menustu eta belustu aditzak?

### Adb:

Fraka honeik menustuta dakot

Alkondara hori hasi xatzu menuketan.

Sagar honeik belustuta dagozelako, merketxuago salduko dotzut.

Eruan egizue madari horreik plazara, danak belustu aurretik.

## YGARTE PENTSVAK

AITOR UGARTE LIZARRALDE

Pentsuak • Ongarriak • Haziak

Irinak eta deribatuak

Produktu Fitosanitario

Denda: Kale Barria, 2 Tfnoa: 78 03 04

Biltegia: Aozaraza, 2 Tfnoa: 78 18 09

ONATI

## Juanitosa

Atzeko Kalea, 11

Kale Barria, 24

Tfnoa: 78 04 62 ONATI

SALTOKIA

# Itzuli-tarra



## ASMAU

Aurreko hilleko pregun-  
tiaren erantzuna hauxe dozue:

**Menustu** aditzak zerbait gutxiketia esan gura dau, eta erropiaren kasuan ajaittia eta gastaittia, esate baterako:

☞ *Lepo eta ukalondo aldetik alkondara hori ziharo menustuta dakotzu.*

☞ *Jertsei hori menustuaz doianez, etxerako itziko dogu.*

*Fraka horreikzela menustu diran!*

**Belustu** aditza, berriz, fruta eta lurteko jangauzekin ebalten da, eta honeik itxura galdu edo mallaaketan diranian esaten dogu. Adibidez:

☞ *Patata horreik jan egin biharko dittugu, danak belustu aurretik.*

☞ *Sagarrak belustu ezkerro, eztiara gauza plazan saltzeko eta etxerako izaten dira*

Hil honetako pregun-  
tiau dozue:

Zer da **ezagupeixa emutia** edo/eta **eukittia**? Adibidez:

☞ *Etorri danian eztost emun ezelako ezagupeiriketa zein dan jakin barik geratu naiz.*

☞ *Aspalditxotik dakot zuk esan dozunaren ezagupeixa.*

## ABERASTU

Lotu egizu ezkerreko zirrindarako berbok eskumaldekuekin, saiatuaz Oñatin eta beste leku batzuetan desbardin esaten diran animalixa honein izenak ezkonketan:

### OÑATIN

1. AMERAUN-TXORI, ameraun-txorixa (Treparriscos)
2. AMORRAIN-GIXI, amórrain-gixixa (Alevín de trucha)
3. APAPUSKI, apápuskixa (renacuajo)
4. ARRAI, arraixa (ave rapaz)
5. ARRAIPARDO ZURI, arraipardo zurixa ( águila culebrera)
6. BASAURDE, basáurdia (Jabalí)
7. BIDIXIXO, bidíxixua (Lombrices intestinales)
8. BILDDOTZ, bilddótza (Cordero)
9. ERREKA-ZOZO, erreka-zózua (Mirlo acuático)
10. FRANTZES-KATU, frantzés-katuá (Jineta)
- LIZUN-KATU, lizún-katuá ( “ )
11. IGARIBEI, igáribeixua (Nútria)
- URTXAKUR, urtxákurra ( “ )
12. KATAMIXAR, katámixarra (Ardilla)
13. KATU-MAO, katú-maua (Gato montés)
14. KIRIKIXO, kiríkixua ( Erizo)
15. LAATXORRI, laátxorrixa (Grillo)

### ELHUYAR HIZTEGIXAN

- A. Arrano sugezalea
- B. Bizioak
- C. Ur-zozoa
- D. Katajineta
- E. Igaraba
- F. Katagorria
- G. Amurrainkumea
- H. Basakatua
- I. Kirikinoa edo Trikua
- J. Harraparia
- K. Harkaitz-txorria
- L. Kilkirra
- M. Apaburua
- N. Arkumea
- Ñ. Basurdea

Erantzunak: 1K, 2G, 3M, 4I, 5A, 6N, 7B, 8N, 9C, 10D, 11E, 12F, 13H, 14I, 15L.

## M. AGVIRREVRRETA OKINDEGIA

Berezano auzoa, 21  
Tfnoak: 78 23 45 / 78 22 54  
OÑATI

## VICTOR FREIRE e HIJOS

Igeltseritza

• Berrikuntzak orokorrean • Tellatu eta fatxaden konponketak • Biltegia Berezan

Errekalde 22, Ezk. OÑATI Tfnoa: 78 07 69



## ABERASTU (Animalixak II)

Lotu egizu ezkeraldian daguen zirindarako berbok eskumaldekuekin, saiatuaz Oñatin eta beste leku batzuetan desbardin esaten diran animalixa honein izenak ezkonketan:

### OÑATIN

1. LARRASTARRO, larrástarra (Zorzal).
2. LUPO, lúpua (Salamandra).
3. MARKINETE, markíñetia (Martín pescador).
4. MIXAR, mixárra (Marmota).
5. NEGUTA, negútia (Pinzón común).  
TXOIN-TXOIN, txoin-txoiña ( " " )
6. PAPARRORI, papárrorixa (Marta).
7. PAPAZURI, papázurixa (Garduña).
8. PITOTX, pítotxa (Turón).
9. SEREN, seréna (Carcoma).
10. TXANTXIKU, txantxíkua (Rana).
11. TXARRAPO, txarrápua (Macho de cerdo).
12. TXINDDORRI, txínddorixa (Hormiga).
13. TXIPILIPETA, txipilipetia (Mariposa).
14. TXIXARA, txixária (Lombriz de tierra).
15. USAN, usána (Sanguijuela).

### ELHUYAR HIZTEGIXAN

- A. Pipia.
- B. Ordotsa.
- C. Tximeleta edo Pinpilinpauxa.
- D. Zizarea.
- E. Igela.
- F. Garraztarroa.
- G. Txinaurria.
- H. Izaina.
- I. Arrabioa.
- J. Martín arrantzalea.
- K. Marta.
- L. Txonta.
- M. Lepazuria.
- N. Ipurtatsa.
- Ñ. Marmota.

Erantzunak: 1F, 2I, 3I, 4N, 5L, 6K, 7M, 8N, 9A, 10E, 11B, 12G, 13C, 14D, 15H

## ASMAU

Aurreko hilleko pregun-tiaren erantzuna hauxe doze:

Ezagupeixa emutia edo ezagupeixa eukittia norbaiten edo zerbaiten barri izatia da, edo beste era batera esanda, berba egiten zabil-tzenaren gaiñian zeozer jakit-tia, haren nundik norakuen gaiñian enterauta egotia. Adi-bidez:

1.- Etorri da gurera emakume gazte lirain bat, berbetan jardun dogu, baiña eztoz ezagupeirik emun. Nungua ete zan?

2.- Badakot horren ezagupeixa. (Haren barri bada-kixela)

Hona hil honetako pre-guntia:

Zer esan gura dau esamolde honek: "**Hasixan hasi**", esate baterako:

1.-A: Arretaz heldu xatzu lanari...

B: Hasixan hasi!

2.-Hasixan hasi! Bestela noizko akabo lanok?

# Umerez

Iturgintza • Berogailuak •  
Bainu altzariak

Arantzazuko Ama kalea, 21 behea • ONATI • Tfnoa: 71 62 00

# CORTABARRIA

• Inmobiliari Agentzia • Aseguroak  
• Aholkularitza

Blanca E. Cortabarría Elorza  
Zuzenbidean lizenziatua. A.P.I. 303 zkia.

Kale Barria, 42 behea  
Tfnoa: 943 - 78 05 87

20 560 OÑATI

# ttiri-ttarra



## GOGUAN HARTU:

### EDUN ADITZA

#### Orainaldixa

	Singularra	Alokutibuak (hika)	
Nik	dot	xuat	xonat
Hik	dok/n		
Harek	dau	xok	xon
Guk	dogu	xuagu	xonagu
Zuk	dozu		
Zuek	dozue		
Hareik	daue	xuai	xonai

#### Plurala

Nik	dittut	(di)txuat	(di)txunat
Hik	dittuk/n		
Harek	dittu	(di)txuk	(di)txun
Guk	dittugu	(di)txuagu	(di)txunagu
Zuk	dittuzu		
Zuek	dittuzue		
Hareik	dittue	(di)txuai	(di)txunai

Abb:

Gizona: Zer dozu andra?

Andria: Begira nago errekauden listiari, ia orainguan ekarri biharreko dana ekarri doten.

Gizona: Erosi dozu patatia?

Andria: Bai, patatia ekarri dot.

Gizona: Eta mallukixak topau dittuzu?

Andria: Bai, bai, mallukixak pe ekarri dittut.

Gizona: Eta gure Gorkandako pastelak?

Andria: Ez ba, horreik ettut ba ekarri. Burutik fan xat.

Gizona: Ez estutu, oraintxe bertan telefonotik enkargauko dittugu-eta.

## ASMAU:

Aurreko hilleko preguntiaeren erantzuna honako hau dozue:

“Hasixan hasi” esaeriak, lan edo zeregin bat ganoraz hasteia esan gura dau. Gauzia hasi, baiña bihar dan moduan, izango dan moduan, fundamentuz. Ikusi dagigun adibide honeittan:

- Pellogana jo xuat eta gero zuzenian hiregana. Badakik, hasixan hasi!
- Horreik egitten daue hasixan hasi, nortera begira egon barik!
- Karrera egin bihar dozula? Ba, hasixan hasi, bestela bape hasi ez!

Hona hil honetako preguntia:

Zeri esaten xaugu deiak? Esate baterako:

- Ulixa eta ulixaren deiak ifiñi dittue elizako atian.
- Elizan deiak entzun dittugu eta, kontrakorik ezpadago, laister izango dogu ezkontzaia.
- Zuen deiak irakurri ei dittue.

# Laket

Lurrindegia eta apaindegia

Lazarraga, 3 OÑATI • Tfnoa.: 78 30 84

# PEÑAKOBA

AUTOESKOLA

Arkitekto Lizaur

Tfnoa: 78 05 60 OÑATI

Zarugalde, 46

Tfnoa: 79 29 93 ARRASATE





## GOGUAN HARTU: EDUN ADITZA

Lehenaldixa (Singularra)		Alokatibuak (hika)	
Nik	neben	ñuan	ñonan
Hik	hian/hianan		
Harek	eben	xuan	xonan
Guk	geben	giñuan	giñonan
Zuk	zeben		
Zuek	zebein		
Hareik	euen	xuain	xonain
<b>Plurala</b>			
Nik	nittuan	nixuan	nixunan
Hik	hittuan/hittunan		
Harek	zittuan	(zi)txuan	(zi)txunan
Guk	gittuan	gitxuan	gitxunan
Zuk	(zi)ttuzan		
Zuek	(zi)ttuzen		
Hareik	zittuain	(zi)txuain	(zi)txunain

**Adb:**

**Heldua:** Zer, jai antxian ala?

**Gaztia:** Ez, lan barik!

**Heldua:** Gogorra dok gero, halako mutil pusketia egun danian ttirin-ttaran ikustia kalian gora eta behera, lanik ez takola-eta!

**Gaztia:** Halaxe da ba, gaurko egunian lana topaite hori gogotik zaildu da.

**Heldua:** Gure sasoiaren eskolarik ezkiñuan izan; lan faltarik pez. Zuek, berriz, eskolia haundixa dakotzue, baiña lanik ez! Orain arte zer egin dok pa?

**Gaztia:** Lehenengo magisterixua egin neben, ondoren geografia eta historixa karrera atera neben eta azkenian doktorautzaia ikasi dot sail horretan.

**Heldua:** Markia dok gero, hainbeste titulu eskuan eta lana topau ezinik habillera entzutia!

**Gaztia:** Hala be, esperantzia ezingo dogu gaidu, lana ugarittuaz ei doia, eta 35 orduko lan astia be badator-eta!

## ASMAU:

Aurreko hilleko preguntziaren erantzuna ondorengua dozue:

“Deiak” esaten dostegu, parejaren bat elizaz ezkonketakotan danian, parrokuak pulpittotik aurrez emuten dittuan abixuairi, jentia jakiñaren gaiñian egon dedin, eta, norbaittek ezkontza hori bertan behera izteko moduko arrazoiren bat baldin badako, garaiz jakin eragin deixen.

**Adb:**

- Joxe eta Arantxaren ezkon deiak entzun dittugu meza nagusixan.
- Zuen deiak egozen elizako atian ifiñitta.
- Deiak esan dittue eta gaiñian dogu ezkontzaia.

Oraingo galderia hauxe dozue:

Zer esan gura dau “Biharrago zuan” edo “Biharrago litzake” esaeriak? Esate baterako:

- Biharrago zuan hamalau urterekin lanian hasi bahintza!
- Biharrago zuan ezkondu bahintza heure sasoiaren!
- Biharrago litzake atertuko baleu!
- Biharrago litzake guri be fabrikatik diar egingo baloskue!

# FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA




GURE ESKUALDEAREN  
ETA EUSKAL HERRIAREN  
ZERBITZUAN

ELKARLANEAN  
DIHARDUEN TALDEA

# VALLEN

Artisau lan exotikoak  
Keramika  
Zurezko gaiak  
Arropa, Larrua  
Apainketa

Bakardadeko Ama kalea, 13  
ONATI



Ai, GURE UMIAK "PETIT SUISS" ETA "JOGURT" BAKARRIK JATEN DAU!

PETISUISAK ETA JOGURRAK ONDO DAGOZ, BAINA AURRETIK, TONTOKERIXIA EGIN BARIK, EMUN BERDURIA ETA FRUTIA, ETA LAISTER BABA GORRIXA SENDO!!

BUAAH!

## GOGUAN HARTU:

Orain dala hiru urte hasitako lanari errepasso bat emunaz, ordutik hona landutako esamolde danen bilketia egin dogu orainguan, berriz be gogora ekarritta samurrago ikasi deizun.


1. **Agua neurri:** pentsau barik bota agora datorrena. *Hori dok hori agua neurri eukittia! Horrek bota xok botatekua, agua neurri!*

2. **Alanbradan ibilttia:** juxtu-juxtuan, larri ibilttia. *Aurtengo eskolia alanbradan ikusten xuat. Milosevic-en gobernua alanbradan xagok.*




3. **Aleitzira esan/bota/ibilli:** ziurtasun edo zihaztasun barik berba egin. *Aleitzira esango xuan hori, horregatitio!*

*Aleitzira esanda/botata berrehunnen bat lagun egongo gaittuk hemen.*



4. **Amentzerauta egon:** zeozerekin itsututa egotia, zerbait burutik kendu ezindda egotia.

*Diruarekin amentzeraittia be ez tok ona. Nobixiarekin amentzerauta xagok hori, estudixuekin baiño gehixago.*




5. **Apartu; aparketia:** ogixa, esnia edo liburu bat apurretan xeheketia, alperrik galtzeia edo orri-xak desegittia.

*Ogixau sikaketan eta aparketan hasi da. Liburu hau enkuadernau egin biharko dogu berriz, ziharo apartuta dago-eta.*



6. **Argixa izan:** azkarra, bizkorra, bizixa izan. *Ha bai argixa, lan barik geratu aurretik beste lan batian hasi.*

*Diabrua baiño argixagua dok!*



7. **Ataju(z) egon:** era figurauan "lekutan egon".

*Atzetik fango naizela uste badau, ataju(z) xagok! Hainbeste pagauko dostedala pentsaitten baxuai, ataju(z) zagozak!*

LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE

LOGOPEDIA ETA PSIKOLOGIA  
TRATAMENDU KLINIKO ETA  
HEZKUNTZAZKOAK  
HAUR ETA HELDUENTZAKO

Erdiko kale, 37 belfea  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**HIRYKAR**  
LIBURUBIENDA  
OPATZEN  
San Lorenzo, 11  
ONATI  
Tfnoa. 78 08 21

# ttirri-ttarra

8. **Atximur egin (atximurtu):** bi atzamarrekin haragixa bihurrittu.  
*Lotsabaiak atximur egin nontan ipurdixan!  
 Atximurka ibilli xat arratsalde danian.*



9. **Auzua egon/egotia:** auzua alkarketia batzar edo reunixo bat egitteko.  
*Gaur auzua dago.  
 Ixiuko Joxe Mari etorri da, jai arratsaldian auzua daguela esateko.*




10. **Azkena jo:** azken tragua edan.  
*Txaketuenian joko xuagu bat eta Izarraitzen azkena.  
 Goazak, azkena jo dagigun!*



11. **Berbaatuta egon:** baten batekin berbia edo hitza emunda egon. Baten bateri zeozer aginduta eukittia.  
*Alkatiarekin berbaatuta gagöz zapaturako, Gaztetxiena komentaitteko.  
 Banoia, Pedrorekin berbaatuta nago-eta.*

12. **Beruena kendu:** entzundako zeozerrei larregikua dala iritzi eta erdixa bakarrik sinistu bihar dala esan gura dogunian ebalten egu.  
*Egixa izateko, beruena kendu bihar xako horri.  
 Horri beruena kendu ezkeru, sinistu leike.*

13. **Beti be:** noizian behin, noizbehinka.  
*Beti be faten naiz ni Koiskarrera, hango barri jakitera.  
 Beti be lagunekin afaritxo bat ondo etorten da.*



14. **Bidia hausi edo hausteia:** bidian zoiazelat bestiarekin topo ez egitteko pausua aldatu eta beste bide bat hartzea.

*Nerekin trikitx ez egittiarren, bidia hausi egin nontan Mirenek.  
 Hotz samar ibilli arren Joxerekin, ikusten dotenian etxat biderik hausten behintzat.*


15. **Biharrago zuan/Biharrago litzake:** hobe zuan; hobe litzake.  
*Biharrago zuan, Bilbon geratu bahintza!  
 Biharrago zuan, hasittakua bihar dan moduan akabo bahian!  
 Biharrago litzake, tontokerixa horreik alde batera itziko balittu!  
 Biharrago litzake, fin jokatuco baleu!*

16. **Entzuna egin:** lehenagotik zeozerren jakitxian egon.  
*Eztotzut esango zela dan, baiña entzuna egitten xat.  
 Horren entzueria badakot, entzuna egitten xat izen hori.*

17. **Estropozu egin:** hankak trabau eta bihar bada jaustia.  
*Estropozu egin eta muturrez aurrera jausi nintzuan!  
 Kontuz koska horrekin, estropozu egin barik!*



18. **Etsipena emun zerbaitteri:** zerbait hori, akabo barik baldin badago be, akabotzat emutia.  
*Nik honi emun txat etsipena, etxakuat gehixago jarduteko gogorik!  
 Aurtenguagatik etsipena emun biharko xangu.*



19. **Ezaguna egin:** lehenagotik norbait edo zerbait eza-gutu.  
*Gizon hori ezaguna egitten xat.  
 Aurpegi hori lehendik ikusitta ete dakoten... oso ezaguna egitten xat.*

**VICTOR FREIRE e HIJOS**

**Igeltseritza**

• Berrikuntzak orokorrean • Teilatu eta fatxaden konponketak • Biltégia Berezaon

Errekalde 22, Ezk. OÑATI Tfnoa: 78 07 69



**ARKAUZ  
OPTIKA**

**Optiko-Optometriska**

Lazarraga, Oñati Tfnoa: 71 60 63




20. **Ezaupeixa emun edo euki:** alde zurretik zerbaitten edo norbaitten barri izatia da.  
*Laguna, eztoztut ezaguperik emuten.  
Haren ezagupeixa baneukan gazte denporan.*

21. **Hankagorrixak agertu:** umiak jaixotia esan gura dau.  
*Hankagorrixak agerketan badira, espabilau biharko dozue!  
Hankagorrixak agertu dittuk-eta, orain ezin ibilli lehen letxe.*



22. **Hasixan hasi:** lana edo zeregina ganoraz hasi.  
*Hasixan hasi! Bestela noizko akabo lanok!  
Pellorekin egon eta gero, zuzenian etorri nauk hiregana. Badakik, hasixan hasi!*

23. **Irrittu egon:** umiekin ebaltzen dogu batez be, eta hasarre eta zatar dagozenian esaten dogu.  
*Ume hau irrirtu dago oso, ze ete dako?  
Umia irrirtu dago eta itzi egiozu lo egitten.*



24. **Jaramon egin:** kasu egin.  
*Horri jaramonik pez!  
Ez egixok/egixon jaramonik egin!  
Jaramonik egin dotzue?*

25. **Kale egin:** huts egin.  
*Orainguan hik egin dok kalia hik!  
Aurten kale egin doskue Anduagatarrak!*




26. **Kili-mala egon:** gaixo antzian egon.  
*Bi-hiru egun honeittan kili-mala nago, makal antzian.  
Kolare zurixak dakotzu, kili-mala ala?*

27. **Kirik egittia. Kirikaittia:** norbera ezkutuan dala begira egotia.  
*Hor horma ostetik baten bat kirikaitten dakogu.  
Fan zaitetz kirikaittera, ia zertan dabilzen.*




28. **Lurmendu:** edurra urketan hasteia eta honen ondorioz garbiuna batzuk agerketia.  
*Maduran beti lehenago lurmenketan dau mendi aldian baiño.  
Goialdian orainddiok edurra xagok baiña behealdetik baxatok lurmenuaz.*

29. **Menustu. Belustu:** lehenengua arrokekin ebaltzen da gehixenetan eta arropiori ajaittia eta gastaittia esan gura dau. Bigarrena, berriz, fruta eta lurreko jangauzekin ebaltzen da, eta honeik itxura galdu eta mallaketan diranian esaten dogu.  
*Ama, fraka honeik hasi xat menuketan; barrixak biharko dittut.  
Sagarra belustuta dagoz eta euren truk eztozkue txanpon askorik emungo.*



30. **Nagikerixiari emunda egon:** alpertuta edo nagittuta egon.  
*Nagikerixiari emunda ala? Arratsaldeko bos-tak eta sukaldia jasoteko!  
Horreik nagikerixiari emunda ikusten ditxuat zeharo, euren buruak pe etxuui jasoten-eta!*



31. **Narru sendua izatia:** lotsabaia izatia, azal sendua izatia (eukittia)  
*Horrek xakok narrua horrek, abarkak egitteko modukua!  
Narru sendua besterik etxakuai horreik!*

32. **Neskatan edo mutilletan egin:** neskek edo mutillak ezagutu eta konkistaittera fatia.  
*Neskatan egitteko ezta kotzue Kubara fan biharrik, herrixan bertan dakotzue aukerakuak!  
Amerikana horreik mutilletan egittera etorten dittuk hona!*



**BARRUKO  
LENTZERIA ETA  
KORSETEGIAN  
DOTOREA**

Atzeko kale, 13  
Tfnoa: 78 34 44  
OÑATI

**LENTZERIA**



**ONA - EDER**

**ATEAK, TARIMAK, PARKETA,  
BEROGAILUAK ESTALTZEKO  
ALTZARIAK, LEIHOAK...**

Telefonoak:  
Eibarreko bulegoa: 943 20 85 85  
Mugikoarra: 607 45 74 52

Erakusketa:  
Portu kale, 1  
Tfnoa: 943 78 35 13 • OÑATI

# ttirri-ttarra

33. **Oillo-narrua egin:** hotzak edo beste zeozker eragindda gorputzeko azala pinportatxo betetia.  
*Hotz honegaz oillo-narrua egin xaku.  
Oillokittuta nago.  
Telebisiñuan entzundakuak oillo-narrua ifiñi dost.*

34. **Ondoezik ibilli:** gaixo antzian ibilli.  
*Bazkal ostian uhera noia, ondoezik nabil-eta.  
Enabil oso santu aste honetan, eztarik miñez eta ondoezik.*

35. **Pertsona pinttua izan:** iritziz aldaketan dan pertsonia izan ("txaketerua")  
*Pinttua dok ha, pinttua!  
Ze pinttua haizen!  
Harengatik esaten dok? Pintto majua haiz hi harengana fan barik!*

36. **Samurrenera egin:** aukera edo bide errazenetik jo.  
*Bai, gaurko igeltseruak-eta samurrenera egitten xuai!  
Heuk be, samurrenera egin dok!*

37. **Sororik soro ibilli:** noraezian ibilli, iparra galduta ibilli.  
*Ai, gure Antonio sororik soro xabik pa!  
Sororik soro ibilli gintzuan illunetan, sendia topau eziñik!*



38. **Txindurrirtu edo txindurtu (gorputz atal bat):** atal hori odol zirkulaziño barik geratu.  
*Butakan etzindda, hankia txindurrirtu egin xat.  
Eskua txindurrirtuta dakotenez, masaje batzuk emun bihar xat.*

39. **Ulia tentetu:** buruko ulia zutik jarri.  
*Aittajaunaren kontuak entzuten ulia tentetu xaten.  
Maixua sartzen zanian, ha zuan ona ha, danak ulia tente!*



40. **Zintz egin:** mokuak ataraterazkuan egitten doguna.  
*Hala, zintz egin gogor!  
Aber, egin zintz sudurrok garbittu alde!*



ARGITASUNA

*efun*

Zubibbarri, 2  
943 71 64 28

20560 OÑATI  
(Gipuzkoa)

CMC

SANTA CRUZ, S.A.

Goribar, 5  
Tfnoa: 78 10 06  
Faxa: 78 33 36  
20 560 OÑATI  
Gipuzkoa

- Burdinlanak
- Galdaragintza
- Errementeria
- Ate metalikoak
- Egitura metalikoak

# ttirri-ttarra



## GOGUAN HARTU:

Oraingo alian, ikasteko samurrago izan dedin, errebista honetan 67, 68, 69, 70 eta 71 numeruetan urtendako **Nor** sistemako aditz edo berbuen forma neutruak ifinttia pentsatu dogu. Forma alokutibuen (hika) eta xehetasun gehixagoren barri izan gura dauenak jo deixela aittatutako numerueta.

### IZAN

	Orainaldixa		Lehenaldixa
Ni	naiz	Ni	nintzan
Hi	haiz	Hi	hintzan
Ha	da	Ha	zan
Gu	gara	Gu	giñan
Zu	zara	Zu	ziñan
Zuek	zarai	Zuek	ziñain
Hareik	dira	Hareik	ziran

### EGON

	Orainaldixa		Lehenaldixa
Ni	nago	Ni	neguen
Hi	hago	Hi	heguen
Ha	dago	Ha	eguen
Gu	gagoz	Gu	gegozen
Zu	zagoz	Zu	zegozen
Zuek	zagozai	Zuek	zegozein
Hareik	dagoz	Hareik	egozen

### FAN

	Orainaldixa		Lehenaldixa
Ni	noia	Ni	noian
Hi	hoia	Hi	hoian/hoianan
Ha	doia	Ha	zixoian
Gu	goiaz	Gu	goiazen
Zu	zoiaz	Zu	zoiazen
Zuek	zoiazai	Zuek	zoiazain
Hareik	doiaz	Hareik	zixoiazen

### ETORRI

	Orainaldixa		Lehenaldixa
Ni	nator	Ni	netorren
Hi	hator	Hi	hatorren/hatorranan
Ha	dator	Ha	etorren
Gu	gatoz	Gu	getozen
Zu	zatoz	Zu	zetozen
Zuek	zatozai	Zuek	zetozain
Hareik	datoz	Hareik	etozen

### IBILLI

	Orainaldixa		Lehenaldixa
Ni	nabil	Ni	nebillen
Hi	habil	Hi	hebillan
Ha	dabil	Ha	ebillen
Gu	gabiltz	Gu	gebiltzen
Zu	zabiltz	Zu	zebiltzen
Zuek	zabiltzai	Zuek	zebiltzain
Hareik	dabiltz	Hareik	ebiltzen

## Cartonajes Arregi, S.A.



• Kartoi ondulatuen fabrikazioa  
 • Enbase eta enbalajeen fabrikazioa  
 Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
 Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI




Zigorrola, 1 • ARRASATE  
 Tel.: 943 71 20 02  
 Faxa: 943 79 65 65

BADAKIK ZEINTEK DIRAN  
MUNDUAN ALPERRIK GALTEN  
DIRAN HIRU GAUZA?



URRIÑELLO SUEGURRA,  
NAGIXEN INDDARRA ETA  
POBRIEN ARRAZOIA



## ASMAU:

Hil honetako pregunta edo galderia hauxe dozue:

Zer da "marmazittan ibilttia" edo "marmarrian jardutia"? Esate baterako:

- Lana egitteko esan xaue eta marmazittan hāsi da.
- Zer dabitzue ahopeian marmazika?
- Andres hortik aurrera fan dok marmazi baten
- Marmar egittiari itzi eta ekin lanari!
- Hāsi ikasten hainbeste marmar egin barik
- Hor dabil marmar eta marmar.

## EUKI ADITZA

### Orainaldixa

Alokutibuak(hika)


Nik	dakot	xakuat	xakonat
Hik	dakok/dakon		
Harek	dako	xakok	xakon
Guk	dakogu	xakuagu	xakonagu
Zuk	dakozu		
Zuek	dakozue		
Hareik	dakoi	xakuai	xakonai

### Lehenaldixa

Nik	neukan	ñakuan	ñakanan
Hik	heukan/heukanan		
Harek	eukan	xakuan	xakanan
Guk	geukan	giñakuan	giñakanan
Zuk	zeukan		
Zuek	zeukain		
Hareik	eukain	xakucain	xakonain

Adb:

- Laguna 1: Jo, hik dakok lo-mosua, hik!  
Laguna 2: Bai, eñakuan jaikitteko gogorik eta hamabixak jo xostai ohian.  
Laguna 1: Hori dok sanidadia dakokena! Orain badakok gogorik bueltatxo bat egitteko, Ugaztegi aldetik-edo?  
Laguna 2: Bueno, bueno itzi egidak bakian, orain etxakuat bape gogorik-eta!  
Laguna 1: Fan zan astian be ez heukan gogorik, igualtxo heguen. Noiz eukiko dok pa gogua, zahartutakuan?  
Laguna 2: Bueno, bazkalostian egingo dostat dihar eta fango gaittuk bueltatxo hori egittera.




- Pinturak orokorrean
- Estukoak
- Patinatuak
- Gotele
- Paperak
- Eskulanak
- Egurrarentzako babesgarriak
- Moketa eta Sintasola

Apalaza, 4 behea • Tel. 78 14 73 - 71 60 64



- Loreak
- Landareak
- Keramika
- ...
- Portu Kalea
- Tfnoa: 78 22 41

# ttirri-ttarrri



EZTAKIKOLA  
ALA ETXAKOLA  
KOMENI  
JAKITTIA??

## GOGUAN HARTU:

### GURA IZAN aditza

	Singularra	Neutra	Ahozkoa	Alokutibuak (hika)
Nik	<b>gura dot</b>	gurot	<i>gura xuat</i>	<i>gura xonat</i>
Hik	<b>gura dok/n</b>	gurok/guron		
Harek	<b>gura dau</b>	gura dau	<i>gura xok</i>	<i>gura xon</i>
Guk	<b>gura dogu</b>	gurou	<i>gura xuagu</i>	<i>gura xonagu</i>
Zuk	<b>gura dozu</b>	gurozu		
Zuek	<b>gura dozue</b>	guruzue		
Hareiek	<b>gura daue</b>	gura daue	<i>gura xuai</i>	<i>gura xonai</i>
		Plurala		
Nik	<b>gura dittut</b>	gurattut	<i>gura (di)txuat</i>	<i>gura (di)txunat</i>
Hik	<b>gura dittuk/n</b>	gurattuk/n		
Harek	<b>gura dittu</b>	gurattu	<i>gura (di)txuk</i>	<i>gura (di)txun</i>
Guk	<b>gura dittugu</b>	gurattugu	<i>gura (di)txuagu</i>	<i>gura (di)txunagu</i>
Zuk	<b>gura dittuzu</b>	gurattuzu		
Zuek	<b>gura dittuzue</b>	gurattuzue		
Hareiek	<b>gura dittue</b>	gurattue	<i>gura (di)txuai</i>	<i>gura (di)txunai</i>

Adb:

- Sasuekoa: *Gabeko hamarrak eta gura ala ez lanera fan bihar, hau markia!*
- Edadekoa: *Zer gura dozu ba, lanik egin barik bizittia?*
- Sasuekoa: *Gura, gura, bai, baiña gura izatia da bat eta ahal izatia beste bat.*
- Edadekoa: *Bueno; bueno, zure edadiarekin eztakozu ardurarik gabaz lanera fateko. Gurako neke neuk pe sasue hōri eukittia!*
- Sasuekoa: *Ba, hainbeste gura baxatzu erregalau egingo dotzut, gero nere partez lanera baldin bazoiaz.*
- Edadekoa: *Gurago milla aldiz zeure sasoa beste ezer baiño, lanerako garien artian ondo gagoz-eta.*

## ASMAU:

Aurreko hilleko preguntiaeren erantzuna hauxe dozue:

“Marmazittan ibiltia” edo “marmarrian jardutia” da baten batengatik, atzetik, ixillixan edo ahopeian, berba egittia. Beste modu batian esanda, Araotzen esate baterako, “murmuxetan ibiltia” esaten xako. Ikusi dagigun zela erabiltten dan:

- *Horreik marmazittan zabiltzak neregatik.*
- *Marmazixari ekin xaue eta nik alde egin dot handik.*
- *Sukaldian marmar egittia samurra da, baiña ez bihar dan lekuan.*

Hil honetako preguntia, berriz, hauxe dozue:

Zer da “hankak jasotia?”

Adb:

- *Atxurrian nerekin batera, etorteko esan nostenian, hankak aguro jaso txuain, hareik eruan xuain orpo jotia!*
- *Gu agertu orduko danak hankak jasota-egozen, han ezeguen inor.*
- *Honeik ezittu teillatuak azpizan harrapoko, beti hankak jasota ibiltten dira-ta.*

**JON**  
ARGAZKIGINTZA  
Kale Barria, 28 behea  
Tfnoa: 78 24 81 OÑATI

**M**  
**MEMESA**  
INDUSTRIA HORNIDURAK

ORAIN  
OÑATI  
BERTATIK

FEMUR  
Kale Zaharra, 62  
20 560 Oñati  
Tfnoa. 943 71 80 80  
Faxa: 943 71 80 45

# Urtarrila



## GOGUAN HARTU:

### GURA IZAN aditza

#### LEHENALDIXA Singularra

	Neutra	Alokutibuak ( hika)	
Nik	Gura neben	<i>gura ñuan</i>	<i>gura ñonan</i>
Hik	Gura hian/hianan	_____	_____
Harek	Gura eben	<i>gura xuan</i>	<i>gura xonan</i>
Guk	Gura geben	<i>gura giñuan</i>	<i>gura giñonan</i>
Zuk	Gura zeben	_____	_____
Zuek	Gura zebein	_____	_____
Hareik	Gura euen	<i>gura xuain</i>	<i>gura xonain</i>

#### LEHENALDIXA Plurala

	Neutra	Alokutibuak (hika)	
Nik	Gura nittuan	<i>gura nitxuan</i>	<i>gura nitxunan</i>
Hik	Gura hittuan/hittunan	_____	_____
Harek	Gura zittuan	<i>gura (zi)txuan</i>	<i>gura (zi)txunan</i>
Guk	Gura gittuan	<i>gura gitxuan</i>	<i>gura gitxunan</i>
Zuk	Gura (zi)ttuzun	_____	_____
Zuek	Gura (zi)ttuzuen	_____	_____
Hareik	Gura zittuain	<i>gura (zi)txuain</i>	<i>gura (zi)txunain</i>

Adb:

Etxekua: Atzo goizian etorri ziran neska-mutillak zer gura euen?

Aldekua: Loterixia saldu guran ebitzen.

Etxekua: Eta erosi zosten?

Aldekua: Gura neben, baiña momentu haretan eneukan dirurik.

Etxekua: Geuk pe numero batzuk gura gittuan, ba.

Aldekua: Gura zebeilla jakittera, zuekana bialduko nittuan.

## ASMAU:

Aurreko hilleko preguntiaren erantzuna hauxe dozue:

“Hankak jasotia” alde egittia edota fatiaren sinonimua da. Honein antzekuak pe badira: *hanka egittia, iges egittia eta ospa egittia*. Ikusi dagigun ejemplo batzuk:


- Zeozer esan ezkeru, *hankak jasoten txuai aguro*.
- Horreik *hankak jasoten apartak dira*.
- Etxian lana daguenian *ezatezai danak hasi hankak jasoten e!*

Hil honetako preguntia, berriz, hauxe dozue:

Zer da “unalian fatia”?

Adb:

- Goazen *unalian, ia merienda egitteko lain topaiten dogun!*
- Larrañako mutiko guztiak *unalian faten giñan Kortabarri aldera*.
- Oraindiok ezta sasoi *unalian hasteko*.




# OÑATI

## Hormigoiak, S.A.

Zubillaga auzoa, z/g (Olano) Tfnoa: 78 29 12

OÑATI



# ttirri-ttarrri



## GOGUAN IZAN

**GURA IZAN** aditza  
(Indikatibua ZER-ZEINERI-ZEINĖK)

### ORAINALDIXA

	<u>Neutra</u>	<u>Alokutibua (hika)</u>	
Nik amari asko	gura XAT	gura TXAT	gura TXANAT
Hik amari asko	gura XAK / XAN		
Harek amari asko	gura XAU	gura TXAK	gura TXAN
Guk amari asko	gura XAUGU	gura TXAU(gu)	gura TXANA(g)U
Zuk amari asko	gura XATZU		
Zuek amari asko	gura XATZUE		
Hareik amari asko	gura XAUE	gura TXAI	gura TXANAI

### LEHENALDIXA

	<u>Neutra</u>	<u>Alokutibua (hika)</u>	
Nik amandriari asko	gura NOTZAN	gura NITXAN	gura NITXANAN
Hik amandriari asko	gura OTZAN		
Harek amandriari asko	gura OTZAN	gura TXAN	gura TXANAN
Guk amandriari asko	gura GOTZAN	gura GITXAUN	gura GITXANAN
Zuk amandriari asko	gura ZOTZAN		
Zuek amandriari asko	gura ZOTZAIN		
Hareik amandriari asko	gura OTZAIN	gura TXAIN	gura TXANAIN

Adb:

Lagun A :Eztakitzu Patxik zenbat gura xauen Amaiari.

Lagun B :A bai? Zer ba?

Lagun A :Patxik berak kontau dost ezkonguran dabilteilla.

Lagun B :Ezta izango! Konturatuta nenguen bai, Patxi Amaiaren ondorian ebillela aspalditxo honetan.

Lagun A :Ba ikusten denez, alkar oso maitte daue eta datorren udabarrizan, hor urrin barik ezkonduko dira.

Lagun B :Alkarrerri hainbeste gura baxaue ezkonketia onena.

Lagun A :Horixe da, horixe da, sasoiari pikuak !

## ASMAU

Aurreko hilleko preguntiaren erantzuna hauxe dozue:

“Unalian fatia” zera zan: Gaztaiñadi-jabiak bere gaztaiñak hartu ondoren, libre egoten zan geratu-tako gaztaiña-aliak batzeia eta lan horretara auzoko mutiko kuadrillak faten ei ziran *unalian*, hau da, ugazabak batu barik itxittako aliak jasotera.

Adb:

- *Unalian egitteko hartu dagigun poltsa bana.*

- *Unalian faten giñan Domu Santua pasau eta gero.*

- *Unalian hasi aurretik berba egin egizue baserriko jaunarekin.*

Hil honetako preguntia, berriz, hauxe dozue :

Zer da “senper lan egittia”? Esate baterako:

- *Orduan lana senper egitten geben.*

- *Gaur be lana egin biharko da, baiña ez senper orduko moduan.*

- *Gabon Zahar egunian senperrenak egin gittuan lana akabaitteko, baiña hamarrak jo oskuein eta artian ezin modutu, eta gaur be fan egin bihar.*

## MA. CARMEN

OSASUNA ETA EDERGINTZA

- ELEKTROLOGIA, Depilazio elektrikoa, Blend Sistema
- DEPILAZIOA, Erabilera bakararako Argizari BERO zein EPELAREKIN
- LIFTINGa
- ELEKTRO ESKULTURA
- SOLARIUM AZKARRA
- MESOTERAPIA-BUZZINA



San Lorentzo, 4 behea • Tfnoa: 78 08 86 - 78 14 07 (Etxekoa) OÑATI



## MIZKE

Gozotegia

- Gozoki eta fruitu eiharrak.
- Ezkontza, bataio eta lehenengo jaunartzerako enkarguak hartzen dira.

Kale Zaharra, 3  
Tfnoa: 78 28 14


KOPATXUA BIHAR DOK?

**tirri-tirri**

40



BIHAREZ, GURA BAI!



## GOGUAN HARTU

BIHAR IZAN aditza. Indikatibua

ORAINALDIXA . Singularra

	Idatziz	Ahoz	Alokutibuak (hika)	
Nik	bihar dot	biot	bihar xuat	bihar xonat
Hik	bihar dok/n	biok/bion	—	—
Harek	bihar dau	bia dau	bihar xok	bihar xon
Guk	bihar dogu	biou	bihar xuagu	bihar xonagu
k	bihar dozu	biozu	—	—
Zuek	bihar dozue	biozue	—	—
Hareik	bihar daue	bia daue	bihar xuai	bihar xonai

Alokutibuak ahoz: *Biauxuat, biaxonat, biaxok, biaxon, biaxuagu, biaxonagu, biaxuai, biaxonai.*

ORAINALDIXA. Plurala

	Idatziz	Ahoz	Alokutibuak (hika)	
Nik	bihar dittut	bittut	bihar (di)txuat	bihar (di)txumat
Hik	bihar dittuk/n	bittuk/bittun	—	—
Harek	bihar dittu	bittu	bihar (di)txuk	bihar (di)txun
Guk	bihar dittugu	bittu(g)u	bihar (di)txuagu	bihar (di)txunagu
Zuk	bihar dittuzu	bittuzu	—	—
Zuek	bihar dittuzue	bittuzue	—	—
Hareik	bihar dittue	bittue	bihar (di)txuai	bihar (di)txunai

Alokutibuak ahoz: *Biatxuat, biatxunat, biatxuk, biatxun, biatxuagu, biatxunagu, biatxuai, biatxunai.*

Adb:

Semia: *Titulaziño hori eskuraketako zer ikasi bihar da aitta?*

Aitta: *Lehenengo ondo ikasi bihar dittuzu oraingo eskolako-mailla tiak, gero Mondraguen hasteko.*

Semia: *Eta dibujua ikasi biharko dot Mondraguen?*

Aitta: *Dibujua bihar-biharrekua izango dozu eta gai horretan fin jokatu biharko dozu.*

Semia: *Eta matematikak?*

Aitta: *Bai, horixe! Injinerua izan bihar badozu matematikai gogor ekin biharko dostezu.*

Semia: *Besterik landu biharko dot?*

Aitta: *Ez larritu mutil, egunian egunian fango zara ikusten zer biharko dozun.*

## ASMAU

Aurreko hilleko preguntia erantzuna hauxe dozue:

“Senper lan egittia” gogotik lan egittia da, lana baltz edo latz egittia. Esango geke horrela lan egitten dauenak erlojuari begiraketako asti barik lana egitten dauela, deskantsu barik. “Senperrenak egittia”, berriz, sekulakuak edo egundokuak egittia da.

Adb:

- Orduan lana senper egitten zan, zapatu arratsaldetan be bai.

- Gaurko egunian be lana senper egitten da, ez pentsau!

- Senperrenak egindda azkenian akabo geben lan ha be.

Hil honetako preguntia, honako hau dozue berriz: Zer esan gura dau “Biharko!” (ahoz: *biako!*) espre-siñuak?

Adb:

- Egin esaten dok? Biharko egin, orduan etxaguan barriketarik!

- Bazkarixa zeuk egin dozu? Biharko! Hona ez da beste inor etorri.

- Hainbeste umerekin, biharko espabilau!

ARGITASUNA

*efaña*

Zubibarri, 2  
943 71 64 28

20560 OÑATI  
(Gipuzkoa)

Begoña   
Mertzeria

Atzeko Kalea, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI

Begoña   
Edertasun Zentrua

- Solariuma
- Pedikurak
- Depilazioak
- Aurpegirako eta gorputzerako tratamenduak

Atzeko Kalea, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI




# Itirri-ttarra

41



IKUSTEN  
DOK XI'MON,  
MOZOLO-MOZOLO  
ETA AZENIAN  
HERRIKO NESKARIK  
EDERRENAREKIN  
EKKONDU!!



HORREK  
JO XASKUK  
AZAAK!!

## GOGUAN HARTU

### BIHAR IZAN aditza. Indikatibua

#### LEHENALDIXA . Singularra

Idatziz	Ahoz	Alokutibuak (hika)	
Nik	bihar neben	bianeben	bihar ñuan      bihar ñonan
Hik	bihar hian/hianan	biahian/biahianan	_____
Harek	bihar eben	biaeben	bihar xuan      bihar xonan
Guk	bihar geben	biageben	bihar giñuan      bihar giñonan
Zuk	bihar zebein	biazebein	_____
Zuek	bihar zebein	biazebein	_____
Hareik	bihar euen	biaeuen	bihar xuain      bihar xonain

Alokutibuak ahoz: *Biañuan, biañonan, biaxuan, biaxonan, biagiñuan, biagiñonan, biaxuain, biaxonain.*

#### LEHENALDIXA. Plurala

Idatziz	Ahoz	Alokutibuak (hika)	
Nik	bihar nittuan	bianittuan	bihar nitsuan      bihar nixuman
Hik	bihar hittuan/ bihar hittunan	biahittuan/ biahittunan	_____
Harek	bihar zittuan	biazittuan	bihar (zi)txuan      bihar (zi)txuman
Guk	bihar gittuan	biagittuan	bihar gitxuan      bihar gitxunan
Zuk	bihar (zi)ttuzun	biattuzun	_____
Zuek	bihar (zi)ttuzuen	biattuzuen	_____
Hareik	bihar zittuain	biazittuain	bihar (zi)txuain      bihar (zi)txunain

Alokutibuak ahoz: *Bianitxuan, bianitxunan, biatxuan, biatxunan, biagitxuan, biagitxunan, biatxuain, biatxunain.*

#### Adb:

Zaharra: Orduko umiak gaurkuen aldian gutxi bihar izaten giñuan ondo pasaitteko.

Gaztia: Zerekin jokaketan zebein ba?

Zaharra: Pelota-lekura fan eta han pelotaren bat egon ezkerro, nahikua izaten zuan guretako; kanikekin be bai, tronpuarekin igual...

Gaztia: Eta libururik edota erosittako jostailurik etzebein bihar izaten?

Zaharra: **Bihar** esaten dok? Ezta burutik pasau be! Sasue hartan liburuak elizakuak eta jauntxuen etxietan zittuan bakarrik, eta jokuak esan dostatenak.

Gaztia: Bai, gaurko egunian biharra sortu eragin doskue, eta orain ezin bizi jostailu moderno horreik barik.

## ASMAU

Aurreko hilleko preguntziaren erantzuna hauxe dozue:

“**Biharko**”(ahoz: *biako!*) espresiuak derrigorrez egin biharra, gurataez egin biharra adierazten dosku, erderazko *¡Que remedio!* espresiuaren ordain litzake berau.

Adb:

- Urbixako fondia biharko txukun eduki. Jentia exijentia da gero!

- Hemen arretia biharko eduki, jende asko etorten xakuta!

- Ganoria esaten dozu? **Biharko**, bestela jai dago hemen!

Hil honetako preguntia, berriz, honako hau dozue:

“**Azaak jotia**” edo “**Azaak emutia**” espresiuak zer esan gura dau?

Adb:

- Azkenengo elekziñuetan PPK irabazi; Aznarrek emun dotzue azaak!

- Zapatu gabetan herrixa hondaketan dabiltezin horreik bai joten doskueilla azaak!

- Errealak aurtengo ligan joko dosku azaak!

## VGARTE PENTSVAK

AITOR UGARTE LIZARRALDE

**Pentsuak • Ongarriak • Haziak  
Irinak eta deribatuak  
Produktu Fitosanitario**

**Denda:** Kale Barria, 2 Tfnoa: 78 03 04

**Biltegia:** Aozaraza, 2 Tfnoa: 78 18 09

ONATI



**Arrizabalaga AROZTEGIA**

BEREZAO INDUSTRIALDEA 10 TEL. 78 14 64

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



**PAKITA Altzariak**


# ttirri-ttarr

CANDANCHU  
ASTUN  
FORMIGAL  
PANTICOSA  
CERLER

BAQUEIRA BERET  
LUZ ARDIDEN  
CAUTERETS  
SAINT MORITZ  
VAL DI AOSTA

GURE SASOIAREKIN, AUTOMOBIL HONEKIN ETA  
POLTIKO BERUAREKIN... ETXAGOK KUIDAURIK!

Non da gure gogua,  
han da gure zauria



## GOGUAN HARTU

GOGUAN HARTU:  
BIHAR IZAN aditza

*Bihar + izan* aditz konposatuak esan-gura bat baiño gehiago dako:

- 1.- **Premiñia. Esate baterako:**
  - Dirua bihar dot.
  - Zapata pare bat bihar dau ezkontzarako.
  - Ogirik bihar dozu?
  - Egun batzuk bihar ditue kanpora fateko.
- 2.- **Obligaziñua. Esate baterako:**
  - Gaur Petrarekin egon bihar dot.
  - Ikasi egin bihar dozu.
  - Ameriketako osabari karta bat idatzi bihar xat.
  - Ardixak billatu bihar ditut illundu aurretik.
  - Ondo egin bihar da berba.
- 3.- **Gerua edo etorkizuna. Esate baterako:**
  - Zer egin bihar dozu gaur arratsaldian?
  - Domekan Errealaren partidua ikusi biharko dozue, horregatio!
  - Bakaziño honeitan baserririk be buelta bat egin biharko dot.
  - Zer esan bihar notzun...? A, bai! Ez ahaztu argixa itxungittia.
  - Zergatik ezkoiaz zinera? Gauza bera esan bihar notzun neuk be.
- 4.- **Debekua edo obligaziñorik eza. Esate baterako:**
  - Gaur eztaue lanera fan bihar.

- Eta gizurrik esan bihar.
  - Eztozu izenik emun bihar.
  - Etxako inori kalterik egin bihar.
- 5.- **Zalantza, dudia. Esate baterako:**
    - Maisu horrek Burgoskua izan bihar dau.
    - Joxe eta Petraren alabiak izan bihar dau kontsultia ifiñi dauena.
    - Loreren anaiak izan bihar dau soziua eta berak hartu bihar dosku sarrerak.
    - Etxeberriko frailliak etorri izan bihar xon, fan zan zapatuan Txaketuenian egon ei zuñan-da.
    - Orainguan egin izan bihar xok haundiren bat, etxakixaugu zer pasauko dan.

**Modu inpersonalian edo forma pasibuan sarri entzuten da. Esate baterako:**

- Zela egin bihar da? Hala egin bihar da.
- Bihar eztanen bat egingo dok hik orainddiok.
- Geruago jaixoko zan herriko alkatia izan bihar zana.
- Lanari ekitteko pieza barrixa arratsalderako ekarri bihar xostanai.
- Eskolan euren kontuak esaten ibilli dira. Horreik be esan bihar txuai-ta!
- Izarak jaso bihar daue!

## ASMAU

Aurreko hilleko preguntiaeren erantzuna hauxe dozue:

“Azaak jotia” edo “Azaak emutia” espreñiua “ederra egittia” edo “egin egittekua” espreñiuen parekua litzake.

- Adb:
- Horreik jo doskue azaak!  
= Ederra egin doskue horreik!  
= Horreik egin doskue egittekua!
  - Azaak jo xoskuk horrek!  
= Ederra egin xoskuk horrek!  
= Horrek egin xoskuk egittekua!
  - Azaak emun doskue orainguan!  
= Ederra egin doskue orainguan!  
= Orainguan horreik egin doskue egittekua!

Hil honetako preguntia, berriz, honako hau dozue:

Zela esango zeke beste modu batian “estresauta bizi zariela”?

**Pintxo bereziak • Kafek**  
**IZARRAITZ**  
**taberna**  
**Giro ezinhoba**

Tfnoak: 78 22 47 • 71 61 39 (Etxekoa) OÑATI

**CORTABARRIA INMOBILIARIA**

**API 303**

- Etxebizitzak alokatzeko eta saltzeko.
- Kontratuak
- Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzen tramitazioa.
- Zergen likidazioa.

Kale Barria, 42 behea  
Tfnoa: 78 05 87  
OÑATI

# ttirri-ttarra

43

NUN DA GURE  
GOGUA...



HAN DA GURE  
ZANGUA!

## GOGUAN HARTU

### AHAL IZAN aditza

Ahal izan aditzarekin ahalmena edo posibilitadua adierazten dogu. Zelako aditz nagusia halako laguntzaillia hartzen dau. Adibidez:

- 1.- Gaur berandutxoago arte **GERATU** ahal **NAIZ** zurekin.  
Itxi!, ni bakarrik **IBILLI** ahal **NAIZ**.  
Esan aldekuai **ETORRI** ahal **DIRAN** lagunketara
- 2.- Zela **EGIN** ahal **DITTUZU** holakua!  
**ESAN** ahal **DOSTAZUE** zozzer?  
Egin dauen ebagixori, herriko anbulatorixuan **OSATU** ahal izango **XAUE**.

Bakarrik doaianian **NORK** klaseko aditz laguntzaillia hartzen dau:

Ahal **BADOT**, bixar fango naiz.  
Ahal **BADOZUE**, etorri gurera.  
Ahal **DAUEN** bakoitzian, Bilbora faten da futbola ikustera.

Baiña modu inperpersonalian be entzuten da. Era honetara:

Ahal **DALA**, hoba da autua etxian izteia.  
Lauretarako agertu, ahal **DALA**!  
Ahal **BADA**, egingo da.

Hurrengo domekan, ahal **IZAN EZKERO** behintzat, mendira fango naiz.  
Ahal **DANA** egin ezkeru, nahikua dok.  
Iñork ahal **IZATERA**, Pedrok egingo llukek hau.

Ikusi dagigun orain zela markaitten dan aspektua:

### BURUTUA:

Nahiko goiz **ETORRI AHAL IZAN DA**.  
Patxik esanda **JAKIN AHAL IZAN DOT** egixa.  
Billera hartara denboraz **AILLEGAU AHAL IZAN NINTZAN**.

### EZ BURUTUA:

**ETORRI AHAL BADIRA**, zergatik ez tira ba etorriko?  
Gure neskatilliarri pitxi bat **EROSI AHAL XAT**, pozik egon deixin.  
Orduan tripia **BETE AHAL BAGEBEN**, pozik egoten giñan.

### GERUA:

Donostiako osabak esan dau domekan **ETORRI AHAL IZANGO DALA**.  
Noiz **ENTZUN AHAL IZANGO DOGU** Oñatin Aita Madinaren obraren bat?  
Jabier arotzak **EGIN AHAL IZANGO DOTZU** lan hori.

## ASMAU


Aurreko hillian preguntaitten geben "estresauta bizi naiz" edo "estresauta nago" zela esan leiken beste modu batian. Hona hemen erantzun batzuk:

- Larri nabil.
- Estu nabil.
- Larri eta estu nabil.
- Patxada barik nabil.
- Ittota nabil.
- Ezertarako asti barik nabil.
- Arnasa hartzeko asti barik nabil.
- Lanez gain nabil.
- Burutik gora egindda nabil.
- Neure onetik urtenda nabil.
- Nerbixuak neure onetik urtenda dakot.
- Nerbixuak hartuta nago.

Oraingo honetan berriz, botaten dotzuegun preguntia hauxe dozue:

Zer esan gura dau esaera zahar honek?:

Denboria aldiz, astoz edo zaldiz.



**ZURICH  
INTERNACIONAL  
ASEGURUAK**

M<sup>o</sup> del Mar  
Urrufia Negueruela

Euskadi Etorbidea, 15  
Tfnca. eta Faxa: 78 30 09 OÑATI


## VGARTE PENTSVAK

AITOR UGARTE LIZARRALDE  
**Pentsuak • Ongarriak • Haziak  
Irinak eta deribatuak  
Produktu Fitosanitario**

**Denda:** Kale Barria, 2 Tfnoa: 78 03 04  
**Biltegia:** Aozaraza, 2 Tfnoa: 78 18 09  
OÑATI

# ttirri-ttarra

Oñatin, XAK eta XOK.  
Legazpin, HOK eta MOK  
Antsoain, JATEN eta JATAN  
Bergaran, HAURA eta MAURA  
Mondraguen, JAK eta Jok  
Atxabaltan, pregeTAN eta KanteTAN...



Geure berbetia hobetu guran

Baiña danak be,  
euskera edemian!

## GOGUAN HARTU

### EZIN IZAN aditza

“Ezin izan” aditzarekin ahalmen eza edo ezia adierazten dogu. Aditz honek be, “ahal izan” aditzaren moduan, zelako aditz nagusixa halako laguntzaillia hartzen dau. Esate baterako:

- 1.- Gaur ezin NAIZ GERATU inoiaz be.  
Zapata horrekin IBILLI be ezin ZARA egin!  
Aldekuak dixue ezin DIRALA ETORRI lagun egittera.
- 2.- Ezin DOZUE oia EGIN?  
Horren gaitian ezin DOTZUET argibiderik EMUN.  
Mondraguen ezin DAUE OPERAU eta Bitorixara eruan daue.

Beste aditz nagusi barik doanian, NORK klaseko aditz laguntzaillia hartzen dau:

Etorriko zara? Gurako neke, baiña ezin DOT. Bazoiazai? Ez, gaur ezin DOGU.  
Berak ezin DAUENIAN, baten bat bidalketan dau bere partez.

Baiña modu inperpersonalian be entzuten da. Era honetara:

Ezin DALA dixue, hala ta be ni saiaketara noia.  
Ezin BADA hola, egin dagigun hala.  
Zeuk ezin IZAN EZKERO, besteren bati esan biharko xat.  
Ezin DANA da dana egun batian ikasi.  
Hareik EZIN IZATERA, Pedrogana jo.

Ikusi dagigun orain zela markaiten dan aspektua:

### BURUTUA:

Ezin IZAN DIRA lehenago ETORRI.  
Bertara fan arren, EZIN IZAN DOT ezer JAKIN.  
Billera haretara EZIN IZAN GIÑAN denboraz AILLEGAU.

### EZ BURUTUA:

EZIN BADIRA ETORRI, ezititezela arduratu.  
Orainguan EZIN XAT ezer EROSI.  
Sasoi haretan ogixarekin EZIN BAGEBEN tripia BETE, talua eta tremesa jaten gittuan.

### GERUA:

Agerreko Mirenek esan dau domekan EZIN IZANGO (EZINGO) DALA AGERTU.  
Aurten EZIN IZANGO (EZINGO) DOGU ENTZUN Aita Madinaren obrarik.  
Arotz horrek EZIN IZANGO (EZINGO) DOTZU holako armarixorik EGIN.

Egoera bat gehitxo edo lartxo dala uste dogunean, aditz nagusixa eta laguntzaillien ordena aldaketan dogu inddarra emuteko. Hola:

Mutillak, EZIN HASARRATUKO GAITTUK horregatik!  
EZIN IBILLIKO GARA hemen beti demandan!  
EZIN EGONGO GARA beti barriketean, zozertan hasi egin biharko dogu.  
Goizian eskatu eta, EZIN ESKATUKO XAUGU berriz arratsaldian.  
Gure edadiarekin EZIN HARTUKO DITTUGU guk ardura guztiak.

## ASMAU

Aurreko hillian preguntaitten geben “Denboria aldiz, astoz edo zaldiz” esaeriaren esanguria zein zan. Hona hemen erantzuna:

Esaera honek esan gura dau denboria badoiala danondako eta fan doiala gaitiera aldika edo sasoika, hau da, ume-denboria, gazte-denboria, zahartzarua eta abar, eurak dakarrein pauso guztiakin: jaixo, hazi, eskolia akabo, heldu, ezkondu, umiak ekarri, zahartu eta hil. Eta denboria ez tala geldiketan, agurotxuago edo polikixuago, baiña danondako doiala.

Oraingo preguntia hau da: Zer esan gura dogu norbaitteri edo zerbaitteri begira gagozela esaten dogunian? Hau da, zer da zetiñeri edo zeri begira egotia?

- Adibidez:
- Amari begira nago.
  - Panaderuari begira zagoz?
  - Nobixiari begira eguen.
- Edadekuak “zetiñeri edo zeri begira egotia” be esaten daue.
- Ogixen begira gerutu dira.
  - Horren begira baldin bazagoz, ondo zagoz!



LENTZERIA

BARRUKO  
LENTZERIA ETA  
KORSETEGIAN  
DOTOREA

Atzeko kale, 13  
Tfnoa: 78 34 44  
OÑATI

## BELAR, S.A.

IRRATI TELEBISTA

- Elektragailu salmenta eta konponketa
- Elektrizitate instalakuntzak eta satellite bidezko telebista.
- Atezain automatikoak
- Goi fidelitatea
- TB

Olakua, 1C behea  
Tfno. faxa: 943 78 06 57  
20560 Oñati



# ttirri-ttarrri

Geure berbetia hobetu guran

## GOGUAN HARTU

### JAKIN ADITZA

#### Orañaldixa (Yo sé)

	Neutraa	Alokutibuak (hika)	
Nik	<b>dakitt</b>	<i>xakixat</i>	<i>xakiñat</i>
Hik	<b>dakik/dakin</b>	—	—
Harek	<b>daki</b>	<i>xakik</i>	<i>xakin</i>
Guk	<b>dakigu</b>	<i>xakixagu</i>	<i>xakiñagu</i>
Zuk	<b>dakitzu</b>	—	—
Zuek	<b>dakitzue</b>	—	—
Hareik	<b>dakixe</b>	<i>xakixai</i>	<i>xakiñai</i>
(Yo ya sé)			
Nik	<b>badakitt</b>	<i>baxakixat</i>	<i>baxakiñat</i>
Hik	<b>badakik/badakin</b>	...	...

#### Lehenaldixa (Yo sabía)

	Neutraa	Alokutibuak (hika)	
Nik	<b>nekixen</b>	<i>ñakixan</i>	<i>ñakiñan</i>
Hik	<b>hekixen</b>	—	—
	<b>hekiñan</b>	—	—
Harek	<b>ekixen</b>	<i>xakixan</i>	<i>xakiñan</i>
Guk	<b>gekixen</b>	<i>xakixagun</i>	<i>xakiñagun</i>
Zuk	<b>zekitzun</b>	—	—
Zuek	<b>zekitzuen</b>	—	—
Hareik	<b>ekixein</b>	<i>xakixain</i>	<i>xakiñain</i>
(Yo ya sabía)			
Nik	<b>banekixen</b>	<i>bañakixan</i>	<i>bañakiñan</i>
	<b>bahekixen</b>	...	...

Adb:

Ama: **Badakitzu** nundik nora dabiltezin gure umiak?

Laguna 1: **Eztakitt** ba nun izango diran.

Ama: **Banoia** ba plaza aldera, ia baten batek **dakixen**... Ikusi dittuzue gure umiak?

Laguna 2: **Eztitugu** ba ikusi.

Ama: **Goraldian inork ezekixen**, plazaldian be ez tira agiri, alguazillengana fan biharko dot, ia eurak zeozer **dakixein**... Goititik behera banator gure umien billa eta inork eztost emun euron argibiderik. Zuekana nator preguntez ia zeozer **dakitzen**.

Alguazilla: **Ba geuk be eztakigu ezer**; inork **jakittekotan**, Arkupeko Pellok **jakingo** dau.

Ama: **Bueno** ba haretxengana fan biharko dot... Pello, guriak ikusi dittuzu?

Pello: **Hareik Usakora** fan dira.

Ama: **Hori jakittera**, Artxubin geratuko nintzan kafia hartzen lagunekin.



Esaera zaharra: Gaztiak baleki eta zaharrak baleuko!

## ASMAU

Aurreko hillian preguntaitten geben zer esan gura dauen **“baten bateri edo zerbaitteri begira egotia”**.

Hauxe dozue erantzuna:

Kasu honetan begira egotia, zain edo itxoitten egotia da.

Adb:

*Amari begira nago = Amaren zain nago.*

*Panaderuari begira zagoz = Panaderuaren zain zagoz.*

*Nobixiari begira eguen = Nobixiari itxoitten eguen.*

Edadekuen artian, barriz:

*Ogixen begira geratu dira = Ogixen zain geratu dira.*

*Horren begira baldin bazagoz, ondo zagoz! = Horren zain baldin bazagoz, ondo zagoz!*

Hil honetako preguntia hauxe dozue:

Zein egoera edo testuingurutan ebaliko zeuke esaera hau?

**Dakixenak badaki, eta eztakixenak baleki!**

## HARITZA



- Paperdenda
- Liburudenda
- Lotoa
- Opariak

Kale Zaharra, 4  
Tfnoa: 78 23 96

## PROFESIONALAK ZURE ZERBITZURA



Lazarraga, 3  
Tfno. (943) 71 62 16  
Fax (943) 71 63 58



20560 OÑATI (Gipuzkoa)

## ONGI ETORRI taberna



Gau giro aparta

Geure berbetia hobetu guran

# ttirri-ttarr

## GOGUAN HARTU

### JAKIN ADITZA BALDINTZAZKUAK

#### Baldintza aurrekoa

	Neutrua	Alokutibuak (hika)	
Nik	baneki	bañekik	bañekin
Hik	baheki/bahekin	—	—
Harek	baleki	ballekik	ballekin
Guk	bageki	bageñekik	bageñekin
Zuk	bazeki *	—	—
Zuek	bazekitzue	—	—
Hareik	balekixe	ballekixei	ballekiñai

\*bazekitzu be asko entzuten da

#### Baldintza ondorixua

	Neutrua	Alokutibuak (hika)	
Nik	jakingo	neuke	*ñukek ñuken
Hik	jakingo	heuke/heukenan	—
Harek	jakingo	leuke	llukek lluken
Guk	jakingo	geuke	giñukek giñuken
Zuk	jakingo	zeuke	—
Zuek	jakingo	zeukie	—
Hareik	jakingo	leukie	llukei llukein

\* ñekek, llekek etab. be ebalten dira.

Adb:

- A: Bixar ze eguraldi egin bihar dauen **bageki**.... mendittik bueltatxo bat egitteko-edo.
- B: Horretarako gabian Andoni Aizpururi entzungo xaugu. Harek antzen bat emungo xau-eta.
- A: Bai berak **baleki!** Baiña sarritan huts egitten dau; ezta samurra eguraldi honi igartia.
- B: Orduan Pello Zabalarri joko xaugu telefonua, eguraldi-lanetan barriz hasitta dago-eta.
- A: Zortzi bat hillabetian itxitta egon da eta, eztaikit pa nik ezer **jakingo dauen**.
- B: **Jakingo ezta ba!** Orainddiok baietz beste danak baiño gehixago igarri!
- A: Ikusten danez berarekin fede haundixa dakozu. Orduan, hots egin telefonoz berari, eta ezer **ezpadaki** Landarengana joko dogu, horrek pe horretan dihardu-eta.



## ASMAU

Aurreko hillian preguntaitten geben zein egoeratan ebaliko geukien esaera hau:  
**"Dakixenak badaki, eta eztaixenak baleki!"**

Hona hemen erantzuna:  
 Esate baterako, egitten baxaugu pregunta bat norbaitteri eta honek ondo eta jakitturixa haundixarekin erantzuten badosku, orduan ebalial ahal izango geuke goixan aittatutako esaeria: **"Dakixenak badaki, eta eztaixenak baleki!"**  
 Dakixenairi bakian itxi bihar xakola esan gura dau honek, jakin dakixelako hain zuzen be, eta eztaixenak barriz, jakin guran edo jakin gosez daguela beti.

Hil honetako preguntia haxe dozue:  
 Zer esan gura dau **"buruzuti egittia"**?

- Adb:
- Kontuz, buruzuti egin barik!
  - Hola bazabiltz buruzuti egin bihar dozu!
  - Buruzuti baietz egin!

## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
 Kale Barria, 11  
 Lizaur A., 7  
 OÑATI  
 Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

### ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK

LANPARAK,  
 TAPIZAK,  
 KORTINAK

## M. CARMEN OSASUNA ETA EDERGINTZA

- ELEKTROLOGIA, Depilazio elektrikoa, Blend Sistema
- DEPILAZIOA, Erabilera bakarreko Argizari BERO zein EPELAREKIN
- LIFTINGa
- ELEKTRO ESKULTURA
- SOLARIUM AZKARRA
- MESOTERAPIA-BUZZTINA



San Lorenzo, 4 behea • Tfnoa: 78 08 86 - 78 14 07 (Etxekoa) OÑATI

# ttirri-ttarra

Geure berbetia hobetu guran



## ASMAU

Aurreko hilleko preguntiaren erantzuna honako hau dozue:

Buruzuti egittia, buruz behera jaustia edo geraketia esan gura dau.  
 Buruzuti botatia, buruz behera botatia.  
 Buruzuti egotia, buruz behera egotia.

Adb:

*Buruzuti egin dau.  
 Aber buruzuti egin eta behera faten zarain!  
 Goitik behera buruzutika edo atxilipurdika etorri ziran.*

Hil honetako preguntia hauxe dozue:

Zer esan gura dau "oriaatu" aditzak?

Adb:

*Oriaatu dau.  
 Gaur eztau oriaatuko.  
 Oraindiok eztau oriaatu.*

## GOGUAN HARTU

Oraingo alian, errebista honetako 78. zenbakixan NOR sistemako aditzekin egin geben moduan, aurreko 74, 75 eta 79. numeruetan urtendako NORK sistemako EDUN eta EUKI aditzen forma neutruak bakarrik batzea pentsatu dogu. Forma alokutibuen (hika) eta xehetasun gehixagoren barri izan gura dauenak, aittatutako numeruetara jo besterik ezta-ko.

### EDUN ADITZA

<u>Orainaldixa</u>	<u>Lehenaldixa</u>
<u>Singularra</u>	<u>Singularra</u>

Nik	Dot	Neben
Hik	Dok/n	Hian/hianan
Harek	Dau	Eben
Guk	Dogu	Geben
Zuk	Dozu	Zebein
Zuek	Dozue	Zeben
Hareik	Daue	Euen

	<u>Plurala</u>	<u>Plurala</u>
Nik	Dittut	Nittuan
Hik	Dittuk/n	Hittuan/hittunan
Harek	Dittu	Zittuan
Guk	Dittugu	Gittuan
Zuk	Dittuzu	(zi)ttuzun
Zuek	Dittuzue	(zi)ttuzuen
Hareik	Dittue	Zittuain

Esaterakuan, "ttut"/"ttuk/n" / "ttu" / "ttugu". etab ebalten dira.

### EUKI ADITZA

<u>Orainaldixa</u>	<u>Lehenaldixa</u>
<u>Singularra</u>	<u>Singularra</u>

Nik	Dakot	Neukan
Hik	Dakok/dakon	Heukan/heukanan
Harek	Dako	Eukan
Guk	Dakogu	Geukan
Zuk	Dakozu	Zeukan
Zuek	Dakozue	Zeukain
Hareik	Dakoi	Eukain

\* Oñatieraz EUKI aditzak ezta-ko pluralik.

## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
 Kale Barria, 11  
 Lizaur A., 7  
 OÑATI  
 Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK

LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK



Iturgintza • Berogailuak •  
Bainu altzariak

Arantzazuko Ama kalea, 21 behea • OÑATI • Tfnoa: 71 62 00

Geure berbetia hobetu guran

# ttirri-ttarri b

## ZUZENDU

Oraingo honetan -ADA(ara) / -KADA(kara) atzizkixaren gaiñian zertxobait esango dogu erderakada askorentzako bide emuten dau-eta. Sarritan erderazko -ADA atzizkixa dagoen dagoenetan izten dogu euskeraz berba egitten dogunian eta hor sortzen dittugu erderakadok. Ikus dagigun holako ejenplu batzuk:

*Txokolatadia, gaztaiñadia, primadia, tripadia,...* eta abar.

Berba honeik esateko usarixo zaharrian baziran beste modu batzuk. Adb:

*Txokolate-jana, gaztaiña-jana.*

Era berrian:

*Baba-jana, sardiña-jana, bildots-jana, bakaillau-jana, buzkantz-jana, perretxiko-jana, tripaki-jana, saiheski-jana, txitxarro-jana, txipiroi-jana, talo-jana,...* eta abar.

Batzuetan, hala be, "jana" horrekin beste esangura batzuk adierazten dittugu. libidez:

*Ganadu-jana:* Ganaduak gobernaitteko ekarten dan jana: bedar berdía edo igarra, arbixa, erremolatxia, artapuntia,...

...eta abar.

*Txakur-jana:* Txakurrari emuten xakon jana.

*Txarri-jana:* Bi zentzu euki leike: a) txarrixari-emuten xakon jana. b) janari txarra edo eskaxa.

Oso modu zihazzetan be ebalten dogu "jana", esaldixari inddarra emuteko:

*Ogi-jana:* Hau dok ogi jana egin duana!

*Ardau-jana:* Hau da arda u jana egin doguna!

*Esne-jana:* Hau da esne jana egin bihar doguna!

Danak eztira, hala be, modu horretan itzulketan. Ikusi dagigun beste era batekuak:

\**Primada* esateko hobeto egongo litzake "primo-bazkarixa edo lehengusu-bazkarixa".

"primo-afarixa edo lehengusu-afarixa".

\**Tripada:* Pizinan hartzen dogun kolpia bada: *tripakua*.

Asko jatia bada: *tripakadia*.

Erderazko -ADA atzizkixaz akabaitten diran zenbait berba, euskeraz ERIXIA atzizkixarekin esaten dittugu. Adibidez: *Chorrada, gansada eta era horretakuak.*

*Lerdokerixia, lelokerixia, alukerixia, hauspokerixia, kaikukerixia, ahoberokerixia, txorakerixia,...* eta abar.

Badagoz erderaz -ADA eta euskeraz -KADA diranak. Esate baterako:

*Patada: ostikada; redada: sarekada; pedrada: harrikada; corazonada: bihozkada; dentellada: haginkada; panzada: tripakada,...* eta abar.

Baiña badagoz, euskeraz ordaiñik eztakoin berbak bè eta erderaz lez esaten dittugunak. Esate baterako:

*Parrilladia, barrikadia, danborradia,...* eta abar.



## ASMAU

Aurreko hilleko preguentiaren erantzuna hauxe dozue:

Oriaatu edo oriaaketia, laiñotu edo laiñoketia esan gura dau. Adb:

*Oriaaketara doia: Laiñoketara doia.*

*Oriaatu dau: Laiñotu dau.*

*Oriaaketan baxok, eurixa egingo xok: Laiñoketan baxok, eurixa egingo xok.*

Hil honetako preguentia beste hau dozue:

Esan egizu beste modu batian ondo-rengo ejenpluetan agerketan dan "alkar hartu" aditza. Adb:

*Horreik ze ondo alkar hartzen dauen!*

*Anaiak moduan alkar hartzen daue.*

*Anai-arrebak moduan alkar hartu biharko llukei.*

## M<sup>te</sup>. CARMEN OSASUNA ETA EDERGINTZA


- ELEKTROLOGIA, Depilazio elektrikoa, Blend Sistema
- DEPILAZIOA, Erabilera bakarreko Argizari BERO zein EPILAREKIN
- LIFTINGa
- ELEKTRO ESKULTURA
- SOLARIUM AZKARRA
- MESOTERAPIA-BUZTINA



San Lorenzo, 4 behea • Tfnoa: 78 08 86 - 78 14 07 (Etxekoal) OÑATI

## IRAZOLA

Indusketak  
Lurkente-lanak



Larraña auzoa, 44.  
OÑATI Tfnoa: 943 78 25 97





## ASMAU

Aurreko hilleko preguntiaeren erantzuna hauxe dozue: "alkar hartu" aditz-lokuzifikuak, ondo konpondu edo ondo eruan esan gura dau. Adb:

- Aitta-semiak eztaue ondo alkar hartzen.
- Alkar ondo hartu biharko leukienak, beti hasarre dabiltz.
- Alde batekuak eta bestekuak alkar hartuta, bake-bidia egingo dozue.

Hil honetako pregunta edo galderia hauxe dozue:

- Zer da **txintxona** edo **ziburua**? Adb:
- Guazen ziburuetan ibiltera.
  - San Martinen ziburu barrixak ifiñi biharko leukie.
  - San Lorentzon ei doiaz ziburu barrixak ifinttera.
  - Txintxonian ibilliko gara?

## GOGUAN HARTU

### EKARRI ADITZA

#### Orainaldixa

	Neutra	Alokutibuak(hika)	
Nik	<b>dakart</b>	<i>xakarrat</i>	<i>xakarnat</i>
Hik	<b>dakark/dakarn</b>	-	-
Harek	<b>dakar</b>	<i>xakark</i>	<i>xakarn</i>
Guk	<b>dakargu</b>	<i>xakarragu</i>	<i>xakarnagu</i>
Zuk	<b>dakartzu</b>	-	-
Zuek	<b>dakartzue</b>	-	-
Hareik	<b>dakarrei</b>	<i>xakarrai</i>	<i>xakarnai</i>

#### Lehenaldixa

	Neutra	Alokutibuak(hika)	
Nik	<b>nekarren</b>	<i>ñakarran</i>	<i>ñakarnan</i>
Hik	<b>hekarren</b>	-	-
Harek	<b>ekarren</b>	<i>xakarran</i>	<i>xakarnan</i>
Guk	<b>gekarren</b>	<i>geñekarran</i>	<i>geñekarnan</i>
Zuk	<b>zekarren</b>	-	-
Zuek	<b>zekarrein</b>	-	-
Hareik	<b>ekarrein</b>	<i>xakarrain</i>	<i>xakarnain</i>

\*Oñatieraz EKARRI aditzak eztauko pluralik.

**Oharra:** Zuztarreko "r" horreik eztira batzuetan entzuten: *dakat, dakak, dakan, xakanat, xakak, xakan, xakanau, ñakanan, xakanan, geñekanan, xakanain.*

Adb:

Laguna 1: *Joño, bizi haiz! Zer dakark?*

Laguna 2: *Zaharrak barri. Badakitzu, mundu honek lehengo lepotik burua!*

Laguna 1: *Barri gehixago eztakartzue aste danian hortik zihar ibillitta?*

Laguna 2: *Ba zer esango dotzut pa, etxequak-eta ondo, eta kalia be ezot ezer apartekorik entzun.*

Laguna 1: *Eta periodikua badakark?*

Laguna 2: *Bai, hemen dakart.*

Laguna 1: *Behi zoruen konturik baxakark?*

Laguna 2: *Ez, gaur eztakar halakorik; atzokuak ekarren.*

Laguna 1: *Ederki ba! Bueno, sartu barrura eta mokadu bat egin dagigun, honezkero gosetuta egongo haiz-eta.*

## ELORZA

Burdindegia eta brikolajea

Kale Barria, 17 Tfnoa: 78 07 80  
OÑATI

## IRIZAR ESTANKOAN

LOTERIAK

Foruen enparantza, 6 • Tfnoa: 78 00 15  
20 560 OÑATI (Gipuzkoa)

Geure berbetia hobetu guran

# ttirri-ttarro

## GOGUAN HARTU ERUAN ADITZA

Orainaldixa

	Neutraa	Alokutibuak(hika)	
Nik	d(ar)oiat	x(ar)oiat	x(ar)oiangat
Hik	d(ar)oiak/n		
Harek	d(ar)oia	x(ar)oiak	x(ar)oian
Guk	d(ar)oiagu	x(ar)oiagu	x(ar)oianagu
Zuk	d(ar)oiatzu		
Zuek	d(ar)oiatzue		
Hareik	d(ar)oie	x(ar)oiat	x(ar)oianat

### Oharrak:

- Oñatieraz ERUAN aditzak eztako pluralik.
- Esaterakuan zuztarreko (ar) hori galdu egitten da gehixenetan eta "doiak", "xoiak" edo "xoiak" lako formak entzuten dira.
- Lehenaldiko formak eztirudi gaur egunian ebalten diranik eta, hobeto konprobau arte, eztittugu kontuan hartuko.

Adb:

- A: Nora doiazue armarixo hori?  
 B: Kamarara doiagu.  
 A: Han lehen be nahiko traste dago ba, eta hoba izango dozue bertan izteia beste inora eruan barik.  
 B: Eta sotanora eruanda, zer moduz? Han leku gehixago egongo da.  
 A: Ezta pentsau be! Han, berri, umedadiak joko dau eta dana hondatuko xaku.  
 B: Orduan eztakit zer egin biharko dogun armarixo zahar honekin, geure gelan be traban dago-eta!  
 A: Bueno trankil egon; esan arotzari eruateko, eta harek ezpadoia, hillaren bigarren eguenian herrikuak eruango daue.



## ASMAU

Aurreko hilleko pereguntziaren erantzuna hauxe dozue:

“Txintxona” edo “ziburua” inguru honeitan kolunpixuari esan izan xako. Adb:

Txintxon bat ifiñi bihar dot etxe aurrekaldian. Auzo danian eztago ziburu alerik be. Ziburuetan ibilli gura badozue, fan zatezai San Lorentzo aldera.

Hil honetako pereguntzia hauxe dozue:

Zer da “arrosiña” eta zela esango zeuke beste modu batian?

Arrosinka hago, bart lo gutxi egindda ala? Arrosin luzia, loguria ala gosia? Arratsalde dana arrosin batian pasau neben. Arrosinka hasi naiz eta uhera fatia izango dot onena.



# KOROSTI KAFEA

KOROSTI KAFE DENDAK, KAFE TOSTATU BERRIA  
DASTATZERA GONBIDATZEN ZAITU

Kale Nagusia, 20 (XIGOR-DENDA) Tel.: 943 73 36 56 LEGAZPI  
Bidebarrieta, 13 Tel.: 943 78 04 20 OÑATI

**ZUBI LAST S.L.**


**LEIHO ISOLAGARRIAK**  
 • PVC alemaniar sistema  
 • Aluminio Termikoa

Zubillaga industrialdea  
 Tfnoa: 71 61 89 OÑATI

# ttirri-ttarra

Geure berbetia hobetu guran

51



## GOGUAN HARTU

### JARDUN ADITZA

#### Orainaldixa

	Neutra	Alokutibuak(hika)	
Nik	dihardut	xiharduat	xihardunat
Hik	diharduk/diardun		
Harek	dihardu	xiharduk	xihardun
Guk	dihardu(g)u	xihardua(g)u	xiharduna(g)u
Zuk	diharduzue		
Hareik	dihardue	xiharduai	xihardunai

#### Lehenaldixa

	Neutra	Alokutibuak(hika)	
Nik	niharduen	ñiharduan	ñihardunan
Hik	hiharduan/hihardunan		
Harek	ziharduen	xiharduan	xihardunan
Guk	geniharduen	giñarduan	giñardunan
Zuk	zeniharduen		
Hareik	ziharduein	xiharduain	xihardunain

Adb:

A.- Badiharduk?

B.- Bai, hementxe dihardut egurrak txipiketan.

A.- Horretarako giro hobia xagok!

B.- Bai, horixe! Norbera beroketako egurrak txipiketia lako lanik eztaguela!

A.- Zertan xiharduai, ba, bestiak?

B.- Bata ganaduak gobernaitten eta bestia erremolatxia miazketan.

A.- Eta aittajuna nondik nora xabik?

B.- Hor sukaldian topauko dozu, arratsalde danian artua irakurten dihardu.

A.- Bueno, orduan noian sukaldera, artua irakurten diharduenari lagunketara.



KULTUR ETXIA BE  
BARRIZKETAN  
XIHARDUAI.

KULTURETXIA  
BARRIZKETIAREKIN  
ZER EGITEN XVAGU BA,  
LEHENGUAREKIN  
EZKI NA KUAN  
NAHIKUA ALA?  
PLAZAKO FELOTALEKUA  
KONPONKETAN  
BALLIHARDUAI  
SIKIERA!!

## ASMAU

Aurreko hilleko preguentiaren erantzuna hauxe dozue:

“Arrosiña” da loguratuta edo gosetuta gagozenian agua zabalduaz egitten dogun imintziñua. Beste modu batian “agozabalka” be esaten da. Adb:

- Bazkalostian beti arrosinka ibiltten naiz.
- Ume hori arrosin batian dago eta uherra eruan biharko dogu.
- Arrosin egin eta arrosin egin, hau da eguna doiatena!
- Goizeko hamarrak eta oraindiok agozabalka!


Hil honetako pregunta edo galderia hauxe dozue:

Hainbat aldiz “(i)gualeko” konparaziozko terminua ebalten dogu berba egitterazkuan, zer esan gura dau berba horrek? Ikusi dagigun ejemplo batzuk:

*Igualeko bizi gaittuk hemen!*

*Igualeko goiaz trenian!*

*Kataian aldian igualeko ibilliko haiz ofiziñan!*



**ZURICH  
INTERNACIONAL  
ASEGURUAK**

M<sup>o</sup> del Mar  
Urrutia Negueruela

Euskadi Etorbidea, 15  
Tfnoa. eta Faxa: 78 30 09 OÑATI



**ARKAUZ  
OPTIKA**

**Optiko-Optometrista**

Lazarraga, . Oñati Tfnoa: 71 60 63

# Tirri-ttarra

Geure berbetia hobetu guran



ONATIARRAK BE, BAXIHARDUAI EUREN EUSKERIA LANTZEN!

TIRIKI,TAUKI,TAUKI  
 MAILLAREN HOTSA.  
 TIRIKI,TAUKI,TAUKI  
 MAILLAREN HOTSA.  
 HAMAIKA ADITZ LANTZEN  
 GOGOTIK GABILTZA  
 Ai,oi,Ai,  
 GOGOTIK GABILTZA

## Eskerrik asko, Bittosiano!!

### ASMAU

Aurreko hilleko preguntziaren erantzuna hauxe dozue:  
 "(I)gualeko" horrek "askoagatik hobeto", "askoz hobeto", "makina bat hobeto" esan gura dau, hau da, alde ederra edo diferentzia haundixa daguela lehengo egoeratik oraingora.

Adb:  
 • Igualeko habil orain!

- Igualeko hebillan orduan!
- Igualeko gabiltzak eguraldi honekin!
- Gure aitta igualeko xagok operau ezker!

Hil honetako pregunta edo galderia hauxe dozue:  
 Zer da "zankarrankan ibiltia edo fatia"?

Adb:  
 • Zankarrankan be aillegauko nintzake.  
 • Horri zankarrankan be irabaziko neuskio.  
 • Lehenagoko oñatiarrak Kondiarengana zankarrankan-edo hurreraketan ei ziran.

**PROFESIONALAK ZURE ZERBITZURA** 



Lazarraga, 3  
 Tfno. (943) 71 62 16  
 Fax (943) 71 63 58

20560 ONATI (Gipuzkoa)

**MIZKE**  
**Gozotegia**

- Gozoki eta fruitu eiharrak.
- Ezkontza, bataio eta lehenengo jaunartzerako enkarguak hartzen dira.

Kale Zaharra, 3  
 Tfnoa: 78 28 14



## GOGUAN HARTU

### ERABILLI (EBALI) ADITZA

Orainaldixa			
	Neutraua	Alokutibuak (hika)	
Nik	dabitt	xabillat	xabiñat
Hik	dabik/dabin	-	-
Harek	da(ra)bil	xabik	xabin
Guk	dabigu	xabillagu	xabiñagu
Zuk	dabitzu	-	-
Zuek	dabitzue	-	-
Hareik	dabixe	xabillai	xabiñai

Lehenaldixa			
	Neutraua	Alokutibuak(hika)	
Nik	nebillan	nabillan	nabiñan
Hik	hebillan	-	-
Harek	ebillen	xabillan	xabiñan
Guk	gebillan	gebillaan	gebiñaan
Zuk	zebillan	-	-
Zuek	zebillain	-	-
Hareik	ebillein	xabillain	xabiñain

**Oharra:** IBILLI eta ERABILLI aditzen formak nahastu egiten dira gure herrixan eta askotan berberak dira, batez be, lehenaldixan. Oñatiarrok sarritan esaten dogu "ibilli", "erabilliren" lekuan; esate baterako:

- Traje hau **ibilli** dozu? Ez **ibilli** barik dago.
- Gaur goizian lan txarra **ibilli** dogu.
- Zer **ibilli** dozue hor sukaldian? Demandia **ibilli** dozue?

"Erabilli" formaren orde "Ebali" be askok dabixe Oñatin. Eta oñatieran aditz honek ez bako pluralik.

Adb:

A.- Domeka arratsaldia eta guk **xabillagu** martxia: kalian gora, kalian behera. Zuek zertan **zabiltzai**?

B.- Gu hobeto **gabiltzak**.

A.- Bai? Zer **dabitzue**, ba?

B.- Batian kiroldegira eta bestian Usakora, etxakuagu asperketako astirik.

A.- A zer martxia **dabitzuena**! Hola jarraitu ezker, laister Guinness liburu **ebali** biharko xuai zuen izenak sartzeko.

## ASMAU

Aurreko hilleko preguntziaren erantzuna haxe dozue:

"Zankarrankan **ibilttia** edo **fatia**" hanka baten gainean saltoka fatia edo **ibilttia** da eta hortik dator "zankarranketan" esaten xakon jokua. Adb:


- Ume horreik zankarranketan **dabiltz**.
- Orainddiok be zankarrankan fango nintzake Urbixara.
- Baietz irabazi hiri, hi antxintxika eta ni zankarrankan.

Hil honetako pregunta edo galderia haxe dozue:

Zer esan gura dau "nagixak ataratia"? Adb:

- Uhetik jaikitteruzkuan **nagixak** atara bihar dira.
- **Nagixak** ataratia gauzarik onena da iratzarteko.
- **Nagixak** ataratia lakorik eztago ondo **ibiltteko**.

## ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

# FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



GURE ESQUALDEAREN  
ETA EUSKAL HERRIAREN  
ZERBITZUAN

ELKARLANEAN  
DIHARDUEN TALDEA

# ttirri-ttarra

Geure berbetia hobetu guran



## GOGUAN HARTU

### ESAN ADITZA

Orainaldixa		
	Neutraua	Alokutibuak (hika)
Nik	diot	dixuat dixonat
Hik	diok/n	
Harek	dixo	dixok dixon
Guk	diogu	dixuagu dixonagu
Zuk	diozu	
Zuek	diozue	
Hareik	dixue	dixuai dixonai

Lehenaldixa		
	Neutraua	Alokutibuak(hika)
Nik	[niuan]	[nixuan] [nixonat]
Hik	[hiuan] / [hionan]	
Harek	[ziuan]	[zixuan] [zixonan]
Guk	[genioan]	[gixuan] [gixunan]
Zuk	[zeniuan]	
Zuek	[zeniuen]	
Hareik	[ziuen]	[zixuain] [zixohain]

**Oharra:** Gaurregun eztira bat be ohikuak *esan*-en adizki trinkuak. Egixa esateko lehenaldiko formak eztira entzuten. Orainaldikuetan, barriz, *dixo* eta *dixue* dittugu gehixen ebalten diranak. Oñatin ezto-

gu sekula ñ-dun formarik ebalten (*diñot*, *diño* eta antzekorik), *diot*, *dixo*, *dixue* modukuak bai.

Adb:

A.- Zer *dixo* Manek?

B.- Kopia ez irabazi arren, *aurtengo* UEFAn txapeldun moduan geratu dala Alavesa.

A.- Ondo *dixo*, merezidu, ondo merezidu eben behintzat. Eta periodikuetan be horixe *dixue*?

B.- Periodistak pe zoriondu egin daue Alavesa, eta txapelketa danian egin dauen lana goraipatu; azkenengo errematia bakarrik faltau xakola *dixue*.

A.- Halaxe dok, etxagok hori esan biharrik pe; halako txapelketa egin xok egin be!

## ASMAU

Aurreko hilleko preguntiaren erantzuna hauxe dozue:

“Nagixak atarattia” da, uhetik jaieran (jaikitten garienian) edota nasaittu biharrian gagozenian, besuak zabalduaz eta lepua bihurrituaz gorputza luzaketako egitten dogun imintziñua. Adb:

- Ze ondo geratu naizen nagixak atarata!
- Edozein lekutan nagixak atarattia edukaziño faltia ei da.
- Nagixak danok ataraten dittugu, pertsonok nahiz animalixok, gizonak letxe katuak eta txakurrak.

Hil honetako preguntia hauxe dozue:

Zer esan gura dau *alde* izenak era honetako esaretan ebalten dogunian?

Adb:

- Esan, esan alde esango eben.
- Denporia emun alde hemen nabil eskaparatiak ikusten.
- Horrek ezittu gauzak egitten egin alde.

**ELORZA**  
**Burdindegia eta brikolajea**  
 Kale Barria, 17 Tfnoa: 78 07 80  
 OÑATI

**MIZKE**  
*Gozotegia*  
 • Gozoki eta fruitu eiharrak.  
 • Ezkontza, bataio eta lehenengo jaunartzerako enkarguak hartzen dira.  
 Kale Zaharra, 3  
 Tfnoa: 78 28 14

# Itirritarra

Geure berbetia hobetu guran

Mezetan lagunketiarren, txakur haundixa aginddu otzan abadiak mutikuari. Baiña ximurra zan, itxuria, edo emutia ahaztu egin xakon. Hurrengo egunian monagilluak majo gogoratu eragin otzan.



## GOGUAN HARTU

### ERITZI ADITZA

Orainaldixa					
Neutra					
Nik	hari	deritzot	Nik	hareiri	deritzuet
Hik	hari	deritzok/n	Hik	hareiri	deritzuek/deritzone
Harek	hari	deritzo	Harek	hareiri	deritzue
Guk	hari	deritzogu	Guk	hareiri	deritzuegu
Zuk	hari	deritzozu	Zuk	hareiri	deritzuezu
Zuek	hari	deritzozue	Zuek	hareiri	deritzuezue
Hareik	hari	deritzue	Hareik	hareiri	deritzue
Lehenaldixa					
Neutra					
Nik	hari	neritzon	Nik	hareiri	neritzuen
Hik	hari	heritzon	Hik	hareiri	heritzuen
Harek	hari	eritzon	Harek	hareiri	eritzuen
Guk	hari	geritzon	Guk	hareiri	geritzuen
Zuk	hari	zeritzon	Zuk	hareiri	zeritzuen
Zuek	hari	zeritzuen	Zuek	hareiri	zeritzuen
Hareik	hari	eritzuen	Hareik	hareiri	eritzuen

**Oharrak:**  
 - Egixa esateko, gaur egunian oso gutxi ebaltzen da IRITZI aditza forma trinkuetan. Izatekotan, 3. pertsonan eta noizian behin. Kandido Izagirrenerenian esate baterako: *Berak eritzen lekuraño* (99 or.), *Ondo eguela eritzenian* (190 or.).  
 - Aditz honen forma alokutiborik eztozu ifitit, aditz neutruak eurak arraro samarrak egiten baxaku, zer esanik ez hitanuenak. Gaiñera, ifioiz ebaliz izan diranik pe, nork daki? Horrexatik ezttitugu jarri.

Adb:  
 A- Zer eritzen xatzu Deba Goixeneko Lurralde Zatikako Planari?

B- Handigurakua eta desarrollista hutsa eritzen xat.  
 A- Zer ba?  
 B- Tranbia ifinttiari Oñati, Bergara eta Mondraue lotzeko oso ondo eritzen xat, baiña etxat bapebe ondo eritzen Torreauro eta Madalena bittarteko sail guztiak industrialak izendaitiari eta han fabrikak egittiari.  
 A- Eta Larraña, Olabarrieta eta San Martín-Murgixa inguru hori dana etxex jostiari, zer eritzen xatzu?  
 B- Zer eritzen xaten? Ondo ez, behintzat. Nun ibilli bihar xuai zozuak eta birigarruak? Eta geuk nun ibilli bihar xuagu? Hori egin ezkeru, Oñati barik "Manhattan txiki" emungo xok gure herrixonek.  
 A- Eritzixak eritzi inddar ekonomikuak agindduko daue hemen!

## ASMAU

Aurreko hilleko preguntiarren erantzuna hauxe dozue:  
 "Alde" kasu honetan kausal zentzua dako, -(z)egatik kausalaren sinonimua. Adb:  
 - Arratsaldia emun alde Urbixaraiño etorri gara.  
 - Ez pentsau harek gauzak esaten zittuanik esan alde; gauzak zorrotz bai zorrotz esan!  
 - Kilo batzuk bajau alde pasio bat egitten dot egumero  
 Hil honetako preguntia hauxe dozue:  
 Zer esan gura dau "onenian" testuinguru honetan? Adb:  
 - Belokik Eugiri, onenian, irabazi egingo xau.  
 - Etxakixat baiña, onenian, erosi egingo xuat automobil hori.  
 - Korpusetan etorriko zarai Oñatira? Onenian, fan egingo gara.

Burdindegia  
**Donika**  
 Industria Homidurak  
 Goriabar auzoa, z/g. OÑATI  
 Tfnoa.: 943 780745 • Faxa: 943 781175

**M. CARMEN**  
 OSASUNA ETA EDERGINTZA  
 • ELEKTROLOGIA, Depilazio elektrikoa, Blend Sistema  
 • DEPILAZIOA, Erabilera bakarrek Argizari BERO zein EPELAREKIN  
 • LIFTINGa  
 • ELEKTRO ESKULTURA  
 • SOLARIUM AZKARRA  
 • MESOTERAPIA-BUZTINA  
 San Lorenzo, 4 beheka • Tfnoa: 78 08 86 - 78 14 07 (Etxekoak) OÑATI

# ttirri-ttarra

Geure berbetia hobetu guran



## GOGUAN HARTU

Oraingo honetan geure artian 3. pertsona bakarrak ebalten diran hiru aditz trinko ikusiko ditugu: **IRUDI**, **JARIXO** eta **JARRAITTU**.

### IRUDI: (Nor-Nork)

#### Orañaldixa

Harek ha dirudi

Adb:

- Gizurra dirudi hala ibilli biharra!
- Hala dirudi!
- Umia dala dirudi!
- Ezdirudi berrogei urte dakonik!

### JARIN/JARIO: (Nor-Nori)

#### Orañaldixa

Ha hari darixo(la)

Adb:

- Odola darixola fan da komnera.
- Hor agertu da usaiña darixola.
- Zeiñek itxi dau txorrua ura darixola?
- Mokuak darixola dakozu
- Adurra darixola geratu giñan berari begira.
- Mutiko hori beti negarra darixola ageri da, ezta kint zer dakon.
- Izen moduan:
  - jarixona. Adb:
    - Kaldara honek jarixona dako.

*Depositto honek jarixona dako.*

- jarixua. Adb:
- odoljarixua.

### JARRAITTU/JARRAIKI: (Nor-Nori)

#### Orañaldixa

Ha hari darraixo

Adb:

- "Jarraittu dakixon" esanguriaz:
  - Jare txahalari amari darraixon.
  - Itxi aitarii bakian lanari darraixon.
- "Zerbait atzetik narras eruan" esanguriaz:
  - Han agertu da arropa zaharrak atzetik darraixola.
  - Astua etorri da bakarrak tantaixa darraixola.
- "Dagokixon moduko" esanguriaz:
  - Darraixon moduko andria hartu dau.
  - Darraixon moduko etxia erosi ei dau.

**Oharra:** "dirudi" eta "darixola" nabikua ebalten dira gure artian, baiña "darraixon" oso gutxi entzuten da; "darixo" bakarrak ezta Oñatin gorde, "darixola" formia baiño.

## ASMAU

Aurreko hilleko preguntiararen erantzuna hauxe dozue:

"Onenian" testuinguru honetan akaso, biharbada, agian esan gura dau. Adb:

- Onenian, San Fermiñetara fango zuan entzierrua ikustera.
- Ikusi dozue gure txakurra? Ez, beste bidia hartuko eben, onenian.
- Orainddio etxian eztaue jakingo, onenian.

Hil honetako preguntia hauxe dozue:

Zer esan gura dau "larri ibilli" esamoldiak harridurazko zentzuan ebalten dogunian? Adb:

- Gaur be illunkararako hodeixa larri ibilliko dok!
- A: Horreik danak afaittera etorteko bape bihar ez!
- B: Larri ibilli!

- A: Aurtengo Tourrian be baietz Belokik podiumera igo?

B: Larri ibilli! Sasueko dago eta zezozter egingo dau horrek!



**MEMESA**  
INDUSTRII HORNIDURAK

### OÑATI

Tfnoa.: 943 71 80 80

Faxa: 943 71 80 45

### ARRASATE

Tfnoa.: 943 71 24 25

Faxa: 943 71 22 98

### ARETXABAETA

Tfnoa.: 943 71 24 11

Faxa: 943 71 21 19



Artisau lan exotikoak

Keramika

Zurezko gaiak

Arropa, Larrua


Apainketa

Bakardadeko Ama kalea, 13  
OÑATI



# “Tirri-tarra

Geure berbetia hobetu guran



DAGOZEN DANAK EZTIRA,  
ETA DIRAN DANAK PE EZTARAZ!



## GOGUAN HARTU

Oraingo honetan, berez modu trinkua euki arren, geure artian era honetara ebalten eztiran hiru aditz ikusiko ditugu: *EKIN*, *ETZAN* eta *IRAGAN*

### EKIN:

(Nor-Nori / Nor-Nori-Nork)

Kandido Izagirrenen “El Vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes” liburutik hartutako ejempluetan *ekin* aditza *nor kasuan* konjuga da be ikusi leike.

Adb:

- *Ekin* (lanian/lanari)!
- *Ekingo* gara.
- *Ezta ekingo* udabarrixa.
- *Ekin gintzan* lanian.
- *Edurrari ekin txak*. (batuan *dio/ziok* hitanuan)
- *Gaur be ekin xau* (hasarriari, demandiari, arramarriari,...)
- *Atzo be ekin otzan* (erretolikiari, sermoiari, txikopleituari,...)

### ETZIN (etzan): (Nor)

Oñatin ezta ebalten aditz hau modu trinkuan. Honen ordez *EGON* eta *IZAN* ebalten dittugu.

Adibidez, guk eztogu esaten:

- *Zertan datza hemengo arazoa? Zein da hemengo problemia?*, baiño.

Edota

- *R. Mercado Zuazola hemen datza. R. Mercado Zuazola hemen dago*, baiño.

### IRAGO (iragan): (Nor)

Modu bakarrian entzuten da: *iragako* + *izena/aditzlagun*

Adb:

- *Iragako urte* honeittan ezto ikusi gizon hori.
  - *Iragako urtietan* egin dauen sikuterik haundixena egin dau aurten.
  - *Iragako urtietan ezta* egin holako berorik.
  - *Iragako egunetan* ur barik gagoz.
  - *Iragako aspaldixan* ezta Oñatin agertu.
  - *Iragako aspaldixan* enaiz izan Araotzen.
  - *Irago dok* (hodeixa, laguna,...)
- Oharra: Batzuetan zaila da esatia *iragoko* ala *iragako* entzuten dan.

## ASMAU

Aurreko hilleko preguntziaren erantzuna hauxe dozue:

“**Larri ibilli!**” esaeriak harridurazko zentzuan zera esan gura dau: *seguru asko baietz, segurutik baietz, ixixa seguru baietz, jokatu neuke baietz*. Adb:


- *Gaur gabian izotza larri ibilliko dok!*
- *Bixar be gaurko lakotxe galdia larri ibilliko don!*

A: Entzierruan izan dirala?

B: Eztakitt izan diran, baiña horreikin larri ibilli!

Hil honetako preguntzia hauxe dozue: Zer esan gura dau “**antza**” halako esaeretan? Adb:

- *Tripakomin eta burukomin antzarekin nabil.*
- *Eguzki antza atara xok.*
- *Pertsoniak ondo izateko, gose antzian eta zor antzian bihar xok.*



KONTRATAK  
IRVROK S.L.  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis.  
Tfnoa: 77 09 92  
ARRASATE

San Lorenzo, 39  
Tfnoa: 78 21 82  
OÑATI




Artisan lan exotikoak  
Keramika  
Zurezko gaiak  
Arropa, Larrua  
Apainketa

Bakardadeko Ama kalea, 13  
OÑATI

Geure berbetia hobetu guran

# ttirri-ttarri


HERRIXAN BAZAN  
ASKOTRO ESATEN  
OTZAIN GIZON BAT; OSO  
JATUNA EI ZAN, GAIJERA.  
BEHIN PASAN ZAN BARE-  
RO; BATEN ANRETIK  
ETA ODOLOSTE JSAINA  
HARTU EBEN. TENTAZI-  
NUAK; EUTSI EBANIK  
SABU ZAN BARURA, HA-  
RRAO EBEN ODOLOSTE  
BAT LAPIKOTIK ETA, POL-  
TSIKUAN GURDETA HANKA  
EGIN EI EBEN, LURUNA  
DAGIXOLA...



BANA, DOMEKIA ZALA-TA, ETXERATU ANRETIK  
ELIZARLA FAN ZAN, ABADIAK LAPURRETEK  
GAINIAN SERTUOINTZAN ZIHARDUELA



...ASKOTROK EGITTEN DAU LAPURRETEK, ASKOTROK...



## GOGUAN HARTU

Oraingo honetan, euki badakon arren, geure artian modu trinkuan ebalten eztan aditz baten gaiñian berba egingo dogu. Bera gure aditzaren morfologixia entendituko oso inportantia da. **EUTSI** aditza da bera.

### **EUTSI:** (Nor-Nori-Nork) (Eutsi-eusten-eutsiko)

- Aginterako forma honeik bakarrik ebalten dira gure artian: *eutsixok/n* (eutsi egixok/n), *eutsixek/n* (eutsi egixek/n); forma arkaiko edo bakan moduan: *autso!* be geratu da, azentua azkenengo silaban ifiñitta. Adb: *Autso ogixa! Autso papera! Autso liburua!*
- Bestela animua emuteko esaretan ikusten dogu: *Eutsi geuriari! Eutsi umore horri!*
- Baita *eutsi bidia*ri be esaten da, bide horri segiuteko, hau da, bide horretatik ez urteteko esanguriaz.
- Izenak be sortu dira aditz honetatik: *eutsixa*, ximurra esateko, eta *euslia* edo *eustzailla bat*, eusten dauena esateko, esate baterako: *txarri-euslaak*. *Euskarrixa*: burdi, mahai edo uhe bateri esate baterako, eutsiko xauen zeozer, izan leike harri bat, taketa bat, egur bat, eta abar.

Askoren ustez, aditz hau oso inportantia da, berak **ADITZ LAGUNTZAILLIAREN FUNTZIÑUA** beteten dauelako gure aditz-sisteman, euskera batu-tik aldenduaz. Ikus dagigun:

### **NOR-NORI-NORK:**

Indikatibua oraiña: *dostat, dostak/n, dost, dostagu, dostazu, dostazue, dostai,...*

Indikatibua lehena: *nostan, ostaten, notzun, nostazun, nostazuen, nostain,...*

Baldintza aurrekoa: *banotza, bahotza, balotza, bagotza, bazotza, bazotzai, balotzai,...*

Baldintza ondorixua: *neuskio, heuskio, leuskio, geunskio, zeunskio, zeunskioe, leuskioe,...*

## ASMAU

Aurreko hilleko preguñtaren erantzuna hauxe dozue:

“Antz” izenak aurreko hillian ait-tatutako ejenpluetan *pittin bat, puntua, samar, itxuria* esan gura dau. Iku-si dagigun ejenplu batzuk:

- *Gaixo antzian dabil = Gaixo samar dabil*

- *Kalentura antza dakot = Kalentura pittin bat dakot*

- *Negu antza hartzen xat gaurko eguraldixari = Negu itxuria hartzen xat gaurko eguraldixari*

- *Gose antza egin xaku = Gose puntua egin xaku*

Hil honetako preguñtia hauxe dozue:

Esaten badogu, ume bat “*katamar-rran dabillela*” zer esan gura dogu? Zein beste forma ezaguketan dozu hori esateko?

# ttirri-ttarrri

Geure berbetia hobetu guran

## GOGUAN HARTU

Aurreko alian *eutsi* aditza agertu geben. Orainguan aditz-laguntzaillien funtziñua beteteko ebalten dogun beste aditz bat aurkeztuko dogu: EGIN aditza, gure gramatikaren morfologixia entendeteko oso inportantia.

**EGIN:** ( Nor-Nork) (Egin, egitten, egingo)

❶ Lehenengo eta behin ikusiko ditugu aditz honetatik etorritako atzizki batzuk. Adibidez:

-GIN [-GIÑA] (Pertsonia, laguna): *bidegiña, uztargiña, zimizgiña, hargiña, ontzigiña, joskiña, ikazkiña.*

-GILLA [-GILLIA] (Pertsonia, laguna): *egillia, demandagillia, ehungillia, abarkagillia, sokagillia.*

-NTZAA [-GINTZAIA] (Lana, zeregiña): *bidegintzaia, egurgintzaia, langintzaia, alpargatagintzaia, banastagintzaia, eskopetagintzaia.*

❷ Aktua edo ekintzia markaitteko -GIÑAN ebalten dogu, *egon, ibilli* edo holako aditz bat atzetik dauela: *pistagiñan dabil, kakagiñan dago.* Beste adibide batzuk: *paretagiñan, etxegiñan, suegurgiñan, txondorgiñan, presagiñan, txizagiñan, arkugiñan,...*

❸ Baiña guretako aditz hau, aurrekoa moduan, oso inportantia da berak **ADITZ LAGUNTZAILLIAREN FUNTZIÑUA** beteten dauelako gure aditz-sisteman, euskera batutik aldentuz. Jatorrizko *negike, dagidan, egik, dagiodan* eta antzeko formetan gaur egun gure artian bokalen arteko "g" hori galdu egin da gehixenetan eta *neike, daidan, eik, daixodan* lako adizkixak geratu xaku. Hona hemen adibide batzuk:

### NOR-NORK

- ✓ Ahalezkua oraiña-hipotetikua: *neike, heike, leike, geike, zeike, zeikei, leikei*
- Subjuntibua oraiña: *daidan, daian, daixen, daigun, daizun, daizuen, daixeen*
- ✓ Agintera: *e(g)ik/n, e(g)izuz, e(g)izue, na(g)izuz*

### NOR-NORI-NORK

- ✓ Ahalezkua oraiña-hipotetikua: *neikixo, heikixo, leikixo, geikixo, zeikixo, zeikixue, leikixue*
- ✓ Subjuntibua oraiña: *daixodan, daixuan, daixon, daixogun, daixozun, daixozuen, daixuen*
- ✓ Agintera: *e(g)idazu, e(g)idazue, e(g)ixok/n, e(g)ixozu, e(g)ixozue, e(g)ixezu, e(g)ixezue*



## ASMAU

Aurreko hilleko preguntien erantzuna hauxe dozue: Ume bat *katamarran dabil* esaten dogunian *lauoiñian lurrian dabil* esan gura dogu. Beste era batzuk be badagoz hori adierazteko, adibidez: *Lauoiñian, lauhankan, katuka, txakurka,...* Ikusi daigun:

- ✓ *Gure umia lauhankan hasi da.*
- ✓ *Zuen umia badabil lauoiñian?*
- ✓ *Julenek Gorkak baiño lehenago ikasi eben txakurka.*

Hil honetako preguntia hauxe dozue: Zer esan gura dau "inndarra hartu" espresifluak ondorengo ejenpluetan? Adb:

- ✓ *Barrikiatiak inddarra hartuko osten, eztira agiri-eta.*
- ✓ *Hemen txarrak hartu dau inddarra, eta orain hori dana zuzenketan lanak!*
- ✓ *Hemen nagikerixiak hartu dau inddarra, horixe da kontua!*

*Barrenetxea*  
**Botikategia**  
 Analsiak. Homeopatia. Ortopedia...  
 Kale Zaharra, 1. Tfnoa: 78 01 22

**ELORZA**  
**Burdindegia eta brikolajea**  
 Kale Barria, 17 Tfnoa: 78 07 80  
 OÑATI

Geure berbetia hobetu guran



GABON HONEITTAN  
NORA HOIA??

OILLO ZURIXAK  
ARRAUTZA BALTZA  
EGITTEN DAVEN  
LEKIRA!!

**GOGUAN HARTU**

Laburtuta hola ifiñi leike geure aditz laguntzaillien eskemia. Ikusi daigun:

	INDIKATIBUA: Oraña Lehena Baldintzazkuak	AHALEZKUA SUBJUNTIBUA AGINDDUERIA
NOR eta NOR-NORI	<b>IZAN</b> (Batuan letxe) zuztarrak: -za-  Adb: <i>naiç, nintzan, banintz, nintzake, xat, xaten, balitzat, litxakit</i>	<b>EDIN</b> (Batuan letxe) zuztarrak: -di-  Adb: <i>neike, nain, hari neikixo, dakidan, haxixo</i>
NOR-NORK	<b>EDUN</b> (Batuan letxe) zuztarrak: -o-/au-/eu-  Adb: <i>dot, neben, banen, netke</i>	<b>EGIN</b> (Batuan eztan moduan; han EZAN ebalten daue) zuztarrak: -gi- Adb: <i>neike, da(g)idan, etgizu</i>
NOR-NORI-NORK	<b>EUTSI</b> (Batuan eztan moduan; han EDUN ebalten daue) zuztarrak: -euts-  Adb: <i>dotzat, notzun, banotzu, notzuke</i>	<b>EGIN</b> (Batuan eztan moduan; han EZAN ebalten daue) zuztarrak: -gi- Adb: <i>neikixo, daixodan, etgidazu</i>

Euskera batuaren aditz-sisteman lau aditz laguntzaille ebalten dira: IZAN, EDIN, EDUN eta EZAN.

Oñatieran, barriz, bizkaieraren moduan bost: IZAN, EDIN, EDUN, EUTSI eta EGIN.

**ASMAU**

Aurreko hilleko preguniaren erantzuna hauxe dozue: "indarra hartu" espresifinuk esan gura dau zerbait nagusitu dala, edo beste zerbaiten gaiñetik gelditu dala. Hona ejemplo batzuk:

- ✓ *Haitziak indarra hartu dau eta kontuz ibilli zeikei.*
- ✓ *Bart errekiak indarra hartu dau.*
- ✓ *Haundikerixiak eta harrokerixiak indarra hartzen dauenian, eztago gauza onik!*
- ✓ *Gizurrak hartu dau hor indarra: egixa belauniko eta gizurra zutik!*

Hil honetako preguntia hauxe dozue:

Zer da "batiuak egittia"? Adb:

- A.- *Hurrengo domekan batiuak ditugu.*
- B.- *Zeiñenak ba?*
- A.- *Fidelen umiarenak.*



**EGUR-LAN**  
— AROZTEGIA —

- LEIHOAK
- TARIMAK
- ATEAK
- ERA GUZTIETAKO EGUR LANAK
- ALTZARIAK

Berezaio industrialdea Tf./Faxa: 943 78 14 59 • OÑATI



**SAN MIGEL**  
**Koperatiba**

Supermerkatua: Kale Barria, 8.  
Tfnoa: 78 12 17  
Mendirako tresnak: Kale Zaharra, 27  
Tfnoa: 78 17 82

## GOGUAN HARTU

Igazko agorreko numeruan *IRUDI* aditza aittaketarakuan. Oñatin aditz honen 3. pertsona bakarrik ebalten zala esan geben, adibidez: *gizurra dirudi, hala dirudi* eta holakuak. Bai, hala da, baiña honez gain, badira gure artian honen funtziñua beteten dauein beste aditz batzuk be. Ikusi daigun:

### 1) EMUN

*Kalekumia dirudi* esan biharrian *kalekumia emuten dau.*  
*Baserritarra dirudi* " " *baserritarra emuten dau.*  
*Artistia dirudi* " " *artistia emuten dau.*  
*Frantsesa dirudi* " " *frantsesa emuten dau.*  
*Etorri barrixa dirudi* " " *etorri barrixa emuten dau.*

Baita pertsona danetan konjugauta be, adibidez:

*Txapel honekin zaharragua emuten dot*  
*Erropa horrekin gizajua emuten dok/n*  
*Langintza horretan hasi barrixa emuten dau*  
*Itxura honekin eskekuak emuten dogu*  
*Sandalia horrekin fraillia emuten dozu*  
*Belarritako horreikin andrak emuten dozue*  
*Bigote horregaz jaunxuak emuten daue*

### 2) Iruditu aditzaren orde **PENTSAU** aditza ebalten dogu

*NOR-NORI* sisteman konjugauta.

*Ondo iruditzen zait* esan orde, *ondo pentsaitten xat* esaten dogu  
*Ez zait ondo iruditzen* " " *etxat ondo pentsaitten* " "  
*Zer iruditzen zaizu?* " " *zer pentsaitten xat-zu?* " "  
*Aitari ondo iruditu zait* " " *aitari ondo pentsau xako* " "

Bardin beste pertsona danetan, adibidez:

*Ondo pentsaitten xat hemen geraketia*  
*Zer pentsaitten xak/n menditik buelta bat egittia?*  
*Etxako ondo pentsau zuk esandakua*  
*Gaizki pentsau xaku hori*  
*Ondo pentsaitten baxatzu, plazan juntauko gara*  
*Hala pentsaitten baxatzue, esan egixozue*  
*Etxia erosteko hainbeste diru ifiñi bihar, etxate ondo pentsau*

### 3) Esan bihar da hala be, sustantibo moduan, hau da, **IRUDIPENA**

berbia, ezaguna dala gure artian. Hona hemen Kandido Izagirrearen hiztegiaren jasota dagozen bi ejenplu:

*Irudipena izango zan*  
*Iruditasuna*

Gaur egunian *imaginaziñua, pentsamentua, ustia* edo honen antzeko berbaren bat gehixago ebaliko geunke.

### 4) Irudipena, ustia esateko geure artian ebalten dogun beste berba bat **BEGITANTZIÑO** da,

adibidez:  
 A.- *Han badago baten bat.*  
 B.- *Han etxagok iñor, begitantiñua izango dok*

HEMEN TXARRITXO BAT  
 BALLEGOZ HILTTEKO!



## ASMAU

Aurreko hilleko preguntiararen erantzuna hauxe dozue:  
*"Batiuak egittia" gure baserrietako lehenagoko usadixo bat da. K. Izagirrek jasota dakon moduan: "bataio bat izan eta hurrengo domekan senide danak egitten euen bazkari haundixa da. Lehengusu txikixak be alkar-ketan ei ziran". Beste leku batzuetan, Legazpin esate baterako, "martopillak" esaten xate honeiri eta hortik "martopil bazkaria" edota "martopilletako bazkaria"*

Adb:

- *Askazubin Pedro jaixo zanian, maiorazkua zalako, batiuak egin ziran.*

- *Batiuak egitte hori gastauaz fan dan ohituria da.*

Hil honetako preguntia hauxe dozue:

*Antzigarra zein beste izenekin ezaguketan dogu?*

Adb:

*Gaur antzigarra egin dau*  
*Aitzonduan (Aloñan) antzigarra dago*  
*Hotz haundixena antzigarra dagueñian egitten dau*

# BATYAK, S. A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN  
 TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa • Industrialdea • 18 Posta Kutxatila  
 Tfnoa: 78 11 15 Telefaxa: 78 32 63 • OÑATI (Gipuzkoa)

# JON

**ARGAZKIGINTZA**

Kale Barria, 28 behea  
 Tfnoa: 78 24 81 OÑATI

Geure berbetia hobetu guran

## GOGUAN HARTU

Oñatiko aditza azterketarakuan, lehenengo golpian nabarmenketan dana [S] fonemaren ugarittasuna da: *xat, xak, xako, xaku, xaten, xaken, xakon, xakun, xuat, xonat, xakuat, xakonat, xatok, xaton,...*

Ikusi daigun zergatik pasaiten dan hau:

a) Indikatiboko *NOR-NORI* eta *NOR-NORI-NORK* hirugarren pertsona oraiñaldixan konjugaitterakuan, *xat, xak/n, xatzu, xatzue* aditz laguntzailliak bardin egitten dittugu; lehenaldirako barriz, "xaten" eta "notzan" eta honein konjugaziñuak ebali biharko geunke, sarri samar bixak nahasketan badira be. Objetua, singularra nahiz plurala izan, bardin jokaketan dogu aditza.

b) Epentesisa izeneko bustidura moduko bat da beste adizki batzuetan emuten dan fenomeno fonetikua. Hitanoko formetan asko ikusten dogu eta baita dip-tonguan eztagozen bokalen alkarketia emuten danian be: *dagixen, neikixo, e(g)ixok/n,...*

a hemen lehenengo puntuan aittatu dogun arazua argiketako indikatiboko bi aditz sistema honein tablak:

### Indikatiboko NOR-NORI

Aditza: IZAN; zuztarra: -za-; zait > xat

	Oraiñaldixa			Lehenaldixa		
	Neutra	Alokutibuak (hika)		Neutra	Alokutibuak (hika)	
Neri lan						
hori gustaiten	xat	xatak	xatan	xaten	xatian	xatanan
Hiri lan						
hori gustaiten	xak/xan	-	-	xaken/xanan	-	-
Hari lan						
hori gustaiten	xako	xakok	xakon	xakon	xakuan	xakonan
Guri lan						
hori gustaiten	xaku	xakuk	xakun	xakun	txakun	txakunan
Zuri lan						
hori gustaiten	xatzu	-	-	xatzun	-	-
Zuei lan						
hori gustaiten	xatzue	-	-	xatzuen	-	-
Hareiri lan						
hori gustaiten	xate	xatek	xaten	xaten	xatiain	xatinain

Pluralian singularrian moduan egitten dogu. Orduan, lan hori esan biharrian, lan horreik esango bageu aditz laguntzaillia elitzake aldatuko: *Neri lan horreik taitten xat*

### Indikatiboko NOR-NORI-NORK

Aditza: EUTSI; zuztarra: -euts-; deusat > dotzat > tzat > xat

	Oraiñaldixa			Lehenaldixa		
	Neutra	Alokutibuak (hika)		Neutra	Alokutibuak (hika)	
Nik mutikuari						
lan hori ifiñi	xat	txat	txanat	notzan	nixan	nixanan
Hik mutikuari						
lan hori ifiñi	xak/xan	-	-	otzan	-	-
Harek mutikuari						
lan hori ifiñi	xau	txau	txaun	otzan	txan	txanan
Guk mutikuari						
lan hori ifiñi	xangu	txangu	txanagu	gotzan	gitxan	gitxanan
Zuk mutikuari						
lan hori ifiñi	xatzu	-	-	zotzan	-	-
Zuek mutikuari						
lan hori ifiñi	xatzue	-	-	zotzain	-	-
Harek mutikuari						
lan hori ifiñi	xau	txau	txanai	otzain	txain	txainain

Pluralian singularrian moduan egitten dogu. Orduan, lan hori esan biharrian, lan horreik esango bageu, aditz laguntzaillia elitzake aldatuko: *Nik mutikuari lan horreik ifiñi xat*



ABADIAR ETA MONAGILLUAK HOLA DIHARDUE EUREN ARTIAN...



Geure berbetia hobetu guran

# ttirri-ttirri- BARRUKO



## GOGUAN HARTU

### ARI IZAN-en ordezkua:

Prozesuaren jardueria adierazteko *ari izan* zabaldu dau euskera batuak. Hori esateko, barriz, *ibilli, egon, fan, jardun, ebali eta ekin* aditz laguntzailliaz balixau dira mendebaldeko euskeran eta baita Oñatin be. Ikusi daigun, banan-banan aukera danak:

#### ‘Ibilli’

*Ibilli* aditz laguntzaillia, batez be, mogimentua edo ekintzia adierazten dauen aditzekin ebalten da. Baita luzaroko prozesuetan be.

- *Etxe zuriketan dabiltezilla dixue, baiña eztaue aurrerakada haundirik egin.*
- *Zarataka dabiltz jarraitzailliak goiz osuan.*
- *Kartetan ebillela, konortia galdu eben.*
- *Eskuz ibilli gara pelotan, eta orain ezin xat boligrafuari heldu.*

#### ‘Egon’

Batez be, prozesu geldixa edo momentukua adierazteko ebalten da.

- *Ibilli zatez isiltxuago, umia lo dago-eta.*
- *Etzatez hurreratu, ze ernegaitten dago-eta.*
- *Mendiko kalia jaixo zan, jausten eguen etxe zahar batian.*
- *Txistua joten eguela, mutiko pillia hurreratu xakon.*

#### ‘Fan’

Gehixenetan *-TEN + fan* edo *-TUAZ + fan* perifraxetan ebalten dogu, hola momentuko jardueria adierazizax.

- *Aloña ingurutik pasaitten dabillen abioi hori jausten doiala emuten dau.*
- *Landara hori igarketan doia.*
- *Lora hori itxi bake-bakian bentajan doia-eta*
- *Zerua garbituaz doia.*
- *Gu zahartuaz goiaz*
- *Zer moduz aitta, baxoiak gogortuaz?*

#### ‘Jardun’

Ekintzak adierazteko ebalten da. Nork erako aditzekin.

- *San Josetan Garaiñekuak ez euen jairik hartu, lanian jardun euen.*
- *Hormia jasoten badihardugu; ia laister akabaitten dogun etxia!*
- *Zertan dihardue gazte horreik?*
- *Sukaldera sartu naizenian, amak babia ifintten ziharduen.*

#### ‘Ebali’

Nork eran agerketan da.

- *Zer dabik ba alde honetan? Susatan nabik.*
- *Ikusi dok bakarren bat?*
- *Zer xabillagu, mutillak! Danak mozkortuta, ala?*
- *Hareik xabillai martxia, hareik!*
- *Hemen dabitue uniak ala amarenian itxi diituzue?*

#### ‘Ekin’

*Ekin* aditzak esangura bat baiño gehixago dako. Hau da, zeozer egitten ahaleginketia izan leike batetik; eta, bestetik, zeozer egitten hasteia be bai. Horrez gain, zerbait egitten segittia be izan leike. Nor-Nori-Nork erako aditz laguntzaillia eskaketan dau. Hala eta guztiz be, *zeri ekin* eta *zertan ekin*, bixetara ebalten da.

- *Ekin eta ekin ikusten dot eta horrek atarako dau kurtsua.*
- *Kartetan ekin xaue arratsalde danian geratu barik.*
- *Ekiña txarra dala hori aspaldikua dok!*
- *Eziña, ekiñaz, egiña.*
- *Hori saiatua izango da, beti ikusten dot ekiñian-eta.*

*Barrenetxea*

**Botikategia**

Analisiak. Homeopatia. Ortopedia...

Kale Zaharra, 1. Tfnoa: 78 01 22

**LENTZERIA**

BARRUKO  
LENTZERIA ETA  
KORSETEGIAN  
DOTOREA

Atzeko kale, 13  
Tfnoa: 78 34 44  
OÑATI

# ...tirri-ttarra

Geure berbetia hobetu guran



## GOGUAN HARTU

### Galdegaixa aditza bera danian:

Esaldixan aditza bera da azpimarratu gura dogun osagaixa. Horrelakuetan bi kasu bereizi bihar dira: Adizki perifrastikuak. Azpimarratu gura dogun osagaixa adizki perifrastikua danian, egin aditzaz balixaitten gara. Ikusi dagigun zenbait adibide:

- Zer pasau xakon ba Antoniori? Lanian ebillela jausi egin zan.
- Etorri egin da? Bai, etorri egin egin da, baiña eztau lanik egin.
- Gure mutikuak-eta arroza etxuain bota e, jan egin xuain.
- Egin egin xuagu, orain ikusi egin bihar zela geraketan dan!
- Egin eik egin, egin egin bihar badok!
- Egin egin bihar, jango baldin bada!

Adizki trinkuak. Kasu noneittan aditza bera errepikaitten da. Adibidez:

- Eguna fan doia, eta gu ezer be egin barik!
- Bueno, ni fan noia. Bixar arte!
- Ibilli gustora dabil hareikin, baiña eztau txikitarik be irabazten!
- Ameriketatik etorri zatozela entzun dot,

### egixa da hori?

- Euki baxakok, baiña emutekua ezto!
- Jakin baxakik harek berarendako lain!
- Izan gura dauena izango dok, baiña etxok asko erakutsi!
- Ibilli ibilliko da billa, baiña kostauko xako!
- Etorri etorriko da. Ez alperrik!
- Egon badago, baiña garesti!
- Medikua izan bada; titulua badako behintzat eta, baiña praktikia falta xako.

Aditza bera be askotan errepikaitten dogu beste esangura batzuk adierazteko, harriduria, baieztapena,...eta abar. Adibidez:

- Nik ikusi dot ikustekua!
- Harek esan ditte esatekuak!
- Ha jarri xat jartekua!
- Eginndakua eginnda!
- Ikasittakua ikasitta!
- Saldutakua salduta!
- Kendutakua kenduta!
- Konpondu biharrekua konponketako!
- Zuzendu barikua zuzenketako!
- Argittu barikua argiketako!

## ASMAU

Otsailleko numeruan egin geben preguntiaren erantzuna hauxe dozue: Antzigarra "zurdia" izenez be ezaguetan da gure artian. Adb: - Aurtengo neguan mendixan zurdia sarrittan agertu dok! - Ikusten dok zurdia? Epelik eztaguen seiñalia! - Aitzonduan zurdia latz egin xok aurtan!

Hil honetako preguntia hauxe dozue: Zer da large(r)o edo larde-ro egittia? Adb: - Illunkaran etorri gurera largero egingo dogu-eta. - Aratiztiairi bere itxuria emuteko, bixar largero egin bihar dogu. - Gaur largero dakogu eta arintxuago bazkaldu bihar-ko dogu.

## VICTOR FREIRE e HIJOS

### Igeltseritza

- Berrikuntzak orokorrean • Teilatu eta fatxaden konponketak • Biltegia Berezaon

Errekalde 22, Ezk. OÑATI Tfnoa: 78 07 69


## ARGITASUNA



Zubibbarri, 2  
943 71 64 28

20560 OÑATI  
(Gipuzkoa)





## GOGUAN HARTU

Aditzarekin gabiltzan honetan, bada aditz-perifrazi berezi samarra, *dudia*, *zalantzia* edo *ustia* adierazteko ebalten doguna: **aditz nagusixa[(-r)ik] + izango + dagokixon aditz laguntzailia** forman emunda etorten dana. Adb.:

- Hemen ezta agiri eta fanik izango da honezkero.
- Fan etxera, ama etorri izango da-eta.
- Gure Anderrek topau izango dau bere moduko lagunen bat eta hor ibilliko da kalia.
- Ontzixak fregaderan ikusi dittut eta zerbait janik izango dau.
- Lora honeik zer egitten daue hemen? Estherrek itxi izango dittu.
- Aldeko Pedro Marik ekarri izango dittu perretxiko horreik.
- Eztakit ezer baiña, Donostiara fan diran ezker, eroserik izango dittue pelota partidurako entradok.
- Araba aldian be eurixa egiñik izango dau.

Esangura hau beste egitura batzuen bidez be emuten dogu sarrixago. Adb.:

- Araba aldian be eurixa egin izan bihar dau. edo
- Araba aldian be, seguruenez, eurixa egingo eben.
- Aldeko Pedro Marik ekarri izan bihar dittu perretxiko horreik. edo
- Aldeko Pedro Marik ekarriko zittuan, seguruenez, perretxiko horreik.

## ASMAU

Aurreko hilleko preguntiaren erantzuna hauxe dozue:

*Large(r)o* edo *lardero* egittia zera izaten da: karnabal astian, eguen zuri egunian, illunkara aldera etxian afari-merienda moduketia. Menua hauxe izaten da gehixenetan: arrautza-paria txorixuaz eta gaiñetik pellak edo/eta torradak. Hau danau ezpada be, txorixua behintzat, egoten da. Adb.:

- Gaur gure amarenian largero dakogu.
- Pellak edo torradak egin ezker, gabian largero egingo dogu.

Hil honetako preguntia hauxe dozue:

Makiña bat aldiz kanpoko jente sasi-letrauak barre egin dau oñatiarron kontura "bentania" eta holako "erderakadak" esaten ei dittugulako. Gai hau hartuta hona hemen hil honetako preguntia:

Zein alde dago leihua eta bentaniaren artian?

## M. AGVIRREVRRETA OKINDEGIA

Berezano auzoa, 21  
Tfnoak: 78 23 45 / 78 22 54  
OÑATI

## ARGITASUNA

*eguna*

Zubibarri, 2  
943 71 64 28

20560 OÑATI  
(Gipuzkoa)

# Itirri-ttarra

Geure berbetia hobetu gura

ELGETAKO PLAZAN, 2002-06-1.ian



## GOGUAN HARTU

Hurrengo ataletan deklinabidia lantzeiari ekingo xaugu eta horretarako erakuslieta-tik hasiko gara:

### ERAKUSLIAK

	SINGULARRA			PLURALA		
1. ZEIN	hau	hori	ba	honetik	horretik	haretik
2. ZEINEK	honek	horrek	harek	honeik	horreik	hareik
3. ZEINI	honi	hori	bari	honetan	horretan	haretan
4. ZEINEN	honen	horren	haren	honetan	horretan	haretan
ZEINENA	honena	horrena	harena	honetan	horretan	haretan
5. ZEINEKIN	honekin	horrekin	harekin	honetekin	horrekin	harekin
ZEINEGAZ	honegaz	horregaz	haregaz	honetarekin	horrekin	harekin
6. ZEINENTZAT	honentzat	horrentzat	harentzat	honetantzat	horreintzat	hareintzat
ZEINENDAKO	honendako	horrendako	harendako	honetarantzat	horreintzat	hareintzat
7. ZEINEN	honen	horren	haren	honetan	horretan	haretan
GAINIAN	gainean	gainean	gainean	honetan	horretan	haretan
8. NUN	honetan	horretan	haretan	honetan	horretan	haretan
9. NUNDIK	honetatik	horretatik	haretatik	honetatik	horretatik	haretatik
10. NORA	honetara	horretara	haretara	honetara	horretara	haretara
11. NORAINO	honetaraino	horretaraino	haretaraino	honetaraino	horretaraino	haretaraino
12. NORUTZ	alde	alde	alde	alde	alde	alde
13. NUNGO	honetara	horretara	haretara	honetara	horretara	haretara
14. NORAKO	honetarako	horretarako	haretarako	honetarako	horretarako	haretarako

### Oharrak:

- 1) Pertsona nagusixen artian *hak* be entzuten da.
- 2) Badirudi *Zeinegaz* kasua pluralian ezala ebalten.
- 3) Nortaz kasua ezta ebalten gure artian, bere ordez *zeinen gainian* esaten dogu.
- 4) *Nun*, *Nundik*, *Nora* kasuetan *hontan/hortan*; *hontatik/hortatik*; eta *hontara/hortara* formak be ebalten dira.
- 5) *Norantz* kasua be, gure artian, *norutz* dana, gutxi ebalten da erakusle moduan. Bere ordez, *nora* kasua ebalten dogu, e.b: *etxe honetara*, *denda horretara*, *mendi haretara*; edota leku-adberbixo moduan bera bakarrik: *etorri honutz*, *egin horrutz*, *fan harutz*.
- 6) Instrumental kasuaren ordez (*honetaz*, *horretaz*), *jak* *zeinekui* kasua ebalten dogu.

## ASMAU

Aurreko hilleko preguntziaren erantzuna hauxe dozue:

*Leiuak bentania* baiño berba zaharragua dala emuten dau. Lehenagoko etxietan argixa sartzeko egiten zan zulu oso txikiña izaten zan, kristalik etzan ezaguketan-eta; geruago, barriz, kristalak asmau ziraman zulo haundixaguak egin zeikien eta hortik hartu zan inguruko erdaratik zulo haundi hori izentaitteko izen berrixa, *bentania*, hain zuzen be. Orduan, *leihua* da etxietako pareta edo hormetan daguen zulo txikiña, eta *bentania*, barriz, gaur eguneko etxiak argixa sartzeko dakoin zulo normala. Bereizketa hori Oñatin egiten ei zan, esate baterako, Olakuan daguen Bidaurreta torrian (oraingo *Oñari Irratia* eta *Kontzejupetik* aldizkari-ko egoitzan). Hango hormetako zulo edo irristu estuei bertako bizilagunak *leiuak* esaten ostein, baita San Prudentzio auzoko Sakone baserriko ittueko irristuei be.

Hil honetako preguntia hauxe dozue:


Zer da jartzetxia?



## MIZKE

- Gozoki eta fruitu eiharrak.
- Ezkontza, bataio eta lehenengo jaunartzerako enkarguak hartzen dira.

Kale Zaharra, 3  
Tfnoa: 78 28 14



## Arrizabalaga AROZTEGIA

BEREZAO INDUSTRIALDEA 10 TEL. 78 14 64

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

Geure berbetia hobetu guran

# ttirri-ttarr...

HEMEN JA EZTA ENTZUTEN  
 EZ GIZONEN BERBA-HOTSIK,  
 EZ ANDRAAN LEKAIKORIK,  
 EZ NESKATILLEN KANTURIK,  
 EZ AMANDRAAN KONTURIK,  
 EZ UMIEN NEGARRIK,  
 EZ MUTIKJEN GARRAMISTURIK,  
 EZ KANPAERIK,  
 EZ TXISTRURIK,  
 EZ EUPADARIK.  
 HAU TOTAL IXILDU DA!  
 NOIAN NEU BE IXILKETARA,  
 INOR ASPERTU AURRETIK.  
 AIXO DANOI ETA LEHENEN GO ARTE!



## GOGUAN HARTU

Aurreko alian erakusien kasu bizibaiak sartu gittuan ezkeru, orainguan kasu bizidunak sartuko ditugu:

### ERAKUSLIAK

	SINGULARRA			PLURALA		
15. ZEINĖNGANDIK	honegandik	horregandik	haregandik	honeikandik	horreikandik	hareikandik
16. ZEINĖNGANA	honegana	horregana	haregana	honeikana	horreikana	hareikana
17. ZEINĖNGATIK	honegatik	horregatik	haregatik	honeikatik	horreikatik	hareikatik

### Oharrak:

**Zeinengan** kasuaren ordeaz, beste kasu batzuk ebalten ditugu, **zeinekin, zein, zeinek, zeinena...**: *aitta-amekin konfiantza; gaztiak dakozue gizartiaren etorkizuna; aitta-amana da problema, ez umiarena.*  
**Zeinenganantz** eta **zeinenganaino** kasuak ez ditugu ebalten, horrein lekua beteteko **zeinengana** kasua da ebalten dogun bakarra.

Tabla honi akaberia emuteko komentau gura dogu beste erakusle bat, formaz erakuslia izan arren, funtziñoz adverbio modala edo finala dana; **hartara** formaren gainian gabiltz berbetan. Adb:

- Eskuartian dakogun lana partittia izango da onena, **hartara** lehenago akaboko dogu-eta.
- Automobil banatan fan biharrian autobusian fan gaittezen, **hartara** merkiago urtengo dosku.
- Ibilbidia egin aurretik testua irakurtia komeni da, **hartara** hobeto entendiuko da ibilixaren nundik-norakua.

## ASMAU

Aurreko hilleko pre-guntiare erantzuna hauxe dozue:

**Jaztetxia** hauxe da: Sasue batian baserrittarrak kalera jeisten zirenean, euren egin biharrian edo lanak zertzera, kalia aldaketako eukitten euen etxia izaten zan. Etxe horretan erropak edo oiñetakuak aldaketiaz gainera, enkar-guak itxi eta jaso, astua lotu, guardasola hartu eta abar luze bat egiten euen; hortik hartuemun haundixa sortzen zan eta gero etorten ziran alkarri egindako konbidautzak eta enparauak. Sarrittan jaztetxeko bizilagunak eta base-rikuak pariente artekuak izaten ziran.

**VICTOR FREIRE e HIJOS**  
**Igeltseritza**  
 • Berrikuntzak orokorrean • Teilatu eta fatxaden konponketak • Biltegia Berezaon  
**Errekalde 22, Ezk. OÑATI Tfnoa: 78 07 69**

*Barrenetxea*  
**Botikategia**  
 Analisiak. Homeopatia. Ortopedia...  
 Kale Zaharra, 1. Tfnoa: 78 01 22